

Nokia C5-00 erabiltzailearen gida

Edukia		Pertsonalizatu telefonoa	21
		Hasierako pantaila	21
		Kontaktu-barra	21
Segurtasuna	5	Gaiak	21
Zure telefonoa	5	Profilak	22
Bulegoko aplikazioak	6		
Sareko zerbitzuak	6	Telefonoa	24
Lehen urratsak	8	Deiak egin	24
Teklak eta atalak	8	Deiak erantzun	24
SIM txartela eta bateria sartu	8	Bideo-dei bat egin	24
Sartu memoria txartel bat	9	Bideo dei bat erantzun edo ukatu	25
Uhala	9	Bideoak partekatzeko eskakizunak	25
Bateria kargatu	10	Zuzeneko bideoak partekatu	26
Piztu eta itzali telefonoa	11	Telekonferentzia bat hasi	26
Teklatuaren blokeoa	11	Markaketa bizkorra	27
Bolumenaren kontrola	11	Ahots bidezko markatzea	27
Konektatu entzungailu bateragarri bat.	11	Grabagailua	27
Konektatu USB datu-kablea	12	Deien eta datuen erregistroak	28
Antenen kokapena	12	Deien debekuak	28
Transferitu edukia beste gailu batera	12	Markatze finkoa	29
Ovi Suite instalatu	13	Deiak desbideratzea	29
Ikus Ovi	13	Deiaren ezarpenak	30
Ovi dendari buruz	14	Sareko ezarpenak	31
Kendu memoria txartela	14		
Bateria eta SIM txartela kendu	14	Kontaktuak	32
Oinarrizko erabilera	15	Zure sareko lagunekin uneoro harremanetan izan	32
Testua idatzi	15	Kontaktuak koptatu	32
Menua	16	Izenak eta zenbakiak kudeatu	32
Pantailako adierazleak	16	Izenak eta zenbakiak gorde eta editatu	33
Lasterbideak	18	Kontaktuen dei-tonuak, irudiak eta deietarako testua	33
Deskonektatuta profila	18		
Sarbide kodeak	19	Mezuak	35
Konfigurazio ezarpenak	19	Mezularitzari buruz	35
Ezarpen laguntzailea	20	Mezuak idatzi eta bidaltzea	35
Urruneko blokeoa	20	Posta elektronikoa	36
		Txatari buruz	40
		Ovi kontaktuak	40

Konexioak	46	Galeriari buruz	73
Ordenagailua webera konektatu	46	Sarean partekatu	73
Ovi fitxategiak aplikazioari buruz	46	Nokiaren Bideo Zentroa	74
Transferitu edukia beste gailu batera	46	Denbora antolatzea	76
Bluetootha	47	Egutegia	76
Datu-kablea	50	Erlojuaren alarma	77
Sinkronizazioa	51	Erlojuaren ezarpenak	78
Weba	52	Bulegoko aplikazioak	79
Web arakatzailerari buruz	52	PDF reader	79
Sarea arakatu	52	Hiztegia	79
Bilatu zerbitzuari buruz	52	Quickoffice buruz	79
Arakatzaileraren tresna-barra	53	Bihurgailua	79
Orrietan nabigatu	53	Kalkulagailua	80
Web jarioak eta blogak	53	Ohar aktiboak	80
Eduki bilaketa	54	Oharrak	81
Laster markak	54	Zip kudeatzailea	81
Cachea ezabatu	54	Ezarpenak	83
Konexioa amaitu	55	Aplikazioen ezarpenak	83
Konexio seguruak	55	Telefonoaren eta SIM txartelaren segurtasuna	83
Web ezarpenak	55	Osagarri arruntzen ezarpenak	83
Kokapena	57	Jatorrizko ezarpenak berrezartzea	84
GPS zerbitzuari buruz	57	Datuen kudeaketa	85
Lagunduriko GPSa	57	Instalatu edo kendu aplikazioak	85
Mapak	58	Fitxategien kudeatzailea	87
Mugarriak	66	Gailuen kudeatzailea	87
GPS datuak	67	Eduki babestua	89
Musika eta audioa	68	Laguntza bilatu	90
Ovi Music	68	Laguntza	90
Musika erreproduzitzailea	68	Gailuaren softwarea eta aplikazioak eguneratuta izatea	90
FM irratia	70	Telefonoko laguntza	91
Kamera	72	Aholku berdeak	92
Atera argazki bat	72	Aurreztu energia	92
Grabatu bideoak	72		
Irudiak eta bideoak	73		

Birziklatu 92

**Produktu- eta segurtasun-
informazioa 92**

Aurkibidea 99

Segurtasuna

Jarraibide erraz hauek irakurri. Jarraibideok ez betetzea arriskutsua edo legez kanpokoia izan daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, erabiltzailearen gida osoa irakurri.

MODU SEGURUAN PIZTU



Ez piztu telefonoa haririk gabeko telefonoak erabiltzea debekatuta baldin badago edo interferentziarik edo arriskurik sor baliteke.

ERREPIDEAN KONTUZ IBILTzea DA GARRANTZITSUENA



Herri bakoitzeko arau guztiak bete. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena.

INTERFERENTZIAK



Haririk gabeko telefono guztiak interferentziak jasan ditzakete, eta horrek telefonoaren jarduna kaltetu dezake.

DEBEKATUTAKO TOKIETAN ITZALI



Telefonoa erabiltzeko murrizketa guztiak bete. Hegazkinetan eta medikuntzako tresneria, erregai, produktu kimiko edo leherketen arriskua duten guneen inguruan telefonoa itzali.

ZERBITZU HOMOLOGATUA



Langile homologatuek bakarrik instalatu edo konpondu dezakete telefonoa.

OSAGARRIAK ETA BATERIAK



Osagarri eta bateria onartuak soilik erabili behar dira. Ez konektatu produktu bateraezinik.

URAREKIKO ERRESISTENTZIA



Zure telefonoak ez du urarekiko erresistentziarik. Lehor mantentzea ezazu.

Zure telefonoa

Gida honetan deskribatzen den haririk gabeko telefonoa (E)GSM 850, 900, 1800 eta 1900 sareak, eta UMTS 900/2100 HSDPA eta HSUPA sareak erabiltzeko homologatuta dago. Sareei buruzko informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Telefonoak konexio-metodo ugari onartzen ditu eta, ordenagailuak bezala, birusen eta bestelako eduki kaltegarrien eraginpean egon daiteke. Mezu, konektibitate eskaera, bilaketa eta deskargekin kontu berezia izan. Instalatu eta erabili soilik segurtasun eta babes egokia eskaintzen duten iturri fidagarrietako zerbitzu eta softwareak, hala nola, Symbian Signed ziurtagiria duten aplikazioak edo Java Verified™ azterketa gaingitu dutenak. Zure telefonoan eta hari konektatutako edozein ordenagailutan birus kontrako edo bestelako segurtasun softwarea instalatzea gomendatzen da.

Baliteke telefonoak laster-markak eta Interneteko hirugarrenen guneetarako estekak instalatuta izatea; beraz, hirugarrenen guneetan sartzeko aukera izan dezakezu. Hauek ez daude Nokia konpainiarekin afiliatuta eta Nokia konpainiak ez du hauen inolako erantzukizunik bere gain hartzen. Gune hauetan sartzen bazara, kontutan hartu segurtasuna eta edukiak.

Abisua:

Iratzargailua ez beste aukerarik erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa, haririk gabeko gailuen erabilerak interferentziarik edo arriskurik sor badezake.

Telefonoa erabiltzeko garaian, bete lege guztiak eta errespetatu tokian tokiko ohiturak eta besteen pribatutasun eta legezko eskubideak, copyright eskubideak barne. Copyright babesa dela eta, argazkiak, musika eta bestelako edukiak kopiatu, aldatu, igorri edo bidali edo birbidaltzea galarazita egon liteke.

Telefonoan gordetako informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak egitea edo informazio hori idatziz gordetzea gomendatzen da.

Beste edozein gailutara konektatu aurretik, gailu horren erabiltzaile-gida irakurri, segurtasunari buruzko xehetasunen berri jasotzeko. Ez konektatu produktu bateraezinek.

Baliteke gidako irudiak zure telefonokoen berdinak ez izatea.

Jo ezazu erabiltzailearen gidara zure gailuari buruzko informazio garrantzitsu gehiago izateko.

Bulegoko aplikazioak

Bulegoko aplikazioek Microsoft Word, PowerPoint, eta Excel-en (Microsoft Office 2000, XP, eta 2003) ezaugarri orokorrak onartzen dituzte. Ez dira fitxategi formatu guztiak onartzen.

Sareko zerbitzuak


Telefonoa erabiltzeko haririk gabeko zerbitzu-hornitzaile baten harpidedun izatea beharrezkoa da. Zenbait aukera ez daude erabilgarri sare guztietan, zenbait funtzioak zerbitzu-hornitzaileekin akordio bereziak izatea eska dezakete. Sareko zerbitzuak erabiltzean datu-transmisioak gauzatzen dira. Jo zerbitzu-hornitzaileara zure hornitzailearen sareko eta roaming sareetako datu-transmisio tarifak ezagutzeko. Zure zerbitzu-hornitzaileak zer kostu aplikatuko den azal dezake. Zenbait sarek sareko laguntza behar duten funtzioak erabiltzeko moduan eragiten duten murrizketak izan ditzakete, TCP/IP protokoloetan funtzionatzen duten eta hizkuntzaren araberako karaktereak dituzten WAP 2.0 protokoloak (HTTP eta SSL) bezalako teknologia zehatzak esaterako.

Zure zerbitzu-hornitzaileak telefonoko zenbait aukera ezgaitzeko edo ez aktibatzeko eskatu liezazuke. Kasu horretan, aukera horiek ez dira telefonoko menuan agertuko. Telefonoak menuaren izenak, menuaren ordena eta ikonoak bezalako elementuak pertsonaliza daitezke.


Segurtasunez kentzea. Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

Lehen urratsak

Teklak eta atalak



- 1 Entzungailua
- 2 Pantaila
- 3 Ezkerreko aukeraketa tekla
- 4 Hasiera-tekla
- 5 Deitzeko tekla
- 6 Zenbakien teklak
- 7 Bigarren kameraren lentea
- 8 Navi™ tekla (nabigazio-tekla). Argazkiak ateratzeko ere erabil daiteke.
- 9 Eskuineko aukeraketa-tekla
- 10 Ezabatzeko tekla C
- 11 Pizteko/Amaitzeko tekla
- 12 Mikrofonoa



- 13 Kargagailuaren konektorea
- 14 Micro USB konektorea
- 15 Nokia AV konektorea (3,5 mm)
- 16 Kameraren flasha
- 17 Bolumen-teklak. Kamera erabiltzerakoan zooma doitzeko ere erabil daitezke.
- 18 Memoria-txartelaren zirrikuitua
- 19 Kamera nagusiaren lentea
- 20 Atzeko estalkia askatzeko botoia
- 21 Uhalaren zuloa
- 22 Bozgorailua


Oharra: Telefonoaren gainazalak ez du nikelik nikelztaketetan. Telefono honen gainazalak altzairu herdoilgaitza dauka.

SIM txartela eta bateria sartu

- 1 Gailuaren atzeko estalkia kentzeko, erakarri irekitzeko botoia (1) gailuaren beheko alderantz eta erauzi estalkia (2).



- 2 Sartu SIM txartela bere euskarrian. SIM txartela sartu aurretik, bateria kendu egin behar da.




Ziurtatu txartelaren kontaktuak behera begira daudela eta koskadun izkina euskarriaren zirrikitura begira dagoela.

- 3 Bateria sartu.



- 4 Atzeko estalkia berriro jartzeko, lerrokatu kontuz goiko erlaitzak (1) eta, atzeko estalkia ere lerrokatu ondoren, kontuz sakatu beherantz estalkia bere lekuan ahokatu arte (2).



Sartu memoria txartel bat

Memoria txartela telefonoarekin etor daiteke eta sartuta egon daiteke.

- 1 Ireki memoria txartelaren zirrikituko estalkia.



- 2 Sartu txartela zirrikituan kontaktuak gora begira dituela.
3 Bultza txartela leunki bere lekuan geratu arte. Itxi zirrikituko estalkia.

micro
SD

Uhala

Sartu uhala irudian agertu bezala eta estutu.




Baliteke paketean uhalik ez etortzea.

Bateria kargatu

Bateria fabrian kargatzen da partzialki. Telefonoak bateria gutxi duela adieraziz gero, jarraitu pauso hauek:

- 1 Konektatu bateria hormako hartune batera.
- 2 Konektatu kargagailua telefonora.



- 3 Bateria erabat kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua telefonotik eta ondoren hormako hartunetik.

Bateria ez da denbora jakin batez kargatu behar eta kargatzen ari den bitartean ere erabil dezakezu. Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Aholkua: Bateragarriak diren Nokia kargagailu zaharrak badituzu, zure telefonoarekin erabil ditzakezu CA-44 kargagailu-egokitzailea kargagailuari jarritz. Egokitzailea osagarri gehigarri gisa erabilgarri dago.

USB bidez kargatzea

USB bidez karga dezakezu horma entxufe bat eskuragarri ez duzunean. Telefonoa USB kable batekin kargatzen denean, kargatze-denbora luzeagoa da. USBrekin kargatuz gero, eraginkortasuna alda daiteke. Zenbait kasutan, denbora luzea igaro daiteke kargatzen hasi eta telefonoa funtzionatzen hasi arte.

USB bidez kargatzean, telefonoa kargatu bitartean ere datuak transferi ditzakezu USB kablearekin.

- 1 Konektatu USB gailu bateragarri bat zure telefonora USB datu-kable bateragarri bat erabiliz.
Kargatzeko erabiltzen den gailu motaren arabera, baliteke kargatzen hasi aurretik denbora igarotzea.
- 2 Telefonoa piztuta badago, aukeratu telefonoaren pantailako USB moduaren aukeretako bat.

Piztu eta itzali telefonoa



Eduki sakatuta pizteko tekla telefonoa pizteko eta itzaltzeko. Sakatu labur pizteko tekla deia amaitzeko edo aplikazioren bat ixteko.


Telefonoak PIN kodea eskatzen badu, idatzi PIN kodea eta hautatu **Ados**.

Telefonoak blokeo-kodea eskatzen badu, idatzi blokeo-kodea eta hautatu **Ados**. Lehenetsitako blokeo kodea 12345 da.

Ordu-zona, ordu eta data egokiak zehazteko, hautatu zauden herrialdea eta idatzi tokiko ordua eta data.

Teklatuaren blokeoa

Hasierako pantailan teklatura blokeatzeko, sakatu ezkerreko aukeraketa tekla eta * 1,5 segundoz.

Denbora jakin baten ondoren teklatura automatikoki blokea dadin ezartzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txart.** > **Tekl.**

autoblokleo tartea > **Erabiltzail.** zehaztua eta nahi duzun denbora.

Teklatua desblokeatzeko, hautatu **Desblok.** eta sakatu *. Telefonoa edo teklatura blokeatuta egonda ere, telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitu ahal izango da.

Bolumenaren kontrola

Dei batean zehar edo audio fitxategiak entzutean entzungailuaren edo bozgorailuaren bolumena egokitzeko, erabili bolumen-teklak.

Dei batean bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Bozgorail.** edo **Telefonoa**.

Abisua:

Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

Konektatu entzungailu bateragarri bat.

Irteera seinala igortzen duen produkturik ez konektatu, gailua kalte bailezakete. Ez ezazu tentsio iturriarik konektatu Nokia AV Connector-era.


Nokiak telefono honekin erabiltzeko onartu ez duen entzungailu edo bestelako gailu osagarriaren bat Nokia AV Connector-era konektatzerakoan, ahots mailei arretra berezia ipini.



Konektatu USB datu-kablea

Konektatu USB datu-kable bateragarri bat USB konektorerara.



USB konexio-metodo lehenetsia hautatzeko edo uneko metodoa aldatzeko, hautatu  > Ezarpenak eta Konektibitat. > USB > USB konexio-modua eta nahi duzun metodoa.

Metodo lehenetsia automatikoki aktibatu behar den zehazteko, hautatu Konektatzean gald..


Antenen kokapena

Baliteke zure telefonoak antena barruan eta kanpoan izatea. Saihestu antena behar ez denean erabiltzen antena transmititzen edo jasotzen ari den bitartean. Antena ukitzeak komunikazioaren kalitatean eragina du; gainera, telefonoak beharrezkoa baino bateria gehiago gasta lezake eta,

ondorioz, bateriaren iraupena murriz liteke.



Transferitu edukia beste gailu batera

Hautatu  > Ezarpenak > Transferren..

Datuen transferentzia aplikazioarekin edukia transferi dezakezu, adibidez, kontaktuak, bi Nokia telefono bateragarrien artean.

Gailu igorlearen modeloak mugatzen du transferi daitekeen eduki mota. Beste gailuak sinkronizazioa onartzen bada, telefonoaren eta beste gailuaren artean sinkroniza ditzakezu datuak. Beste gailua bateragarria ez bada, zureak jakinaraziko dizu.

Beste gailua SIM txartelik gabe ezin bada piztu, zure SIM txartela sar dezakezu bertan. Zure gailua SIM txartelik gabe pizten denean, konexiorik gabeko profila automatikoki aktibatzen da.

Beste gailuak Bluetooth konexioa onartu behar du.

Edukia transferitu

Beste gailu batetik datuak lehenengo aldiz berreskuratzeko:

- 1 Aktibatu Bluetooth konexioa bi gailuetan.
- 2 Edukia zein gailutik transferitu nahi duzun aukeratu. Zure gailuan kode bat sartzea eskatzen zaizu. Idatzi kode bat (1-16 digitu) eta aukeratu **Ados**. Idatzi kode berbera beste gailuan eta aukeratu **Ados**. Gailuak dagoeneko uztartuta daude.
Modelo batzuek Datuen transferentziarako aplikazioa mezu gisa bidaltzen dute. Transferentzia aplikazioa beste gailuan instalatzeko, ireki mezua eta jarraitu argibideak.
- 3 Zure gailuan aukeratu beste gailutik transferitu nahi duzun edukia.

Edukia beste gailuaren memoriatik gailu honetan dagokion kokapenera transferituko da.

Transferentziaren denbora transferitzen diren datuen arabera izango da. Transferentzia eten eta geroago jarrai dezakezu.

Sinkronizazioa bi norabidetakoa da, eta bi gailuetako datuak berdinak izango dira. Edozein gailutik elementu bat ezabatzen bada, sinkronizatzerakoan beste gailutik ezabatuko da; ezabatutako elementuak ezin dira sinkronizazioarekin berreskuratu.

Azken egindako transferentzia baten erregistroa ikusteko, ikusbide nagusian lasterbide bat aukeratu eta **Aukerak > Erregistroa ikusi**.

Ovi Suite instalatu


Ordenagailurako Nokia Ovi Suite aplikazioaren bidez, erraz eskuratu ahal izango dituzu zure Nokia C5-00 gailuko fitxategiak, bai eta zure beste Nokia gailuetakoak nahiz Ovi-koak ere, dena ikuspegi bakar batetik. Mezuak, kontaktuak, irudiak, musika eta beste gauza asko transferi eta sinkroniza ditzakezu zure ordenagailuaren eta gailuaren artean. Nokia kontu bat sortzeko aukera ere izango duzu, bai eta zure irudiak Ovi-n partekatu, zure gailuaren softwarea eguneratu, mapak deskargatu edota zure edukiak seguru eta erabilgarri gordetzeko aukera ere.

Informazio gehiagorako, zoaz www.ovi.com guneko laguntza-atalera.

Ovi Suite instalatzeari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus gailuarekin zetorren Ovi Suite liburuxka.

Ez baduzu Ovi Suite instalatu nahi, instalazio-fitxategiak memoria-txarteletik ezaba ditzakezu txartelean memoria erabilgarri gehiago izateko.


Ikus Ovi

 Ovi guneak Nokia-k eskainitako zerbitzuak ditu. Ovi-rekin, posta-kontu bat sor dezakezu, argazkiak eta irudiak parteka ditzakezu lagunekin eta senideekin, ibilbideak antola ditzakezu eta mapan kokapenak ikusi, jokoak, aplikazioak, bideoak eta tonuak deskarga ditzakezu telefonoan eta musika eros dezakezu. Zerbitzu erabilgarriak desberdinak izan daitezke eremuaren arabera, eta agian ez dira hizkuntza guztiak onartzen.

Ovi zerbitzuetara sartzeko, joan www.ovi.com helbidera, eta erregistratu zure Nokia-ko kontua.

Zerbitzuak erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus zerbitzuaren laguntza-orriak.

Ovi dendari buruz

 Ovi Dendan, mugikorrerako jokoan, aplikazioak, bideoak, irudiak, gaiak, eta dei-tonuak deskarga ditzakezu telefonora. Elementu batzuk doakoak dira; beste batzuk ordaindu egin behar dira, kreditu-txartelaren edo telefono-fakturaren bidez. Ordainketa-metodoen erabilgarritasuna bizi zaren herrialdearen eta zerbitzu-hornitzailearen arabera da. Ovi Dendak zure gailu mugikorrarekin bateragarria den eta zure zaletasunetik eta kokapenarekin bat datorren edukia eskaintzen du.

Kendu memoria txartela

Garrantzitsua: Ez atera txartela eragiketa batean txartela erabiltzen ari zaren bitartean. Hori eginez gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.


- 1 Sakatu pizteko tekla eta hautatu **Memoria txartela atera > Bai**.
- 2 Ireki memoria txartelaren zirrikituko estalkia.
- 3 Bultza memoria txartela leunki atera dadin.
- 4 Atera txartela eta sakatu **Ados**.
- 5 Itxi zirrikituko estalkia.

Bateria eta SIM txartela kendu


- 1 Gailuaren atzeko estalkia kentzeko, erakarri irekitzeko botoia (1) gailuaren beheko alderantz eta erauzi estalkia (2).



- 2 Bateria kendu.



- 3 Erauzi kontuz SIM txartela SIM txartelaren euskarritik.



Oinarritzko erabilera

Testua idatzi

Testu input tradizionala

Abc testu input tradizionala adierazten du.

ABC eta **abc** maiuskulak eta minuskulak adierazten dituzte. **Abc** esaldiaren modua adierazten du; hau da, lehen hizkia maiuskula izango da eta hurrengo guztiak automatikoki minuskulaz idatziko dira. **123** zenbaki modua adierazten du.

Teklatua erabiliz testua idazteko, sakatu zenbaki tekla bat, 2-9. behin eta berriz nahi duzun karakterea agertu arte. Zenbaki tekla bakoitzak tekla bertan agertzen den baino karaktere gehiago dauka. Nahi duzun hurrengo letra erabiltzen ari zaren tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte eta sartu letra.

Zenbaki bat gehitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta nahi duzun zenbakiaren tekla.

Maiuskula eta minuskularen artean eta modu ezberdinen artean aldatzeko, sakatu # tekla.


Karaktere bat ezabatzeko, sakatu ezabatzeko tekla. Sakatu eta eutsi sakatuta ezabatzeko tekla karaktere bat baino gehiago ezabatzeko.

Ohiko puntuazio markak erabiltzeko, sakatu 1 behin eta berriz nahi duzun puntuazio marka agertu arte.

Karaktere bereziak gehitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta * tekla.

Tarte bat sartzeko, 0 sakatu. Lerro aldaketa bat gehitzeko, sakatu 0 tekla hiru aldiz.

Testu iragarlea sartu

- 1 Testu iragarlea aktibatze edo desaktibatze, sakatu azkar # birritan. Honela telefonoko editore guztietan aktibatzen edo desaktibatzen da testu iragarlea..
 ikurrak testu iragarlea aktibatuta dagoela adierazten du.
- 2 Nahi den hitza idazteko, sakatu **2-9** teklak. Teklak behin bakarrik sakatu letra bakoitzeko.
- 3 Hitza idatzitakoan, zuzena bada, joan eskuinera baieztatze edo sakatu **0** zuriunea gehitzeko.

Hitza zuzena ez bada, sakatu * behin eta berriz tekla konbinazioarekin bat datozen hiztegiko hitzak ikusteko.

Hitzaren ondoren ? karakterea bistaratzeko bada, hitza ez dago hiztegian. Hitz bat hiztegian gehitzeko, hautatu **Letreiatu**, idatzi hitza (gehienez 32 karaktere) ohizko idazketa modua erabiliz eta hautatu **Ados**. Hitz hiztegiara gehitzen da. Hiztegia beteta dagoenean, hitz berriak hitz zaharrena ordeztzen du.

Idatzi hitz konposatu baten lehen zatia, baieztatu eta joan eskuinera. Idatzi hitz konposatuaren bigarren zatia. Hitz konposatua osatzeko, sakatu 0 zuriune bat gehitzeko.

Aldatu idazketa-hizkuntza


Testu bat idazten ari zarenean, idazketa-hizkuntza alda dezakezu. Adibidez, karaktere zehatz batera iristeko 6 behin baino gehiagotan sakatu behar baduzu, idazketa-hizkuntza aldatuta karaktereak beste hurrenkera batean agertuko dira.

Testua latindarra ez den alfabeto bat erabiliz idazten ari bazara eta karaktere latindarrak erabili nahi badituzu, esaterako, helbide elektronikoak idazteko, idazketa-hizkuntza aldatu behar duzu. Idazketa-hizkuntza aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Sarrera-aukerak** > **Idazketa hizkuntza** eta hautatu karaktere latindarrak erabiltzen dituen idazketa-hizkuntza bat.

Kopiatu eta ezabatu testua

- 1 Hizkiak eta hitzak hautatzeko, eduki sakatuta # eta bitartean joan eskuinera edo ezkerrera. Testu-lerroak hautatzeko, eduki sakatuta # eta bitartean joan gora edo behera.
- 2 Testua kopiatzeko, eduki sakatuta # eta bitartean hautatu **Kopiatu**. Hautatutako testua ezabatzeko, sakatu ezabatzeko tekla C.
- 3 Testua itsasteko, eduki sakatuta # eta bitartean hautatu **Itsatsi**.

Menua

Sakatu .

Menuan telefonoko funtzioetara sar zaitezke.

Aplikazio edo karpeta bat irekitzeko, hautatu elementua.

Menu funtzioen ordena aldatuz gero, agian ez da erabiltzailearen gida honetan deskribatutako ordenarekin bat etorriko.

Aplikazioetako elementuak markatzeko eta horien marka kentzeko, sakatu #.

Menuaren ikuspegia aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Aldatu menuaren ikusp.**

Aplikazio edo karpeta bat ixteko, hautatu **Aukerak** > **Irten**.

Irekitako aplikazio batetik bestera joateko, eduki sakatuta hasiera-tekla eta hautatu aplikazioa.

Aukera bat erabiltzen ari zaren bitartean beste aplikazio bat martxan izateak batera kontsumo handiago suposatzen du, eta beraz, bateriaren iraupena murriztu egiten da.

Pantailako adierazleak




























3G Telefonoa 3G edo GSM sare batean erabiltzen ari da (sareko zerbitzua). Ikonoaren ondoan dagoen barrak zauden lekuan sarearen seinale indarra jakinarazten du. Barra zenbat eta handiago izan, orduan eta indartsuagoa izango da seinalea.


3.5G 3G sareko high-speed downlink packet access (HSDPA) / high-speed uplink packet access (HSUPA) (sareko zerbitzua) aktibatutako dago.




Lineaz kanpoko profila aktibatuta duzu eta gailua ez dago sare mugikorrera konektatuta.

-  Bateriaren karga maila. Barra zenbat eta altuagoa izan, hainbat eta altuagoa izango da bateria-maila.
-  Mezuak ataleko Sarrera ontzian irakurri gabeko mezuak dituzu. Adierazleak kliskatzen badu, zure Sarrera ontzia beteta dagoela esan nahi du eta mezu zaharrak Sarrera ontzitik kendu beharko dituzu mezu berriak jaso ahal izateko.
-  Mezu elektroniko bat jaso duzu urruneko postontzian.
-  Mezuak ataleko Irteera ontzian bidali gabeko mezuak daude.
-  Galdutako deiak dituzu.
-  Telefonoaren teklak blokeatuta daude.
-  Alarma bat aktibo dago.
-  Modu isila aktibatu duzu eta telefonoak ez du soinurik egingo dei edo mezu bat jasotzerakoan.
-  Bluetooth konexioa aktibatuta dago.
-  Bluetooth konexio bat ezarri da. Adierazleak dardara egiten duenean, telefonoa beste batekin konektatzen saiatzen ari dela esan nahi du.
-  GPRS datu-pakete konexio bat eskuragarri dago (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.
-  EGPRS datu-pakete konexio bat eskuragarri dago (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.
-  3G datu-paketeen konexio bat erabilgarri dago (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.
-  HSDPA/HSUPA onartzen da eta erabilgarri dago (sareko zerbitzua). Ikonoa desberdina izan daiteke herrialdearen arabera.  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.
-  Telefonoa ordenagailu batera konektatuta dago USB datu-kable baten bidez.
- 2** Bigarren telefonoko linea erabiltzen ari da (sareko zerbitzua).
-  Dei guztiak beste zenbaki batera desbideratzen dira. Telefonoan bi linea badituzu, zenbaki batek aktibo dagoena erakutsiko dizu.

 Entzungailua edo egokigailua telefonora konektatuta dago.

 Autorako kit eskulibre bat telefonora konektatuta dago.

 Telefonoa sinkronizatzen ari da.

Adierazle gehiago ere bistara daitezke.



Lasterbideak

Hona hemen eskuragarri dauden teklatu lasterbide batzuk. Lasterbideek aplikazioen erabilera eraginkorragoa egin dezakete.

Lasterbide orokorrak

Pizteko tekla	Eduki sakatuta telefonoa pizteko eta itzaltzeko. Behin sakatu profilen artean aldatzeko.
*	Eduki sakatuta Bluetooth konektagarritasuna aktibatzeko edo desaktibatzeko.
#	Eduki sakatuta isileko profila aktibatzeko edo desaktibatzeko.
Deitzeke tekla	Sakatu behin markatutako azken zenbakien zerranda ikusteko.
 Hasiera-tekla	Sakatu aplikazio ireki batetik hasierako pantailara joateko. Eduki sakatuta aplikazio irekien artean aldatzeko.

Hasierako pantaila

Ezkerreko aukeraketa-tekla + *	Teklatua blokeatu eta desblokeatu.
Deitzeke tekla	Ireki dei erregistroa.
 Hasiera-tekla	Ireki menu nagusia.
0	Eduki sakatuta web-arakatzailean zure hasierako orria irekitzeko.
1	Eduki sakatuta ahots-postontzira deitzeke.
Zenbakien teklak (2-9)	Markaketa bizkorra erabiltzeko telefono zenbaki bati deitu. Markaketa bizkorra aktibatzeko, hautatu  > Ezarpenak > Ezarpenak eta Telefonoa > Deiak > Markaketa bizkorra .

Deskonektatuta profila

Lineaz kanpoko profila azkar aktibatzeko, sakatu labur pizteko tekla eta hautatu **Lineaz kanpo**.

Beste profil batera aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu beste profil bat.

Konexio gabeko modua aktibatuta dagoenean, irrati-frekuentzia bidezko konexio guztiak murrizten dira. Dena den, telefonoa erabil dezakezu SIM txartelik gabe eta irratia edo musika entzun. Itzali telefonoa mugikorren erabilera debekatuta dagoen inguruetan.

Garrantzitsua: Lineaz kanpoko profileen ezin da deirik egin edo jaso, ezta haririk gabeko sare estaldura eskatzen duten beste funtzio batzuk erabili ere. Hala ere, zure telefonoan ezarritako larrialdi zenbaki ofizialera dei liteke ere. Deiak egin ahal izateko, lehenik eta behin profilak aldatu eta, gero, telefonoaren funtzionalitatea aktibatu behar da. Gailua blokeatua izan bada, sar ezazu blokeatzeko kodea.

Sarbide kodeak

Hautatu  > Ezarpenak > Ezarpenak.

Telefonoaren sarbide-kodea eta segurtasun ezarpenak zehazteko, hautatu **Orokorra > Segurtasuna > Telefonoa eta SIM txart.** eta aukera hauetariko bat:

- PIN (UPIN) kodea, SIM (USIM) txartelarekin eskuratzen dena, txartela baimenik gabe erabiltzea ekiditeko da.
- PIN2 (UPIN2) kodea, SIM (USIM) txartel batzuekin eskuratzen dena, zerbitzu jakin batzuetara sartzeko erabiltzen da.
- PUK (UPUK) eta PUK2 (UPUK2) kodeak SIM (USIM) txartelarekin eskura daitezke. PIN kodea hiru aldiz jarraian oker idatziz gero, PUK kodea eskatzen da. PUK kodea SIM txartelarekin jaso ez baduzu, jo zerbitzu-hornitzaileara.
- Segurtasun-kodeak telefonoa baimenik gabe erabiltzea ekiditen lagunduko ditu. Kodea sor eta alda dezakezu eta telefonoa kodea eskatzeko ezar dezakezu. Kode berria ezkutuan, leku seguru batetan eta telefonotik urrun gorde. Kodea ahazten baduzu eta telefonoa

blokeatuta badago, baliteke telefonoak baimendutako zerbitzuetara eraman behar izatea. Baliteke kostu gehigarriak aplikatzea eta gailuko datu pertsonal guztiak ezabatzea. Informazio gehiago jasatzeko, joan zaitez Nokia Care puntura edo zure zerbitzu-hornitzailearengana.

- Debeku pasahitza beharrezkoa da telefonoan deien debekuak erabiltzeko (sareko zerbitzua).


Konfigurazio ezarpenak

Multimedia mezularitza, posta elektronikoa, sinkronizazioa, zuzeneko erreproduzioa eta arakatzailerak erabili aurretik ezarpen egokiak zehaztu behar dituzu telefonoan. Telefonoak automatikoki konfiguratu ditzake arakatzaileri, multimedia mezularitzari, sarguneei eta zuzeneko erreproduzioari dagozkien ezarpenak SIM txartelean oinarrituta Bestela, Ezarpenen morroia erabil dezakezu ezarpenak konfiguratzeko. Ezarpenak telefonoan gorde dezakezun konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu. Eskuragarritasunari buruzko informazio gehiagorako, jo zerbitzu hornitzaileara edo hurbilen duzun Nokia banatzaileara.

Konfigurazio-mezu bat jasotakoan ezarpenak automatikoki gordetzen eta aktibatzen ez badira, **1 mezu berri** bistaraten da. Ezarpenak gordetzeko, hautatu **Erakutsi > Aukerak > Gorde**. Agian zerbitzu-hornitzaileak emandako PIN kodea idatzi beharko duzu.

Ezarpen laguntzailea

Ezarpen laguntzailearen bidez, posta elektronikoa eta konexioaren ezarpenak zehatz ditzakezu. Ezarpen laguntzailearen elementuen eskuragarritasuna gailuaren ezaugarrien, SIM txartelaren, zerbitzu-hornitzailearen eta Ezarpen laguntzailearen datu basearen datuen arabera da.

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpen lag.**

Konfigurazio laguntzailea erabiltzerakoan emaitza hoberenak lortzeko, ez atera SIM txartela telefonotik. SIM txartela barruan ez badago, pantailan agertzen diren argibideak jarraitu.

Hautatu hurrengo artetik:


Operadorea — Operadorearen ezarpen zehatzak zehazteko, esaterako, MMS, Interneta, WAPa eta zuzeneko transmisioaren ezarpenak.

Posta el. konfig. — Konfiguratu POP, IMAP edo Mail for Exchange kontu bat.

Bideo partek. — Bideo partekatzeko ezarpenak konfiguratu.

Editatzeko eskuragarri dauden ezarpenak alda daitezke.

Urruneko blokeoa

Telefonoa beste gailu batetik blokea dezakezu testu-mezu bidez. Telefonoa urrunetik blokeatu ahal izateko eta blokeo-mezua zehazteko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Orokorra** > **Segurtasuna** eta **Telefonoa eta SIM txart.** > **Urruneko telef. blok.** Mezua idatzitakoan, hautatu **Ados**. Mezuak gehienez 20 karaktere izan ditzake.

Telefonoa blokeatzeko, bidali blokeo-mezua testu-mezu gisa zure telefono zenbakira. Telefonoa beranduago desblokeatzeko, hautatu **Desblok.** eta idatzi blokeo-kodea.

Pertsonalizatu telefonoa

Hasierako pantaila

Telefonoa piztutakoan eta sarera erregistratutakoan telefonoa hasierako pantailan eta erabiltzeko prest dago.


Erabilitako azken zenbakien zerrenda irekitzeko, sakatu deitzeko tekla.

Ahots-erantzungailura deitzeko, eduki sakatuta **1**.

Ahots-komandoak edo ahotsezko markatzea erabiltzeko, eduki sakatuta eskuineko aukeraketa tekla.

Profila aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu profil bat.

Sarera konektatzeko, eduki sakatuta **0**.

Hasierako pantaila aldatzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Egonean modua** eta hurrengoetatik: **Egoneko gaia** — Hautatu hasierako pantailaren gaia.

Lasterbideak — Gehitu aplikazioen edo gertaeren lasterbideak edo esleitu lasterbideak nabigazio teklari hautatutako hasierako pantailaren gaiaren arabera.

Kontaktu-barra

Hasierako pantailan kontaktu bat gehitzeko, hautatu Gehitu kontaktoa ikonoa eta zerrendako kontaktu bat.

Kontaktu bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Kontaktu berria**, idatzi xehetasunak eta hautatu **Eginda**.

Kontaktuaren datuetan argazki bat ere gehi dezakezu.

Kontaktu bati jariora gehitzeko, hautatu Gehitu jariora ikonoa, zerrendako jario bat eta **Eginda**.

Jario bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Jario berria**.

Jario bat eguneratzeko, hautatu **Freskatu**.

Hasierako pantailako kontaktu bat kentzeko, kontaktuaren datuen ikuspegian, hautatu Ezarpenak ikonoa eta **Ezabatu**.

Gaiak

Pantailaren gaia aldatu

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Gaiak**.

Aukeratu hurrengoetatik:

Orokorra — Aldatu aplikazioetan erabiltzen den gaia.

Menu-ikuspe. — Aldatu menu nagusiaren gaia.

Egon. — Aldatu hasiera-pantailaren gaia.

Horma-papera — Aldatu hasiera-pantailako atzealdeko irudia.

Bater. aurrezl. — Aukeratu animazio bat pantaila-babes gisa.

Dei-irudia — Deiak egin bitartean ateratzen den irudia aldatzea.

Gaiaren efektuak aktibatzeke edo desaktibatzeke, aukeratu **Orokorra** > **Aukerak** > **Gaiaren efektuak**.

Gai bat deskargatzea

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Gaiak**.

Gai bat deskargatzeko, hautatu **Orokorra** > **Deskargatu gaiak** > **Aukerak** > **Joan hona:** > **Web-orri berria**. Idatzi nahi duzun helbide elektronikoa, bertatik gaia deskargatzeko. Behin gaia deskargatuta, hura aurreikusi edo aktibatu dezakezu.

Gai bat aurreikusteko, hautatu **Aukerak** > **Aurrebista**.

Gai bat aktibatzeke, hautatu **Aukerak** > **Ezarri**.

Hizketa gaia

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Gaiak** eta **Egonean** > **Gai hizlaria**.

Gai hizlaria aktibatuta dagoenean, aktibatutako egonean moduan gai hizlariak onartutako funtzioen zerrenda bat agertuko da. Funtzioetan zehar nabigatzean, gailuak agertzen diren funtzioak ozenki irakurriko ditu. Hautatu nahi duzun funtzioa.

Kontaktu-zerrendako sarrerak entzuteko, hautatu **Deiaren ezaugarri**. > **Kontaktuak**.

Galdutako eta jasotako deiak eta markatutako zenbakien informazioa entzuteko, hautatu **Deiaren ezaugarri**. > **Azkeneko deiak**.

Telefono zenbakia markatuz dei bat egiteko, hautatu **Deiaren ezaugarri**. > **Markagailua** eta nahi dituzun zenbakiak. Telefono zenbaki bat markatzeko, joan digituetara eta hautatu banan-banan.

Ahots-postontzira deitzeko, aukeratu **Deiaren ezaugarri**. > **Ahots-postontz.**

Dei bat egiteko ahots-komandoak erabiltzeko, aukeratu **Ahots-komandoak**.

Jasotako mezuak ozenki irakurri ditzan, aukeratu **Mezu-irakurgailua**.

Uneko ordua entzuteko, hautatu **Erlojua**. Uneko data entzuteko, desplazatu behera.

Ahots laguntza erabiltzen ari zaren bitartean egutegi alarma iraingitzen bada, aplikazioak egutegiaren edukia ozenki irakurtzen du.

Aukera eskuragarriak entzuteko, hautatu **Aukerak**.

Profilak


Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Profilak**.

Tonuak doitu eta pertsonalizatu egin daitezke, deientzako, abisu tonuentzeko, eta gailuaren tonuak gertaera edo dei egile talde desberdinetarako. Profil aktiboa pantailaren goialdean agertzen da egonean moduan. Izan ere, profil aktiboa Orokorra bada, gaurko data bakarrik agertuko da.

Profil berri bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berria sortu** eta ezarpenak zehaztu.

Profila pertsonalizatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak** > **Pertsonalizatu**.

Profila aldatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak > Aktibatu**. Lineaz kanpoko profilak gailua piztea, mezuak jaso edo bidali edo Bluetooth konektibitatea, GPSa edo FM irratia ustekabez erabiltzea saihesten du; honek profila aukeratzan denean aktibo dauden internet konexioak amaitzen ditu. Lineaz kanpoko profilak ez du geroago Bluetooth konexio bat ezartzea edo GPS edo FM irratia erabiltzea saihesten, horregatik erabili daitezkeen segurtasun neurriak bete hauetako ezaugarriren bat erabiltzerakoan.

Hurrengo 24 orduetako epe bat arte, profil bat aktibo izateko, profilerara joan, aukeratu **Aukerak > Epea ezarrita** eta ordua zehaztu. Epea igarotakoan profila aurreko epe gabeko profilerara itzultzen da. Profilak epe bat duenean,  agertuko da egonean moduan. Lineaz kanpo profilari ezin zaio eperik ezarri.

Sortu duzun profil bat ezabatzeko, aukeratu **Aukerak > Ezabatu profila**. Aurretik zehaztutako profilak ezin dira ezabatu.

Garrantzitsua: Lineaz kanpoko profilean ezin da deirik egin edo jaso, ezta haririk gabeko sare estaldura eskatzen duten beste funtzio batzuk erabili ere. Hala ere, zure telefonoan ezarritako larrialdi zenbaki ofizialera dei liteke ere. Deiak egin ahal izateko, lehenik eta behin profilak aldatu eta, gero, telefonoaren funtzionalitatea aktibatu behar da. Gailua blokeatua izan bada, sar ezazu blokeatzeko kodea.

Telefonoa

Deiak egin

Dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia, eskualde kodea barne, eta sakatu dei tekla.

Aholkua: nazioarteko deietan, gehitu nazioarteko aurrezenbakia ordezkatzen duen + ikurra, herrialdearen aurrezenbakia, lurraldearen aurrezenbakia (beharrezkoa izanez gero, hasierako 0 kendu) eta idatzi telefono zenbakia.

Deia amaitzeko edo dei saiakera ezeztatzeko, sakatu bukatzeko tekla.

Gordetako kontaktuak erabiliz dei bat egiteko, ireki kontaktuak. Idatzi izenaren lehenengo hizkiak, zoaz izenera eta sakatu deitzeko tekla.

Erregistroa erabiliz dei bat egiteko, sakatu deitzeko tekla deitzen saiatu zaren edo deitu dituzun azken 20 zenbakiak ikusteko. Zoaz nahi duzun zenbakira edo izenera eta sakatu deitzeko tekla.

Dei aktibo baten bolumena egokitzeko, erabili bolumen teklak.

Ahots-dei batetik bideo-dei batera aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aldatu bideo-deira**. Telefonoak ahots-deia bukatzen du eta hartzaileari bideo-dei bat egiten dio.

Deiak erantzun


Dei bat erantzuteko, sakatu deitzeko tekla.

Dei bati uko egiteko, sakatu bukatzeko tekla.

Deia erantzun ordez tonua isilarazi nahi baduzu, aukeratu **Isilarazi**.

Dei aktibo bat daukazunean eta deia zain ezaugarria (sareko zerbitzua) aktibatuta dagoenean, dei berri bat erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Lehen deia zain uzten da. Dei aktiboa amaitzeko, Bukatu tekla sakatu.

Bideo-dei bat egin

Bideo-dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia edo aukeratu hartzailea kontaktu zerrendan eta **Aukerak** > **Deitu** > **Bideo-deia**. Bideo-deia hasten denean, telefonoaren kamera aktibatzen da. Kamera jadanik erabiltzen ari bazara, bideo bidalketa desgaitzen da. Deiaren hartzaileak bideoa bidali nahi ez badu, irudi geldo bat agertuko da. Zure telefonoak bideoaren ordez bidaliko duen irudia ezartzeko, aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak** > **Irudia bideo-deian**.

Audio, bideo edo bideo eta audio bidalketa desgaitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezgaitu** > **Audioa bidaltzea**, **Bideoa bidaltzea** edo **Aud. eta bid. bidaltzea**.

Bideo-dei aktibo baten bolumena egokitzeko, erabili bolumen tekla.

Bozgorailua erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktibatu bozgorailua**.
Bozgorailua isilarazteko eta aurikularrak erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktibatu telefonoa**.

Irudien lekua aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Trukatu irudiak**.

Pantailako irudia gerturatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zooma** edo mugitu gora edo behera.


Bideo-deia amaitzeko eta ahots-dei berri bat hartzaile berari egiteko, aukeratu **Aukerak** > **Ahots deira aldatu**.

Bideo dei bat erantzun edo ukatu

Bideo dei bat iristen denean,  agertzen da.

Bideo deia erantzuteko, deitzeko tekla sakatu. **Bideo irudia dei egileari bidaltzea onartu?** agertuko da.

Zuzeneko bideoa bidaltzen hasteko, **Bai** aukeratu.

Bideo deia aktibatzen ez duzun bitartean, deitzailearen soinua besterik ez duzu entzungo. Bideoaren ordez pantaila gris bat agertzen da. Pantaila grisa ikusi ordez telefonoaren kamerarekin ateratako argazki bat ikusteko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak** > **Irudia bideo-deian**.

Bideo deia amaitzeko, **Bukatu tekla** sakatu.

Bideoak partekatzeko eskakizunak

Bideoak partekatzeko, bi aldeek 3G konexioa izan behar dute. Zerbitzuaren, 3G sarearen erabilgarritasunaren eta zerbitzua erabiltzeagatik aplikatutako tarifen inguruko informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Bideoa partekatzea erabiltzeko egin beharreko pausoak:

- Ziurtatu pertsonarteko ezarpen egokiak dituzula eta bideoa partekatzeko gonbita onartu duzula edo dei bat aktibo duzula.
- Ziurtatu 3G konexio aktibo bat daukazula eta 3G sarearen estalduran zaudela. 3G sarea bideoa partekatu bitartean uzten baduzu, partekatzea amaitu egingo da baina ahots-deiak aurrera jarraituko du.
- Ziurtatu igorlea eta hartzailea 3G sarean erregistratuta daudela. Norbait partekatze-saio batera gonbidatzen baduzu eta hartzailearen telefonoa 3G sarearen estalduran ez badago, bideo-partekatzea instalatua ez badauka edo pertsonarteko konexioa ezarria ez badu, hartzaileak ez du gonbidapenik jasoko. Hartzaileak gonbidapena ezin duela onartu adierazten duen errore mezu bat jasoko duzu.

Zuzeneko bideoak partekatu

Ahots-dei batean zehar, aukeratu
Aukerak > Partekatu bideoa.

- 1 Bideoa deian zehar partekatzeko, aukeratu **Zuzeneko bideoa.**

Bideoklip bat partekatzeko,
Bideoklipa eta ikusi nahi duzun
bideoklipa aukeratu.

Baliteke bideoa formatu egoki
batetara aldatu behar izatea
partekatu ahala izateko. Gailuak
bideoklipa bihurtu behar dela esaten
badu, aukeratu **Ados**. Bihurketarako
gailuak bideo editore bat izan behar
du.

- 2 Hartzaileak SIP helbide edo telefono
zenbaki bat baino gehiago baditu
Kontaktuak zerrendan gordeta,
lurralde kode eta guzti, aukeratu nahi
duzun helbidea edo zenbakia. SIP
helbidea edo telefono zenbakia
eskuragarri ez badaude, idatzi
hartailearen helbidea edo telefono
zenbakia lurralde kode eta guzti eta
aukeratu **Ados** gonbitea bidaltzeko.
Zure gailuak gonbidapena SIP
helbidera bidaltzen du.

Hartzaileak gonbitea onartzean
automatikoki hasten da partekatzen.

Partekatzean zeharreko aukerak

Bideoa handitu (igorleak
soilik).



Bideoaren distira doitu
(igorleak soilik).



Mikrofonoa aktibatu edo
desaktibatu.



Bozgorailua piztu edo itzali.



Bideo partekatzea eten eta
berrekin.



Pantaila osora aldatu
(hartzaileak soilik).

- 3 Partekatzea amaitzeko, **Gelditu**
aukeratu. Deia amaitzeko, amaitu
tekla sakatu. Deia amaitutakoan
partekatzea ere amaitu egiten da.

Partekatutako zuzeneko bideoa
gordetzeko, aukeratu **Bai** galdetutakoan.
Telefonoak gordetako bideoaren
memoria-kokapena jakinarazten ditu.
Nahiago duzun memoria-kokapena
zehazteko, aukeratu > **Ezarpenak > Ezarpenak** eta **Konexioa > Bideo partek.** > **Gordetz. mem. hobetsia.**

Bideo bat partekatzen ari zarela beste
aplikazio batera joanez gero, partekatzea
eten egiten da. Partekatzen jarraitzeko,
egonean moduan, aukeratu **Aukerak > Jarraitu.**

Telekonferentzia bat hasi

- 1 Konferentzia dei bat egiteko, sartu
parte-hartzaile baten telefono
zenbakia eta sakatu deitze tekla.
- 2 Parte-hartzaileak erantzutean,
hautatu **Aukerak > Dei berria.**
- 3 Parte-hartzaile guztientzako dei bat
egitean, hautatu **Aukerak > Telekonferentzia** deiak
konferentzia-dei batean batzeko.

Telefonoaren mikrofonoa deian zehar
mututzeko, hautatu **Aukerak > Mututu.**

Parte-hartzaile bat konferentzia-deitik ateratzeko, hautatu **Aukerak** > **Telekonferentzia** > **Baztertu parte-hartzaile**. eta parte-hartzailea.

Konferentzia-deiaren parte-hartzaile batekin pribatuan hitz egiteko, hautatu **Aukerak** > **Telekonferentzia** > **Pribatua** eta parte-hartzailea.

Markaketa bizkorra

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak** > **Markaketa bizkorra**.

Markaketa bizkorrekin, zenbaki tekla bat sakatuta edukiz hasiera pantailan zaudenean dei bat egin dezakezu.

Markaketa bizkorra aktibatzeo, aukeratu **Aktibatu**.

Zenbaki tekla bat telefono zenbaki bati esleitzeko, aukeratu  > **Ezarpenak** > **Marka. bizk.**

Zoaz pantailako zenbaki teklara (2 - 9) eta aukeratu **Aukerak** > **Esleitu**.

Aukeratu kontaktuetatik nahi duzun zenbakia.

Zenbaki tekla batera esleitutako telefono zenbakia ezabatzeko, zoaz markaketa bizkorreko teklara eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Zenbaki tekla batera esleitutako telefono zenbakia aldatzeko, zoaz markaketa

bizkorreko teklara eta aukeratu **Aukerak** > **Aldatu**.

Ahots bidezko markatzea

Deitu kontaktuei haien izena esanda.


Oharra: Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.

- 1 Egonean modu aktiboan eduki sakatuta eskuineko aukeraketa tekla. Tonu labur bat entzuten da eta **Hitz egin orain** bistaratzen da.
- 2 Esan deitu nahi diozun kontaktuaren izena. Ahots-azterketak ulertzen bazaitu, bat datozen izenen zerrenda bistaratzen da. Telefonoak zerrendako lehen izena erreproduzitzen du. Komando zuzena ez bada, joan zerrendako beste sarrera batera.

Grabagailua



Grabagailua erabil dezakezu ahots-oharrak eta telefonoko hizketaldiak grabatzeko. Soinu-klipak zure lagunei bidal diezazkiekezu.

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Grabagailua**.

Grabatu soinu-klip bat

Hautatu .

Gelditu soinu-kliparen grabaketa

Hautatu .


Entzun soinu-klipa

Hautatu .

Bidali soinu-klip bat mezu gisa

Hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

Grabatu telefonoko hizketaldi bat


Ireki grabagailua ahots dei batean zehar eta hautatu . Grabatzen ari den bitartean, bi aldeek tonu bat entzungo dute, noizean behin.

Hautatu grabaketaren kalitatea edo soinu-klipen biltegia

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Grabagailua ezin da erabili datuen dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta dauden bitartean.

Deien eta datuen erregistroak

Aukeratu  > **Erregistroa**.

Duela gutxi galdutako, jasotako eta egindako deiak ikusteko, aukeratu **Azken deiak**.

Aholkua: Egonean moduan zaudela markatutako zenbakiak ikusteko, sakatu deitzeko tekla.

Jasotako eta egindako deien iraupena ikusteko, aukeratu **Deien iraupena**.

Datu-pakete konexioetan transferitutako datu kopurua ikusteko, aukeratu **Pakete-datuak**.

Deien debekuak

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Dei-murrizketa**.

Gailua erabiliz egin edo jaso daitezkeen deiak blokeatu ditzakezu (sareko zerbitzua). Ezarpenak aldatzeko, zerbitzu-hornitzaileak emandako blokeo-pasahitza behar duzu. Deiak blokeatzeak dei mota guztien gainean du eragina.

Hautatu ahots-deiak debekatzeko ezarpen hauetariko bat:

Irteerako deiak — Debekatu telefonoarekin deiak egitea.

Sarrerako deiak — Deiak saihestu.

Nazioarteko deiak — Debekatu atzerrira deiak egitea.

Sarrerako deiak roaming egitean

— Debekatu deiak jasotzea atzerrian zaudenean.

Nazioartekoak, norbere herrialdera izan ezik — Debekatu atzerriko deiak baina baimendu zure herrialdekoak.

Deien debekuen egoera ikusteko, hautatu debekuen aukera eta **Aukerak** > **Egoera egiaztatuz**.

Deien debeku guztiak desaktibatuzko, hautatu debeku-aukera bat eta **Aukerak** > **Murrizketa guzt. desak..**

Ahots- eta fax-deiak debekatzeko erabiltzen den pasahitza aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu murrizk.-pasah..** Idatzi uneko kodea eta, ondoren, idatzi kode berria birritan. Debekuen pasahitzak lau digitu izan behar ditu.

Xehetasunetarako, jarri zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Markatze finkoa

Markatze finkoaren bidez, zure telefonotik zenbait telefono muga ditzakezu. Baliteke SIM txartel guztiak markaketa finkoko zerbitzua ez jasatea. Informazio gehiagorako jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Hautatu  > **Kontaktuak** eta **Aukerak** > **SIM zenbakiak** > **Markak finkoko kont..**

Deiak murrizten dituzten segurtasun-aukerak gaituta egonda ere (deiak blokeatzea, erabiltzaile talde itxia eta markatze finkoa, adibidez), telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitzea dago. Deiak blokeatzeko eta deiak desbideratzeko moduak ezin dira aldi berean gaituta eduki.

Markatze finkoa aktibatu edo desaktibatzeko eta kontaktuak editatzeko PIN2 kodea beharko duzu. Zure PIN2 kodea lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu hornitzailearekin.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Aktibatu mark. finkoa edo **Desakt. markatze finkoa** — Aktibatu edo desaktibatu markatze finkoa.

SIM kontaktu berria — Idatzi Deiak baimenduta dituen kontaktuaren izena eta telefono zenbakia.

Kontaktuetatik hartu — Kopiatu kontaktu bat kontaktuen zerrendatik markatze finkoko zerrendara.

Markatze finkoa aktibatuta duzula, SIM kontaktuei mezuak bidaltzeko, markatze finkoko zerrendan mezularitza zentroaren zenbakia gehitu behar duzu.

Deiak desbideratzea

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonia** > **Dei-desbiderak..**

Desbideratu sartzen diren deiak zure ahots postontzira edo beste telefono zenbaki batera. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Hautatu desbideratu nahi duzun dei mota eta hurrengoetatik:

Ahots dei guztiak edo **Fax dei guztiak** — Desbideratu sartzen diren ahots edo fax dei guztiak. Ezin dituzu deiak erantzun, deiak beste zenbaki bati desbideratu bakarrik.

Okupatua badago — Desbideratu sartzen diren deiak dei aktibo bat duzunean.

Erantzun ezean — Desbideratu sartzen diren deiak gailuak denbora jakin batean zehar soinua egin ondoren. Hautatu deia desbideratu baino lehen gailuak soinu egin behar duen denbora tartea.

Estalduratik at badago — Desbideratu deiak gailua itzalita dagoenean edo sare estaldurarik ez duenean.

Eskuragarri ez bada — Desbideratu deiak dei aktibo bat duzunean, ez erantzun, edota gailua itzalita dagoenean edo sare estaldurarik ez duenean.

Deia zure ahots postontzira desbideratzeko, hautatu dei mota bat, desbideratze aukera bat, eta **Aukerak** > **Aktibatu** > **Ahots-postontzira**.

Deia beste telefono zenbaki batera desbideratzeko, hautatu dei mota bat, desbideratze aukera bat, eta **Aukerak** > **Aktibatu** > **Beste zenbaki batera**. Sartu zenbakia edo hautatu **Aurkitu** Kontaktua atalean gordetako zenbaki bat berreskuratzeko.

Uneko desbideratze egoera ikusteko, joan desbideratze aukerara eta hautatu **Aukerak** > **Egoera egiaztatu**.

Deiak desbideratzeari uzteko, joan desbideratze aukerara eta hautatu **Aukerak** > **Desaktibatu**.

Deiaren ezarpenak

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak**.

Aukeratu hurrengo artetik:

Nire zenbakia bidali — Erakutsi zure telefono zenbakia deitzen ari zaren pertsonari.

Deia zain — Aukeratu telefonoa sarrerako deiak daudenean jakinaraztea nahi duzun ala ez dei batean zaudenean (sare zerbitzua).

Ukatu mezudun deiak — Ukatu dei bat eta bidali testu-mezua deitzaileari.

Mezuaren testua — Idatzi deiak ukatzen dituzunean bidaliko den testu-mezu estandarra.

Neure bideoa dei jas.etan — Baimendu edo ukatu bideoen bidalketa bideo-dei batean zehar zure telefonotik.

Irudia bideo-deian — Erakutsi irudi geldoa bideoa bidaltzen ari ez bada bideo-deian zehar.

Auto. berriro markatu — Ezarri zure telefonoa gehienez hamar bider saia dadin deia konektatzen dei batek arrakastarik izan ezean. Birmarkatze automatikoa geratzeko, Bukatu tekla sakatu.

Deiaren iraupena ikusi — Erakutsi deiaren iraupena deian zehar.

Laburpena deiaren ond. — Erakutsi deiaren iraupena deia amaitutakoan.

Markaketa bizkorra — Aktibatu markaketa bizkorra.

Edozein teklak erantzun — Aktibatu edozein teklarekin erantzuteko aukera.

Erabiltzen ari den linea — Ezarpen hau (sare zerbitzua) SIM txartelak bi zenbaki harpidetu, hau da, bi telefono linea onartzen baditu soilik ikus daiteke. Aukeratu zer telefono linea erabili nahi duzun deiak egin eta testu-mezuak bidaltzeko. Bi lineetako deiak erantzun daitezke bakarra aukeratuta izan arren. **2. linea** aukeratzeko baduzu eta sareko zerbitzu honetara harpidetu ez bazara, ezin izango duzu deirik egin. Bigarren linea aukeratzeko bada, **2** ikusten da pantaila nagusian.

Linea aldaketa — Eragotzi lineen aukeraztea (sare zerbitzua), zure SIM txartelak onartzeko gero. Ezarpen hau aldatzeko, PIN2 kodea behar da.

Sareko ezarpenak

Aukeratu  > Ezarpenak > Ezarpenak eta Telefonoa > Sarea.

Sare modua aukeratzeko, aukeratu **Sare modua** eta **Modu duala**, **UMTS** edo **GSM**. Modu dualean, gailua automatikoki sare artean aldatzen du.

Aholkua: **UMTS** aukeratuz datu transferentzia azkarragoa baimentzen du, baina bateria energia gehiago erabili lezake honela, eta bateria iraupena murriztu **UMTS** eta **GSM** sare ondoan dauden eskualdeetan, **Modu duala** aukeratzeko bada baliteke bi sareen arteko aldaketa konstantea eragin lezake, honek bateria energia eskaera handitzen du.

Operadorea aukeratzeko, aukeratu **Operadorea aukeratzea** eta **Eskuzkoa** eskuragarri dauden sareetatik aukeratzeko, edo **Automatikoa** gailua sarea automatikoki aukeratu dezan.

Sare mikrozelular (**MCN**) bat erabiltzen denean gailuak jakinarazi dezan, aukeratu **Inform.-zerb. pantaila** > **Aktibatu**.

Kontaktuak**Zure sareko lagunekin uneoro harremanetan izan**

Gailuko kontaktuen informazioa sare sozialen zerbitzuetan, esaterako, Facebook-en dituzun kontaktuen informazioarekin sinkroniza dezakezu. Sinkronizatzeke baimena ematean, zure kontaktuen Facebook-eko profileko informazioa ikusi ahal izango duzu zure gailuko Kontaktuak aplikazioan, adibidez, euren irudia eta egoera-eguneratzeak.

Sareko zerbitzuak dira zure kontaktuak sinkronizatzea eta egoera-eguneratzeak ikustea. Ibiltaritza eta datu-transmisioarengatik tarifa gehigarriak aplikatu daitezke. Sare sozialen zerbitzua ez badago erabilgarri edo ondo funtzionatzen ez badu, baliteke ezin sinkronizatzea edo egoera-eguneratzeak ezin ikustea.

Zure kontaktuak sinkronizatzen hasteko, zoaz zure gailuaren sare sozialen aplikazioko ezarpenetara, hautatu sarbide bat eta ezarri sinkronizazio automatikoaren maiztasuna.

Kontaktuen eta sare sozialen zerbitzuaren arteko konexioa desaktibatzeke, zure gailuaren sare sozialen zerbitzuaren aplikazioko ezarpenetan, garbitu Gaitu kontrol-laukia.

Baliteke eginbide hau lurralde guztietan erabilgarri ez egotea.

Kontaktuak kopiatu

Hautatu  > **Kontaktuak**.


Kontaktu zerrenda lehenengo aldiz irekitakoan, telefonoak SIM txartelego izenak eta zenbakiak zure telefonora kopiatzea nahi duzun galdetuko ditu.

Hasi kopiatzen


Hautatu **Ados**.

Utzi bertan behera kopiatzea

Hautatu **Utzi**.

Telefonoak SIM txartelego kontaktuak kontaktuen zerrendan ikusi nahi dituzun galdetuko ditu. Kontaktuak ikusteko, aukeratu **Ados**. Kontaktu zerrenda irekiko da eta zure SIMean gordeta dauden kontaktuak  irudiarekin markatuta agertuko dira.

Izenak eta zenbakiak kudeatu

Hautatu  > **Kontaktuak**.

Ezabatu kontaktuak

Joan kontaktura eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Ezabatu hainbat kontaktu

- 1 Ezabatu beharreko kontaktua markatzeko, joan kontaktura eta hautatu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu**.
- 2 Markatutako kontaktuak ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Kopiatu kontaktuak

Joan kontaktura, hautatu **Aukerak** > **Kopiatu** eta nahi duzun kokapena.

Bidali kontaktu bat beste gailu batetara

Hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak** > **Aukerak** > **Bisita-txartela bidali**.

Entzun kontaktuari esleitutako ahots-etiketa

Hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak** > **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xehet.** > **Aukerak** > **Erreprod. ahots-etiketa**.

Ahots identifikadoreak erabili aurretik, kontuan izan hurrengo hau:

- Ahots idenifikadoreak ez dute hizkuntzaren arabera funtzionatzen. Hiztunaren ahotsaren arabera funtzionatzen dute.
- Izena esaterakoan, grabatu zenuen modu berean ahoskatu behar da.
- Ahots identifikadoreek erraz nabarmentzen dute inguru-zarata. Grabatu eta erabili ezazu ingurugiro isiletan.
- Ez dira onartzen izen oso motzak. Erabili izen luzeak, eta saiatu zenbaki ezberdinentzat antzeko izenak ez erabiltzen.

Oharra: Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.

Izenak eta zenbakiak gorde eta editatu

Hautatu  > **Kontaktuak**.

Gehitu kontaktu bat kontaktuen zerrendan

- 1 Hautatu **Aukerak** > **Kontaktu berria**.
- 2 Bete beharrezkoak diren eremuak eta hautatu **Eginda**.

Editatu kontaktuak

Hautatu kontaktu bat eta **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak** > **Aukerak** > **Editatu**.

Kontaktuen dei-tonuak, irudiak eta deietarako testua

Kontaktu talde baterako dei tonua ezar dezakezu, eta irudia eta dei testua kontaktu baterako. Kontaktuak deitzen dizunean, gailuak hautatutako dei-tonua joko du eta dei-testua edo irudia erakutsiko du, deiarekin deitzailearen telefono-zenbakia bidaltzen bada eta gailuak ezagutzen badu.

Kontaktu edo kontaktu-talde baten dei-tonua zehazteko, hautatu kontaktua edo kontaktu-taldea, **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak** > **Aukerak** > **Dei tonua**, eta dei-tonua.

Kontaktu baten dei-testua zehazteko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak** > **Aukerak** > **Dei testua gehitu**. Idatzi deietako testua eta hautatu **Ados**.

- 1 Gailuaren memorian gordeta dagoen kontaktu bati irudi bat gehitzeko, hautatu kontaktua eta **Aukerak > Ikusi xehetasunak > Aukerak > Gehitu irudia.**
- 2 Hautatu Argazkiak ataleko irudi bat.


Tonua ezabatzeko, aukeratu **Lehenetsitako tonua** tonuen zerrendan.

Kontaktu baten irudia ikusteko, aldatzeko edo kentzeko, hautatu kontaktua, **Aukerak > Ikusi xehetasunak > Aukerak > Irudia** eta nahi duzun aukera.

Mezuak

Mezularitzari buruz

Mezularitzaren bidez (sareko zerbitzua), testu-mezuak, multimedia-mezuak, audio-mezuak eta mezu elektronikoak bidal eta jaso ditzakezu. Web zerbitzuko mezuak, hartzaile anitzeko mezuak eta datuak dituzten mezu bereziak ere jaso ditzakezu, eta zerbitzu-komandoak bidal ditzakezu.

Hautatu  > **Mezularitza.**

Mezularitzarako erabilgarri dauden ezarpenak aldatu egin daitezke. Informazio gehiagorako jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Mezuak bidali edo jaso aurretik, hurrengoak egin beharko duzu:

- Sartu baliozko SIM txartela telefonoan eta kokatu zaitetz sare mugikor baten zerbitzuko eremuan.
- Egiaztatu sareak erabili nahi dituzun funtzioak onartzen dituela eta hauek zure SIM txartelean aktibatuta daudela.
- Zehaztu telefonoan Interneteko sargunearen ezarpenak.
- Zehaztu telefonoan kontu elektronikoaren ezarpenak.
- Zehaztu telefonoan testu-mezuaren ezarpenak.
- Zehaztu telefonoan multimedia mezuaren ezarpenak.

Telefonoak SIM txartel hornitzailea hauteman lezake eta mezuaren zenbait ezarpen automatikoki konfiguratu litzake.

Bestela, konfiguratu ezarpenak eskuz edo jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin ezarpenak konfiguratzeko.

Multimedia-mezuen itxura alda daiteke mezua jasotzeko erabiltzen den telefonoaren arabera.

Aukera bateragarriak dituzten telefonoek soilik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuen itxura aldatu egiten daiteke mezua jasotzeko erabilitako telefonoaren arabera.

Mezuak idatzi eta bidaltzea

Hautatu  > **Mezularitza.**

Garrantzitsua: Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuak asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Multimedia mezu bat sortu baino lehen edo mezu elektroniko bat idatzi baino lehen, konexio ezarpen zuzenak izan behar dituzu konfiguratuta.

Haririk gabeko sareak MMS mezuen neurria muga dezake. Txertatutako argazkiak muga gaindituz gero, telefonoak argazkia txikiagotu dezake MMS bidez bidali ahal izateko.

Mezu elektronikoaren gehieneko tamaina zerbitzu-hornitzailearekin egiaztatu. Bidali nahi den mezu elektronikoak posta elektronikoko zerbitzariaren muga gaindituz gero, mezua Irteera ontzia karpetan gordetzen da eta telefonoa tarteka berriro bidaltzen saiatzen da. Mezu elektroniko bat bidaltzeko datu-

konexioa behar da; horregatik, mezu elektronikoak bidaltzeko saiakerak telefonoaren faktura areagotu dezakete. Irteera ontzia karpetan, mezuak ezabatu edo Zirriborroak karpetara mugitu ditzakezu.

- 1 Hautatu **Mezu berria** > **Mezua** testu edo multimedia mezu (MMS) bat bidaltzeko, **Audio mezua** soinu klip bat duen multimedia mezu bat bidaltzeko, edo **E-maila** mezu elektronikoa bat bidaltzeko.
- 2 Nori eremuan, sakatu korritze tekla kontaktu zerrendako hartzaileak edo taldeak hautatzeko, edo idatzi hartzailearen telefono zenbakia edo helbide elektronikoa. Hartzaileen arteko puntu eta koma (;) bat gehitzeko, sakatu *. Zenbakia edo helbidea arbeletik kopia dezakezu ere bai.
- 3 Gaia eremuan, idatzi mezu elektronikoen gaia. Ikus daitezkeen eremuak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Mezuaren goiburua**.
- 4 Mezua eremuan, idatzi mezua. Txantiloia bat edo ohar bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Testua gehitu** > **Txantiloia** edo **Oharra**.
- 5 Multimedia mezu bati media fitxategi bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia**, fitxategi mota edo jatorria, eta nahi duzun fitxategia. Bisita-txartel bat, diapositiba bat, ohar bat edo bestelako fitxategi bat mezuari gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Besteren bat gehitu**.

- 6 Multimedia mezu batentzako argazki bat ateratzeko edo soinu klip bat grabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Irudia gehitu** > **Berria**, **Bideoklipa gehitu** > **Berria**, edo **Gehitu soinu-klipa** > **Berria**.
- 7 Mezu elektronikoa bati eranskin bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** eta eranskin mota. E-mail eranskinak honela adierazita daude: .
- 8 Mezua bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali**, edo sakatu deitze tekla.

Oharra: Mezua bidali dela dioen testu edo ikonoa pantailan agertzeak ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik.

Zure telefonoak mezu bakarrek muga gainditzen duten mezuak onartzen ditu. Mezu luzeagoak bi mezu edo gehiagotan banatuta bidaltzen dira. Zerbitzu-hornitzaileek bidalitako mezu kopuruen arabera kobratu ohi dute. Azentu-markak, bestelako ikurrak edo zenbait hizkuntzen aukerak leku gehiago hartzen dute, eta mezu batean bidal daitezkeen karaktere kopurua murriztu egiten da.

Baliteke MP4 formatuan gordeta dauden edo multimedia mezuen hari gabeko sarearen tamaina muga gainditzen duten bideo klipak ezin bidaltzea.

Posta elektronikoa E-maila konfiguratzeko


Nokiaren posta elektronikorako laguntzailearekin, zure enpresaren kontu elektronikoa konfiguratu dezakezu, adibidez Microsoft Outlook, Mail for Exchange edo Intellisync, hala nola zure Interneteko kontu elektronikoa.

Enpresako posta elektronikoa konfiguratzeko duzunean, baliteke zure helbide elektronikorekin lotuta dagoen zerbitzariaren izena galdetzea. Eskatu xehetasunak zure enpresaren TI sailari.

- 1 Laguntzailea abiarazteko, zoaz hasiera pantailara, zoaz posta elektronikorako laguntzailerara eta sakatu gupila.
- 2 Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Laguntzaileak ezarpenak automatikoki konfiguratu ezin baditu, kontu elektorniko mota eta lotutako kontuaren ezarpenak sartu behar dituzu.

Telefonoak posta elektornikorako bezero gehiago baditu, posta elektronikorako laguntzailea abiaratzen duzunean eskainiko zaizkizu.

Posta elektronikoa bidali

Aukeratu  > Mezularitza.

- 1 Aukeratu zure postontzia eta **Aukerak > Sortu mezu elektr..**
- 2 Nori eremuan, idatzi hartzailearen helbide elektronikoa. Hartzailearen helbide elektronikoa Kontaktuetan badago, hasi idazten hartzailearen izena eta aukeratu hartzailea proposamenetatik. Hartzaile bat baino gehiago gehitzen badituzu, idatzi ; helbide elektronikok banatzeko. Erabili Cc eremua kopia bat beste hartzaileei bidaltzeko, edo Bcc eremua hartzaileei kopia itsu bat bidaltzeko. Bcc ez badago ikusgai, aukeratu **Aukerak > Gehiago > Erakutsi Bcc eremua.**
- 3 Gaia eremuan, mezuaren gaia idatzi.

- 4 Idatzi mezua testu eremuan.
- 5 Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Gehitu eranskina — Gehitu mezuan eranskin bat.

Lehentasuna — Zehaztu mezuaren lehentasuna.

Bandera — Ezarri mezuari bandera jarraipena egiteko.

Txertatu txantiloia — Txertatu testua txantiloietatik.


Gehitu hartzailea — Gehitu hartzaileak mezuan Kontaktuetatik.

Editatze aukerak — Moztu, kopiatu edo itsatsi aukeratutako testua.

Sarrera-aukerak — Aktibatu edo desaktibatu testu iragarlea edo hautatu idazteko hizkuntza.

- 6 **Aukerak > Bidali aukeratu.**

Eranskinak gehitu

Aukeratu  > Mezularitza.

Mezu elektronikoa bat idazteko, aukeratu zure postontzia eta **Aukerak > Sortu mezu elektr..**

Mezu elektronikoa eranskin bat gehitzeko, aukeratu **Aukerak > Gehitu eranskina.**

Aukeratutako eranskina ezabatzeko, aukeratu **Aukerak > Kendu eranskina.**

Posta elektronikoa irakurri

Aukeratu  > Mezularitza.


Garrantzitsua: Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuak asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Jasotako mezu elektronikoa irakurtzeko, aukeratu postontzia eta zerrendako mezu bat.

Mezuaren bidaltzaileari erantzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erantzun**. Mezuaren bidaltzaileari eta beste hartzaile guztiei erantzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erantzun denei**.

Mezua berriro bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berbidali**.

Eranskinak deskargatu

Aukeratu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Jasotako mezu elektronikoen baten eranskinak ikusteko, joan eranskin-eremura, eta hautatu **Aukerak** > **Ekintzak**. Mezuak eranskin bat badu, hautatu **Ireki** eranskina irekitzeko. Eranskin bat baino gehiago badaude, hautatu **Ikusi zerrenda** deskargatu diren eranskinen zerrenda ikusteko.

Hautatutako eranskina edo zerrendako eranskin guztiak telefonoan deskargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Deskargatu** edo **Deskargatu guztiak**. Eranskinak ez dira telefonoan gordetzen, eta mezua ezabatzen duzunean ezabatzen dira.

Hautatutako eranskina edo deskargatutako eranskin guztiak telefonoan gordetzeko, hautatu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Gorde** edo **Gorde guztiak**.

Aukeratutako eta deskargatutako eranskina ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Ireki**.

Bilera eskaera bati erantzun

Hautatu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Bilera eskaerak erantzun ditzakezu egutegiko datuen sinkronizazioa aktibatuta baduzu soilik.

Hautatu jasotako bilera eskaera bat, **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:


Onartu — Onartu bilera eskaera.

Ezetsi — Ukatu bilera eskaera.

Berbidali — Bidali berriro bilera eskaera beste hartzaile bati.

Kendu egutegitik — Ezabatu egutegitik bertan behera utzitako bilera bat.

Mezu elektronikoen bilatu


Aukeratu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Postontziko mezu elektronikoen hartzaile, gai eta testu gorputzetan elementuak bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bilatu**.

Bilaketa gelditzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gelditu bilaketa**.

Bilaketa berri bat hasteko, aukeratu **Aukerak** > **Bilaketa berria**.


Mezu elektronikoak ezabatu

Aukeratu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Mezu elektroniko bat ezabatzeko, aukeratu mezua eta aukeratu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Ezabatu**. Mezua Ezabatutako elementuen karpeta jarriko da, eskuragarri badago. Ezabatutako elementuentzako karpetarik eskuragarri ez badago, mezua betirako ezabatuko da.


Ezabatutako elementuen karpeta husteko, aukeratu karpeta eta **Aukerak** > **Ezabat. elem. hutsik**.

Posta elektronikorako karpeta batetik bestera aldatu

Aukeratu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Beste posta elektronikorekin karpeta edo postontzi bat irekitzeko, aukeratu **Sarrera ontzia** pantailaren goialdean. Aukeratu zerrendatik posta elektronikorekin karpeta edo postontzia.

Postontzitik deskonektatu

Aukeratu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Telefonoa eta posta elektronikoko zerbitzariaren tarteko sinkronizazioa eteteko, eta posta elektronikorekin hari gabeko konexiorik gabe lan egiteko, aukeratu **Aukerak** > **Deskonektatu**.

Postontziak **Deskonektatu** aukera ez badauka, aukeratu **Aukerak** > **Irten** postontzitik deskonektatzeko.

Sinkronizazioa berriz abiarazteko, aukeratu **Aukerak** > **Konektatu**.


Zehaztu bulegotik kanpoko erantzuna

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **E-mail**.

Bulegotik kanpoko erantzuna ezartzeko, erabilgarri badago, hautatu postontzia eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Postontz. ezarp.** Postontzi motaren arabera, hautatu **Postontzia** > **Bulegotik kanpo** > **Aktibatu** edo **Postontz. ezarp.** > **Bulegotik kanpo** > **Aktibatu**.

Erantzunaren testua sartzeko, aukeratu **Bul. kanpoko erantzuna**.

Posta elektronikorekin ezarpen orokorrak

Hautatu  > **Aplikazioak** > **E-mail** eta **Ezarp.** > **Ezarpen globalak**.

Aukeratu hurrengoetatik:

Zerrendaren diseinua — Aukeratu sarrera ontzian dauden mezu elektronikorekin testuaren linea bat edo bi erakustea nahi duzun.

Testuaren aurrebista — Aurreikusitako mezuak sarrera-ontziko mezuen zerrendan zehar mugitzen zarenean.

Titulu bereizleak — Mezu elektronikorekin zerrenda zabaltzeko eta tolesteko, aukeratu **Aktibatu**.

Deskargatu jakinaraz. — Ezarri telefonoa mezu elektronikorekin eranskin

bat deskargatu denean jakinarazpen bat ager dadin.


Abisatu ezabatu aurretik — Ezarri telefonoa mezu elektronikoko bat ezabatu aurretik abisu bat ager dadin.

Kargatu HTML irudiak — HTML irudiak automatikoki kargatu mezu elektronikoen.

Hasierako pantaila — Zehaztu hasierapantailako informazio-eremuan mezu elektronikoen zenbat lerro erakutsi behar diren.

Txatari buruz


Txata funtzioarekin (sareko zerbitzua), istanteko mezuak truka ditzakezu lagunekin. Hainbat txat-zerbitzuetan edo komunitateetan sar zaitezke aldi berean eta batetik bestera alda dezakezu. Adibidez, Weba arakatu nahi baduzu, Txata aplikazioa atzealdean exekutatzan utz dezakezu; halere, istanteko mezuak jakinaraziko zaizkizu.

Txata aplikazioa telefonoan aurrez instalatuta dago. Txateatzen hasteko, hautatu  > **Aplikazioak** > **Txata**.

Sareko zerbitzuak erabiliz eta zure gailura edukia deskargatuz gero, datuen trafikoaren kostuak egon daitezke.

Ovi kontaktuak

Ovi kontaktuak aplikazioari buruz

 Ovi Kontaktuekin, lagun eta senideekin konektatuta egon zaitezke, zertan ari diren ikus dezakezu, eta lagun berriak egin ditzakezu Ovi komunitatean. Zure kontaktuen babeskopia ere gorde dezakezu Ovi-n.

Gainera, zure kokapena parteka dezakezu lagunekin.

Ovi Kontaktua erabiltzeko, joan www.ovi.com helbidera.

Ovi kontaktuak erabiltzen hasi

Hautatu **Kontaktuak** eta ireki Ovi fitxa.

Ovi kontaktuak zerbitzua Ovi-ren atal bat da eta kontu bereko datuak erabiltzen ditu.

Ovi eta bere zerbitzuak erabiltzen berria bazara, Ovi kontaktuak erabiltzen hasteko, Ovi-n erregistratu behar duzu Nokia kontu bat sortuz.

Nokia kontu bat sortu

- 1 Hautatu **Ovi txata** eta, eskatutakoan, konektatu Internetera.
- 2 Idatzi beharrezko datuak.
- 3 Nire profila ikuspegian, idatzi zure profilaren informazioa. Zure izena eta abizena derrigorrezkoak dira.
- 4 Hautatu **Eginda**.

Dagoeneko ordenagailuarekin edo mugikorrarekin Ovi-n erregistratu bazara, Ovi kontaktuak erabiltzen has zaitezke kontu berarekin.


Ovi kontaktuak zerbitzuan saioa hasi eta zerbitzua aktibatu

Hautatu **Ovi txata** eta idatzi zure erabiltzaile-izena eta pasahitza. Ovi kontaktuak atala zure mugikorrean aktibatu ondoren, zerbitzura hasierako pantailatik konekta zaitezke zuzenean.

Ovi kontaktuak ataleko profileko xehetasunak oraindik zehaztu ez badituzu, ezar itzazu eta hautatu

Eginda. Zure izena eta abizena derrigorrezkoak dira.

Zerbitzura konektatu

Hautatu  > **Kontaktuak** eta ireki Ovi fitxa.

Ovi kontaktuak zerbitzura konektatu

Hautatu **Konektatu** eta konexio metodoa.

Konexioa utzi

Hautatu **Aukerak** > **Utzi konexioa**.

Datu-pakete konexioak datuak igortzeko kostu gehigarriak sor ditzake. Prezioari buruzko xehetasunak lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Hautatu **Konektatu** > **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:

Hautatu — Hautatu elementu bat.

Konektatu — Konektatu zerbitzura lineaz kanpo zaudenean.

Nire profila — Editatu zure profileko informazioa.

Gomendatu lagun bati — Gonbidatu kontaktu bat Ovi kontaktuak zerbitzura. Gonbidapena testu-mezu gisa bidaltzen da.

Ezarpenak — Aldatu Ovi Kontaktua zerbitzuaren ezarpenak.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Sortu eta editatu zure profila

Zure profileko informazioa editatu

Hautatu **Nire profila**.

Ovi kontaktuak aplikazioko zure lagunengatik ikusi

Hautatu lagun bat eta **Aukerak** > **Profila**.

Profileko informazioa ikusgai dago Ovi kontaktuak zerbitzura laguntzat. Ovi kontaktuak zerbitzura gainerako erabiltzaileek profileko xehetasun hauek soilik dituzte ikusgai: izena eta abizena. Zure pribatutasun-ezarpenak aldatzeko, sartu Ovi-ra ordenagailutik eta hasi saioa zure Nokia kontuan.

Zure profileko irudia aldatu

Hautatu **Aukerak** > **Editatu irudia** > **Hautatu irudi bat** eta irudi berria. Uneko irudia ere edita edo ken dezakezu edo profilerako argazki bat atera dezakezu.

Zure eskuragarritasuna aldatu

Modu lehenetsian, zure eskuragarritasuna **Eskuragarri** da. Eskuragarritasuna aldatzeko, hautatu ikonoa.

Unean egiten ari zarena lagunei esan

Hautatu **Zer egiten ari zara?** eta idatzi testua eremuan.

Unean entzuten ari zaren musika lagunei erakutsi

Hautatu **Orain entzungai**. Horretarako, presentziaren ezarpenetan erreproduktioari buruzko informazioa partekatzea baimendu behar duzu.

Zure kontakturako informazioa editatu

Hautatu eremua eta idatzi testua.

Nire profila ikuspegian, hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Editatu testua — Ebaki, kopiatu edo itsatsi testua.

Aldatu — Aldatu egoera (egoeraren eremua hautatuta baduzu).

Aktibatu — Eman zure lagunei zure kokapenaren edo entzuten ari zarenaren berri (eremu hauek hautatuta badituzu).

Desegin aldaketak — Desegin profilaren ikuspegian egindako aldaketak.

Edit. kokapen partek. — Hautatu lagunei jakinarazi nahi dizkiezun mugarriak (Nire kokapena eremua hautatuta baduzu).

Amaitu partekatzea — Utzi bertan behera lagunei kokapena jakinarazteko aukera (Nire kokapena eremua hautatuta baduzu).

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Eman lagunei zure kokapenaren berri

Zure kokapenaren berri emateko, presentzia-ezarpenetan mugarriak sortu behar dituzu eta partekatzeko baimendu. Zure lagunaren kokapen-datuak jasotzeko Mapak aplikazioa izan behar duzu. Kokapen-datuak bidaltzeko eta jasotzeko Mapak eta Kokapena aplikazioak behar dituzu.

- 1 Hautatu **Nire kokapena**. Kokapena ezezaguna bada, hautatu **Nire**

kokapena > Gehitu uneko kokapena.

- 2 Idatzi kokapenaren izena. Kokapena mugarrietan gehitzen da eta zure lagunei haren berri ematen zaie.

Lagunak bilatzea eta gehitzea

Hautatu **Aukerak** > **Gonbidatu** kontaktua.

Kontaktuak bilatu

Idatzi lagunaren izena Bilatu lagunak eremuan eta hautatu **Bilatu**. Ezin dituzu lagunak bilatu mugikorreko zenbakiaren edo helbide elektronikoaren arabera.

Arakatu bilaketaren emaitzak

Aukeratu **Hurrengo emaitzak** edo **Aurreko emaitzak**.

Bilaketa berri bat hasi

Hautatu **Bilaketa berria**.

Bilatzen ari zinen lagunak ezin badituzu aurkitu, ez dira Ovi-ko kide gisa erregistratuta egongo edo ikusgaitz gisa ezarrita egongo dira. Eskatutakoan, bidali testu-mezu bat zure lagunei Ovi kontaktuak zerbitzura gonbidatzeko.

Ovi kontaktuak aplikaziorako gonbidapen bat bidali

Hautatu **Hautatu zerbitzua**; eta zure lagunak erabiltzen duen zerbitzua. Idatzi zure lagunaren erabiltzaile-izena eta hautatu **Gonbidatu**.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:

Hautatu — Hautatu elementu bat.

Ireki — Ireki elementu bat.

Gonbidatu kontaktu gisa — Bidali gonbidapen bat lagunari.

Erakutsi profila — Ikusi kontaktuaren profila.

Berritu gonbidapena — Birbidali Ovi kontaktuak zerbitzura batzeko gonbidapen bat oraindik erantzun ez duen lagun bati.

Bilatu — Bilatu bilaketa eremuan idatzi duzun izenari edo gako-hitzari dagokion kontakua.

Editatu testua — Ebaki, kopiatu edo itsatsi testua.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Txateatu lagunekin

Lagun batekin txateatzen hasi

Hautatu **Aukerak** > **Txata**.

Txat mezuak bidali

Idatzi testua mezuaren eremuan eta hautatu **Bidali**.

Txataren ikuspegian, hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Bidali — Bidali mezua.

Bidali fitxategia — Bidali irudi, bideo klip, audio-fitxategi, edo bestelako fitxategi bat zure txateko lagunari.

Bidali nire kokapena — Bidali zure kokapen-datuak txateko lagunari (bi gailuek onartzen badute).

Gehitu emotikonoa — Txertatu emotikono bat.

Profila — Ikusi lagun baten xehetasunak.

Nire profila — Hautatu zure egoera edo profilaren irudia, pertsonalizatu zure mezua edo aldatu zure xehetasunak.

Editatu testua — Kopiatu edo itsatsi testua.

Amaitu txata — Amaitu txat aktiboa.

Irten — Amaitu txat aktibo guztiak eta itxi aplikazioa.

Aukera eskuragarriak ezberdinak izan daitezke.

Zure lagunaren kokapen-datuak jasotzeko Maps aplikazioa izan behar duzu. Kokapen-datuak bidaltzeko eta jasotzeko Maps eta Posizionamendua aplikazioak izan behar dira.

Fitxategiak jasotzeko, zuk edo hartzaileak fitxategia onartu behar duzue. Fitxategia transferitzen ari denean bidaltzea edo jasotzea bertan behera uzteko, hautatu **Ezetzatu**.

Zure lagunaren kokapena ikusi

Hautatu **Erakutsi mapan**.

Txata amaitu gabe Ovi kontaktuak zerbitzuaren ikuspegi nagusira itzuli

Hautatu **Atzera**.

Txateko telefono zenbakiak gehitu, kopiatu edo bertara deitu

Joan txateko telefono zenbaki batera eta hautatu **Aukerak** eta aukera egokia.

Editatu mugarriak

Mugarriak editatzeko, Mugarriak ikuspegian, hautatu **Aukerak** eta ondorengoetako bat:

Markatu/Kendu marka — Markatu edo desmarkatu zerrendako elementuak.

Editatu — Editatu mugarriaren izena eta gainerako propietateak.

Leku ezagun berria — Zure uneko kokapenaren mugarría sortzeko, hautatu kokapena mapa batean edo idatzi xehetasunak eskuz.

Ovi Kontaktuak zerbitzuaren ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hurrengoetatik:

Kontua — Sartu zure kontuaren xehetasunetara eta zehaztu zure ikusgaitasuna besteen bilaketetarako.

Presentzia — Partekatu lagunekin zure uneko kokapena eta baimendu zure lagunek telefono dei bat egiten ari zarela ikustea (dei-egoera)

Pertsonalizazioa — Aldatu Ovi Kontaktuak aplikazioaren abiaraztearekin eta tonuekin lotutako ezarpenak, eta konfiguratu gailua lagunen gonbidapenak automatikoki onartzeko.

Konexioa — Hautatu erabili beharreko sare-konexioa eta aktibatu ibiltaritzaren jakinarazpenak.

Irten — Amaitu txat aktibo guztiak eta itxi aplikazioa.

Nokia kontuaren ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Kontua**.

Zure kontuaren xehetasunak editatu
Hautatu **Nire kontua**.

Bilaketetan zure ikusgarritasuna zehaztu

Hautatu **Nire kontua** > **Ikusgaitasuna bilatzen**. Konektatu egon behar duzu ikusgaitasuna aldatzeko.

Presentzia ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Presentzia**.

Presentzia-ezarpenak aldatu

Hautatu aukera hauetariko bat:

Partekatu nire kokapena — Gehitu lagunak zure kokapena ikus dezaketenen zerrendan.

Partekatu unekoa — Baimendu lagunek telefonoan entzuten ari zaren musika ikustea.

Partekatu deien egoera — Baimendu lagunek zure egoera ikustea.

Zure kokapena partekatu

Hautatu **Partekatu nire kokapena** eta aukera hauetariko bat:

Partekatzea gaitu da — Baimendu zure lagunek zure kokapena ikustea hautatutako mugarrietan.

Nire leku ezagun partek. — Hautatu lagunei zuren kokapena jakinarazteko erabiliko diren mugarriak.

Eguneratu maiztasuna — Hautatu zure kokapena jakinarazteko maiztasuna.

Kokapen bat mugarrien zerrendan gehitu

Hautatu **Partekatu nire kokapena** > **Nire leku ezagun partek.** > **Aukerak** > **Leku ezagun berria**.

Zure uneko kokapena mugarri gisa gorde

Hautatu **Uneko kokapena**.

Mapan kokapen bat arakatu

Hautatu **Hautatu mapan**.

Mugarriak eskuz gehitu

Hautatu **Idatzi eskuz**.

Zure lagunekin partekatu nahi dituzun kokapenak hautatu

- 1 Hautatu **Partekatu nire kokapena** > **Nire leku ezagun partek.**
- 2 Hautatu mugarriak zerrendan.
- 3 Hautatu **Aukerak** zerrendako elementuak editatzeko, markatzeko eta desmarkatzeko. Hautatutako ezarpenen arabera, zure lagunek zure kokapena ikusiko dute hautatutako kokapenetako batean zaudenean.

Pertsonalizazio ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Pertsonalizazioa**.

Hautatu aukera hauetariko bat:

Saioa hasi pizterakoan — Hasi saioa automatikoki Ovi kontaktuak zerbitzuan mugikorra pizten duzunean.

Onartu gonbidap. auto. — Onartu lagun izateko eskaerak automatikoki jakinarazi gabe.

Onartu ahots mezua auto. — Baimendu ahots-mezuak automatikoki jasotzea.

Mezuen tonua — Hautatu mezu berrirentzako tonua.

Kont. konexio tonua — Hautatu lagun bat konektatzean entzungo duzun tonua.

Tresna hasierako pant. — Zehaztu widgetaren eskuragarritasuna hasierako pantailan.

Hasiera pant. ikonoa — Gehitu Ovi kontaktuak zerbitzuaren lasterbidea telefonoaren hasierako pantailan.

Konexiorako ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Konexioa**.

Konexiorako ezarpenak aldatu

Hautatu **Sare konexioa** eta nahi duzun konexioa. Konexio-ezarpenetan lehenetsitako konexio erabiltzeko, hautatu **Konexio lehenetsia**.

Ettxeko sarea eskuragarri ez dagoenean jakinaraz zaitzan ezarri telefonoa

Telefonoa beste sare batera konektatzen saiatzen ari denean abisu bat jasotzeko, hautatu **Ibiltaritzza abisua** > **Aktibat**.

Konexioak

Ordenagailua webera konektatu

Zure telefonoa PC bat sarera konektatzeko erabil dezakezu.

- 1 Konektatu datu kablea zure telefonoa eta PCaren USB konektoreetara.
- 2 Aukeratu **Konek. ord. web-era**. Beharrezkoa den softwarea automatikoki gailutik PCan instalatzen da.
- 3 Instalazioa onartu PCan. Onartu konexioa ere, galdetzen bazaizu. Web konexioa ezartzen denean, PCaren web arakatzailera irekitzen da.

PCaren administratzailearen eskubideak eta PCan autorun aukera gaituta eduki behar dituzu.

Mac OS erabiltzen baduzu, aukeratu **PC Suite** konexio-metodo gisa. Informazio gehiagorako, zoaz www.nokia.com/support helbidera.

Ovi fitxategiak aplikazioari buruz

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa**.


Ovi fitxategiak aplikazioarekin, zure ordenagailuko fitxategietan sartzeko erabil dezakezu gailua. Instalatu Ovi fitxategiak aplikazioa Ovi fitxategiak aplikazioarekin sartu nahi zaren ordenagailu guztietan.

Hurrengo egitekoak burutu ditzakezu:

- Bilatu eta ikusi ordenagailuan gordetako irudiak eta dokumentuak.
- Transferitu abestiak ordenagailutik telefonora.

- Bidali fitxategiak eta karpetak ordenagailutik aurretik telefonora transferitu gabe.
- Ikusi ordenagailuko fitxategiak, hau itzalita dagoenean ere. Hautatu erabilgarri egotea nahi dituzun karpetak eta fitxategiak eta Ovi fitxategiak aplikazioak automatikoki segurtasun kopia eguneratuak gordeko ditu babestutako eta lineako biltegi batean.

Transferitu edukia beste gailu batera

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Transferen..**

Datuen transferentzia aplikazioarekin edukia transferi dezakezu, adibidez, kontaktuak, bi Nokia telefono bateragarrien artean.

Gailu igorlearen modeloak mugatzen du transferi daitekeen eduki mota. Beste gailuak sinkronizazioa onartzen badu, telefonoaren eta beste gailuaren artean sinkroniza ditzakezu datuak. Beste gailua bateragarria ez bada, zureak jakinaraziko dizu.

Beste gailua SIM txartelik gabe ezin bada piztu, zure SIM txartela sar dezakezu bertan. Zure gailua SIM txartelik gabe pizten denean, konexiorik gabeko profila automatikoki aktibatzen da.

Beste gailuak Bluetooth konexioa onartu behar du.

Edukia transferitu

Beste gailu batetik datuak lehenengo aldiz berreskuratzeko:

- 1 Aktibatu Bluetooth konexioa bi gailuetan.
- 2 Edukia zein gailutik transferitu nahi duzun aukeratu. Zure gailuan kode bat sartzea eskatzen zaizu. Idatzi kode bat (1-16 digitu) eta aukeratu **Ados**. Idatzi kode berbera beste gailuan eta aukeratu **Ados**. Gailuak dagoeneko uztartuta daude.
Modelo batzuek Datuen transferentziarako aplikazioa mezu gisa bidaltzen dute. Transferentzia aplikazioa beste gailuan instalatzeko, ireki mezua eta jarraitu argibideak.
- 3 Zure gailuan aukeratu beste gailutik transferitu nahi duzun edukia.

Edukia beste gailuaren memoriatik gailu honetan dagokion kokapenera transferituko da.

Transferentziaren denbora transferitzen diren datuen arabera izango da. Transferentzia eten eta geroago jarrai dezakezu.

Sinkronizazioa bi norabidetakoa da, eta bi gailuetako datuak berdinak izango dira. Edozein gailutik elementu bat ezabatzen bada, sinkronizatzerakoan beste gailutik ezabatuko da; ezabatutako elementuak ezin dira sinkronizazioarekin berreskuratu.

Azken egindako transferentzia baten erregistroa ikusteko, ikusbide nagusian lasterbide bat aukeratu eta **Aukerak > Erregistroa ikusi**.

Bluetootha Bluetoothari buruz

Gailuaren Bluetooth teknologia hari gabeko konexioak ahalbidetzen ditu 10 metrotara (33 oin) dauden gailu elektronikoen artean. Bluetooth konexioarekin irudiak, bideoak, testuak, enpresa-txartelak eta egutegiko oharrak bidal daitezke, edo hari gabe Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuetara konekta zaitezke.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten gailuak irrati-uhinak erabiliz komunikatzen direnez, zure gailuak eta besteek ez dute ikuspen-lerro berean egon beharrik. Bi gailuak elkarrengandik gehienez 10 metrora egotea besterik ez da beharrezkoa. Halere, konexioan interferentziak egon daitezke hormengatik edo beste gailu elektronikoengatik.

Bluetooth konexio bat baino gehiago egon daitezke martxan aldi berean. Esaterako, gailua aurikularretara konektatuta badago, aldi berean fitxategiak beste gailu bateragarri batera alda ditzakezu.


Telefonoa Bluetooth zehaztapenarekin bateragarria da 2,1 + EDR, eta ondorengo profil hauek onartzen ditu: Audio banaketa aurreratua, urruneko audio/bideo kontrola, oinarrizko irudigintza, oinarrizko inprimatzea, gailuen IDa, telefonia-sare konmutatua, fitxategi-transferentzia, audio/bideo banaketa orokorra, sarbide orokorra, Object Exchange orokorra, eskulibrekoak, (HID) entzungailuak, Object Push, kontaktuetarako sarbidea, serie ataka eta SIMerako sarbidea. Bluetooth teknologia

onartzen duten beste gailu batzuekiko operatibitatea ziurtatzeko, modelo honetarako Nokia konpainiak onartutako osagarri homologatuak erabili behar dira bakarrik. Beste gailuen fabrikatzaileekin egiaztatu gailu horiek telefono honekin bateragarriak ote diren.

Bluetooth teknologia darabilten funtzioek bateria indar gehiago behar dute eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten dute.

Segurtasun gomendioak

Telefonoa ezkutuko moduan erabiliz, software kaltegarria saihesteko aukera gehiago daude. Ez onartu Bluetooth konexioa konfiantzazko iturrietatik ez baldin badator. Beste aukera bat Bluetooth funtzioa desaktibatzea izan daiteke. Honek ez die telefonoaren gainerako funtzioei eragiten.

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Bluetootha.**

Bluetooth konexioa erabiltzen ez duzunean, aukeratu **Bluetootha** > **Desaktibatu** edo **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Ezkutatuta.**

Ez uztartu ezezaguna den gailu batekin.

Bluetooth-aren bidez datuak bidali eta jaso

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Bluetootha.**

- 1 Bluetooth konexioa lehenengo aldiz irekitzean, zure telefonoari izen bat emateko eskatuko zaizu. Eman izen berezi bat, Bluetooth gailu gehiago

ondoan badaude erraztasunez ezagutzeko.

- 2 Hautatu **Bluetootha** > **Aktibatu.**
- 3 Hautatu **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Guztiei erakutsi** edo **Aldia zehaztu.** **Aldia zehaztu** aukeratuz gero, besteentzako ikusgai zauden denbora zehaztu behar duzu. Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuen erabiltzaileek zure gailua eta idatzi duzun izena ikus dezakete.
- 4 Bidali nahi den elementua gordeta dagoen aplikazioa ireki.
- 5 Aukeratu elementua eta **Aukerak** > **Bidali** > **Bluetooth bidez.** Telefonoak bere eskumenean Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuak bilatzen eta zerrendatzen ditu.

Aholkua: Aurrez Bluetooth konexioa erabiliz datuak bidali badituzu, aurreko emaitzen zerrenda agertuko zaizu. Bluetooth gailu gehiago bilatzeko, aukeratu **Gailu gehiago.**

- 6 Zein gailutara konektatu nahi duzun aukeratu. Datuak transferitu aurretik beste gailua uztartu behar bada, pasahitza eskatuko zaizu.

Konektatutakoan, **Datuak bidaltzen** agertzen da.

Mezularitza aplikazioko Bidalitakoak karpetak ez ditu Bluetooth konexioaren bidez bidalitako mezuak gordetzen.

Bluetooth konexioaren bidez datuak jasotzeko, aukeratu **Bluetootha** > **Aktibatu** eta **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Guztiei erakutsi**

uztatu gabeko gailu batetik datuak jasotzeko edo **Ezkutatuta** uztartutako gailuetatik bakarrik datuak jasotzeko. Datuak Bluetooth konexioaren bidez jasotzen dituzunean, profil aktiboaren ezarpenen arabera, tonu bat entzungo duzu eta datuak dauden mezua onartu nahi duzun galdetuko zaizu. Onartuz gero, mezua Mezularitzako aplikazioaren Sarrerako ontziaren karpetan gordeko da.

Aholkua: Telefonoko edo memoria-txarteleko fitxategietan sar zaitzake File Transfer Profile Client zerbitzua onartzen duen eta bateragarria den osagarri bat erabiliz (adibidez, ordenagailu eramangarri bat).

Bluetooth konexioa automatikoki deskonektatzen da datuak bidali edo jaso ondoren. Nokia Ovi Suite eta aurikularrak bezalako osagarriak bakarrik konexioa mantentzen dezakete nahiz eta aktibo ez egon.

Gailuak uztartzea

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Bluetootha.**

Ireki uztartutako gailuen fitxa.

Uztartu aurretik, erabaki zein izango den zure gakoa (1-16 digitu) eta jarri ados beste gailuaren erabiltzailearekin gako bera erabiltzeko. Erabiltzailearen interfazea ez duten gailuek, gako finkoa dute. Gailuak lehen aldiz konektatzen bakarrik beharko duzu gakoa. Bikoteak egin ondoren, konexioa baimendu ahal izango duzu. Uztartzeak eta konexioa baimentzeak konexioa azkartzen eta errazten du, konexioa egiten duzun

bakoitzean ez duzulako baimendu beharko.

SIMera urrutitik sartzeko gakoak 16 digitu izan beharko ditu.

Urruneko SIM moduan, zure telefonoaren SIM txartela osagarri bateragarriekin erabil dezakezu.

Hari gabeko telefonoa urruneko SIM moduan egonez gero, osagarri bateragarri bakarra, autorako kita esate baterako, erabil dezakezu deiak egin edo jasotzeko.

Modu horretan dagoen bitartean, telefonoak ezin izango du deirik egin, programatutako larrialdiko zenbakietara izan ezik.

Zure telefonotik deitzeko, urruneko SIM modutik atera behar duzu lehendabizi. Telefonoa blokeatuta badago, aurrena desblokeatzeko kodea sartu behar duzu.

- 1 Hautatu **Aukerak** > **Gailu berria uztartu**. Gailuak inguruan bilatuko ditu Bluetooth gailuak. Aurrez Bluetooth konexioa erabiliz datuak bidali badituzu, aurreko emaitzen zerrenda agertuko zaizu. Bluetooth gailu gehiago bilatzeko, hautatu **Gailu gehiago**.
- 2 Aukeratu konektatu nahi duzun gailua eta idatzi pasahitza. Beste gailuan pasahitz bera adierazi behar da.
- 3 Zure telefonoaren eta beste gailuaren arteko konexioa automatikoa izan dadin, hautatu **Bai**. Konektatzen saiatzen zaren bakoitzean konexioa eskuz baieztatzeko, hautatu **Ez**.

Uztartu ondoren, beste gailua uztartutako gailuen orrian gehituko da.

Bikoteari ezizen bat emateko, hautatu **Aukerak** > **Esleitu izen laburra**. Ezizena zure gailuan ikusiko da.

Uztartze bat ezabatzeko, hautatu ezabatu nahi duzun gailuaren uztartzea eta **Aukerak** > **Ezabatu**. Uztartze guztiak ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu guztiak**. Gailu batekin konektaturik bazaude eta gailu honekin uztartzea bertan behera uzten baduzu, uztartzea amaituko da eta konexioa etengo da.

Uztartutako gailu bati zure telefonora automatikoki konektatzen uzteko, aukeratu **Baimendutzat ezarri**. Zure gailuaren eta bestearen arteko konexioak zure ezagutzarik gabe egin daitezke. Ez da behar bakoitzaren onarpenik edo baimenik. Erabili aukera hori soilik zure gailuekin, adibidez, aurikular edo ordenagailu bateragarriekin edo fidagarria den norbaiten gailuekin Beste gailuen konexio eskaerak aldiro onartu badituzu, aukeratu **Baimnd. gabetzat ezarri**.

Bluetooth bidezko audio osagarri bat erabiltzeko, adibidez Bluetooth eskulibrekoa edo aurikularrak, zure telefonoa eta osagarria uztartu behar dituzu. Pasahitza eta argibide gehiagorako, ikus osagarrien erabiltzailearen gida. Audio osagarria konektatzeko, piztu osagarria. Zenbait audio osagarri automatikoki konektatzen dira. Bestela, ireki uztartutako gailuen

fitxa, hautatu osagarria eta **Aukerak** > **Konektatu audio gailura**.

Gailuak blokeatu

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Bluetootha**.

- 1 Gailu bat zure telefonora Bluetooth bidez konektatzea galarazteko, ireki parekatutako gailuen fitxa.
- 2 Hautatu blokeatu nahi duzun telefonoa eta sakatu **Aukerak** > **Blokeatu**.

Blokeatutako gailu bati berriro parekatzea baimentzeko, ezabatu gailua blokeatutako gailuen zerrendatik.

Ireki blokeatutako gailuen fitxa eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Partekatze eskaera bat ukatzen baduzu, etorkizunean gailu honek egindako konexio eskaerak blokeatu nahi dituzun galdetuko zaizu. Eskaera onartzen baduzu, urruneko gailua blokeatutako gailuen zerrendara gehituko da.

Datu-kablea

Memoria txartela kaltetzea edo datuak hondatze ekiditeko, ez deskonektatu USB datu-kablea datuak transferitzen ari direnean.

Transferitu datuak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

- 1 Sartu memoria-txartel bat telefonoan eta konektatu telefonoa ordenagailu bateragarri batera USB datu-kablea erabiliz.

- 2 Telefonoak erabili nahi duzun modua galdetzen duenean, hautatu **Masa biltegia**. Modu honekin, telefonoa disko gogor aldagarri gisa ikus dezakezu ordenagailuan.
- 3 Transferitu datuak ordenagailuaren eta telefonoaren artean.
- 4 Amaitu konexioa ordenagailutik (adibidez, Windows-en hardwarearen morroian Deskonektatu edo Atera sakatuta) memoria-txartela kaltetzea saihesteko.

USB moduaren ezarpenak aldatzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **USB.**


Datu-kablearekin erabili ohi duzun USB modua aldatzeko, hautatu **USB konexio-modua**.

USB datu-kablea konektatzen duzun bakoitzean telefonoak modua galde dezan ezartzeko, hautatu **Konektatzean gald.** > **Bai.**

Nokia PC Suite zure telefonoan erabiltzeko, instalatu Nokia PC Suite ordenagailuan, konektatu USB datu-kablea eta hautatu **PC Suite**.

Sinkronizazioa

Sinkronizazioa aplikazioarekin, oharrak, mezuak, kontaktuak eta bestelako informazioa urruneko zerbitzari batekin sinkroniza ditzakezu.

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Sink..**

Sinkronizazio-ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu.

Sinkronizazio-profil batek sinkronizaziorako beharrezkoak diren ezarpenak ditu. Aplikazioa irekitzen duzunean, lehenetsitako profila edo erabili berri den sinkronizazio-profila bistaratzen da.

Eduki motak gehitzea edo kentzea

Hautatu eduki mota.

Datuak sinkronizatu

Hautatu **Aukerak** > **Sinkronizatu.**

Sinkronizazio-profil berri bat sortu

Hautatu **Aukerak** > **Sinkr.-profil berria.**

Sinkronizazio-profilak kudeatu

Hautatu **Aukerak** eta nahi duzun aukera.

Weba


Web arakatzaileri buruz

Web arakatzaille aplikazioarekin, html (Hypertext Markup Language) kodeketa erabiltzen duten web orriak ikus daitezke sortu ziren bezala. Telefono mugikorrentzat zuzendutako web orriak ere araka daitezke eta xhtml (Extensible Hypertext Markup Language) edo wml (Wireless Markup Language) erabil daiteke.

Weba arakatzeko, Interneteko sargune batek konfiguratuta egon behar du telefonoan.


Sarea arakatu

Arakatzaillea aplikazioarekin web-orriak araka ditzakezu.

Aukeratu  > **Webgunea**.

Lasterbidea: Arakatzaillea irekitzeko, eduki sakatuta **0** hasierako pantailan.

Web-orri batera joan

Laster-marken ikuspegian, hautatu laster-marka bat edo hasi idazten web helbide bat ( eremua automatikoki irekitzen da) eta hautatu **Hona joan**.

Baliteke web orri batzuk ikusteko memoria-kopuru handia behar duen materiala edukitzea, adibidez, bideoklipak. Horrelako orri bat kargatzen ari den bitartean zure telefona memoriarik gabe geratzen bada, sartu memoria-txartel bat. Bestela, ez dira bideoklipak bistaratuko.

Grafikoak desgaitu memoria aurrezteko eta deskargak bizkortzeko

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Orria** > **Edukia kargatu** > **Testua soilik**.

Web orriaren edukia freskatu

Hautatu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Birkargatu**.

Joan zaren web-orrietako argazkiak ikusi

Hautatu **Atzera**. Saio honetan bisitatutako orrien zerrenda bistaratuko da. Aukera eskuragarri egongo da **Historia-zerrenda** aktibatuz badago arakatzaillearen ezarpenetan.

Leiho bat baino gehiago automatikoki irekitzea blokeatu edo baimendu

Hautatu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Blokeatu popup-ak** edo **Pop up-ak baimendu**.

Lasterbideen teklak ikusi

Hautatu **Aukerak** > **Teklat. lasterbideak**. Lasterbide gakoak editatzeko, hautatu **Editatu**.

Handiagotu edo txikiagotu web-orria

Sakatu * edo #.

Aholkia: Arakatzaillea aplikaziotik irten gabe edo konexioa itxi gabe hasierako pantailara joateko, sakatu amaitzeko tekla behin.

Bilatu zerbitzuari buruz

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Bilaketa**.

Bilatu aplikazioarekin (sareko zerbitzua) Interneten oinarritzen diren zenbait zerbitzu erabil ditzakezu, adibidez, webguneak eta irudiak bilatzeko. Zerbitzuen edukia eta eskuragarritasuna alda daiteke.

Arakatzaillearen tresna-barra

Arakatzaillearen tresna-barrak gehien erabilitako funtzioetara joatea errazten du.

Ireki tresna-barra

Eduki sakatuta nabigazio-tekla web-orriaren eremu huts batean.

Mugitu tresna-barran


Joan ezkerrera edo eskuinera.


Hautatu tresna-barrako eginbideak


Sakatu nabigazio-tekla


Tresna-barran hauetako bat hautatu:


 **Joan web helbidera** — Web helbide bat sartu.

 **Berriki bisitatur. orriak** — Gehien ikusitako webguneen zerrenda.

 **Laster-markak** — Ireki laster marken ikuspegia.

 **Pantaila osoa** — Ikusi web-orria pantaila osoan.


 **Orri. ikuspegi orok.** — Bistaratu uneko web-orriaren ikuspegi orokorra.

 **Bilatu gako-hitz bidez** — Egin bilaketak uneko web-orrian.

 **Ezarpenak** — Aldatu web-arakatzaillearen ezarpenak.

Orrietan nabigatu

Web orri handi bat arakatzten hari zarenean, Mini Mapa edo Orriaren ikuspegi orokorra erabil dezakezu orria begirada batean ikusteko.

Hautatu  > Webgunea.

Aktibatu Mini Mapa

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Orokorra** > **Mapa txikia** > **Aktibatu**.

Web orri handi batean mugitzerakoan, Mini Mapa irekitzen da eta orrialdearen ikuspegi orokorra erakusten du.

Mugitu Mini Mapan zehar


Joan ezkerrera, eskuinera, gora edo behera. Nahi duzun kokapena aurkitzen duzunean, utzi mugitzeari. Mini Mapa desagertu egiten da eta hautatutako kokapenean uzten zaitu.

Lortu web orri bateko informazioa Orriaren ikuspegi orokorrarekin

- 1 Sakatu **8**. Uneko orriaren miniatura-irudi bat irekitzen da.
- 2 Mugitu miniatura-irudian zehar gora, behera, ezkerrera edo eskuinera joanda.
- 3 Ikusi nahi duzun atal bat aurkitzen duzunean, hautatu **Ados** web orriaren atal horretara joateko.

Web jarioak eta blogak

Web jarioen bidez, egunkarietako izenburuak eta zure blog gogokoak erraz jarrai ditzakezu.

Hautatu  > Webgunea.

Web jarioak web orrietako XML fitxategiak dira. Besteak beste, azken berrien izenburuak edo blogak partekatzeko erabiltzen dira. Ohizkoa da web jarioak web orri, blog eta wiki orrialdeetan aurkitzea.

Arakatzailerik aplikazioak automatikoki antzematen du web orri batek web jarioak dituen.

Web jario batera harpidetu orrian jarioa erabilgarri dagoenean

Hautatu **Aukerak** > **Sareko jarioetara harp..**

Web jarioak eguneratu


Web jarioen ikuspegian, hautatu jario bat eta **Aukerak** > **Web-jarioaren aukerak** > **Eguneratu.**

Web jario guztien eguneratze automatikoa ezarri

Web jarioen ikuspegian, hautatu **Aukerak** > **Editatu** > **Editatu.** Aukera hau ez dago eskuragarri jario bat edo gehiago markatuta badaude.

Eduki bilaketa

Gako-hitzen bilaketaren bidez, azkar aurki dezakezu web orri batean bilatzen ari zaren informazioa.

Hautatu  > **Webgunea.**


Testua uneko webgunean bilatu

Hautatu **Aukerak** > **Bilatu gako-hitza.** Aurreko edo hurrengo bat etortzeak ikusteko, mugitu gora edo behera.

Aholkua: Testua momentuko webgunean bilatzeko, sakatu **2.**

Laster markak

Zure web orri gogokoak Laster-marketan gorde ditzakezu haietara azkar sartzeko.

Hautatu  > **Webgunea.**

Sartu laster-marketara

- 1 Hasierako orri gisa Laster-markak ez den beste orri bat baduzu, hautatu **Aukerak** > **Joan hona:** > **Laster markak.**
- 2 Hautatu web helbidea zerrendan edo Berriki bisitatur. orriak karpeta laster-marken bilduman.

Gorde uneko webgunea laster-marka gisa

Arakatzean, hautatu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Gorde las.-marka gisa.**

Editatu edo ezabatu laster-markak

Hautatu **Aukerak** > **Laster-marka kudeatz..**

Bidali edo gehitu laster-marka bat, edo ezarri laster-marka duen web orri bat hasierako orria gisa

Hautatu **Aukerak** > **Laster-mark. aukerak.**

Cachea ezabatu

Zure cache memoria husteak, zure datuak seguruak gordetzen lagunduko ditu. Atzitutako informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian gordetzen dira. Pasahitza eskatzen duen isilpeko informazioan sartu edo sartzan saiatu

bazara, hustu cache-a arakatzeko saio bakoitzaren ostean.

Hautatu **Aukerak** > **Garbitu datu pribatuak** > **Cachea**.

Konexioa amaitu

Konexioa amaitu eta Arakatzaila aplikazioa itxi

Hautatu **Aukerak** > **Irten**.

Cookie-ak ezabatu

Hautatu **Aukerak** > **Pribat. datuak ezabatu** > **Cookieak**. Cookie-ek ikusi dituzun webguneen informazioa biltzen dute.

Konexio seguruak

Konexio seguru batekin eta segurtasun-ziurtagiriaren bidez, era seguruan araka dezakezu Internet.

Segurtasun adierazlea (🔒) konexioa dagoen bitartean bistaritzen bada, telefonoa eta Interneteko atebide edo zerbitzariaren arteko datu transmisioa kodifikatuta egongo da.

Segurtasun ikonoak ez du esan nahi ataka eta edukiaren zerbitzariaren (datuak gordetzen diren tokia) arteko datu igorpena segurua denik. Zerbitzu-hornitzaileak pasagunea eta edukien zerbitzariaren arteko datu igorpena ziurtatzen du.

Segurtasun ziurtagiriak zerbitzu batzuentzat beharrezkoak izan daitezke, adibidez bankuen zerbitzuak. Zerbitzariaren identitatea egiazkoa ez dela edo zure telefonoan segurtasun

ziurtagiri egokia ez duzula jakinaraziko zaizu. Informazio gehiago jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

Garrantzitsua: Ziurtagiriak erabiltzeak urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagiriaren administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagiri bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzakoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

Web ezarpenak

Ezarpen ezberdinekin, arakatzeko esperientzia hobea dezakezu zure beharren arabera.

Hautatu 🏠 > **Webgunea** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

Ezarpen orokorrak

Sarbidea — Lehenetsitako sarbide puntua hautatzea. Baliteke zure gailuko

sarbide guztiak zure zerbitzu-hornitzaileak aurrez zehaztu izana. Baliteke ezin aldatzea, sortzea, editatzea edo ezabatzea.

Hasierako orria — Hasiera orria zehaztea.

Mapa txikia — Aktibatu edo desaktibatu Mini Map. Mini Map-ek web-orrian nabigatzen laguntzen dizu.

Historia-zerrenda — Arakatzan ari zarenean, **Aktibatu** hautatzen baduzu, uneko saioan bisitatutako webguneen zerrenda ikusteko, hautatu **Atzera**.

Segurtasun-abisuak — Segurtasun jakinarazpenak ezkutatu edo erakutsi.

Java/ECMA skriptak — Scripten erabilera gaitu edo ezgaitu.

Java/ECMA script erroreak — Ezarri gailua script-en jakinarazpenak jasotzeko.

Deskargatu artean ireki — Gaitu fitxategi bat ireki ahal izatea deskargatzen ari den bitartean.

Orrialdearen ezarpenak

Edukia kargatu — Hautatu irudiak eta bestelako objektuak kargatu nahi dituzun arakatzan ari zaren bitartean. Arakatzan ari zaren bitartean, **Testua soilik** hautatu baduzu, irudiak geroago kargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bistaratu aukerak** > **Kargatu irudiak**.

Lehenetsitako kodeketa — Testu-karakterek behar bezala agertzen ez badira, zure uneko orrialdearen hizkuntzarentzako kodeketa hauta dezakezu.

Blokeatu popup-ak — Baimendu edo blokeatu arakatzean pop-up leihoak automatikoki irekitzea.

Birkargatze automatikoa — Ezarri web orriak automatikoki freska daitezen arakatu bitartean.

Letra-tamaina — Web orrialdeetan erabiliko den letraren tamaina zehaztu.

Pribatutasun ezarpenak

Berriki bisitatur. orriak — Laster-marken biltze automatikoa gaitu edo ezgaitu. Berriki bisitatur. orriak karpetan bisitatutako web orrialdeen helbideak gordetzen jarraitu nahi baduzu, baina aldi berean karpeta laster-marken ikuspegitik gorde nahi baduzu, **Ezkutatu karpeta** aukeratu.

Inprim. dat. gordetzen — Hautatu, orrialdea hurrengo aldi irekitzen duzunean, webguneko pasahitzak edo webguneko bestelako datuak gorde nahi dituzun ala ez.

Cookieak — Cookieen jasotzea eta bidalketa gaitu edo ezgaitu.

Web iturrien ezarpenak

Aut. eguneratzeko sarbid. — Hautatu eguneratu nahi duzun sarbide puntua. **Eguneratze automatik.** aktibatuta dagonean, soilik dago eskuragarri aukera hori.

ibiltaritzan eguneratu — Aktibatu web jarioen eguneratze automatikoa ibiltaritzan.

Kokapena

Aplikazio hauek GPS konexioa behar dute.

GPS zerbitzuari buruz

Posizionamendu Globaleko Sistema (GPS) Amerikako Estatu Batuetako gobernua zuzendutakoa da, hau izanik sistema honen zehaztasunaren eta mantentze lanen erantzule bakarra. Estatu Batuetako gobernua GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzek eragina izan dezakete kokapenari buruzko datuen zehaztasunean, eta hau Irrati-Nabigazio Plan Federalaren eta Estatu Batuetako Defentsa Zibilaren Sailean GPS politikari buruz sortu daitezkeen aldaketen menpe dago. Sateliteen geometria eskasak ere zehaztasunari eragin diezaiokie. Zure kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen erabilgarritasun eta kalitatean eragina izan dezakete. Baliteke GPS seinaleak eskuragarri ez egotea eraikinen barruan edo lur azpian eta oztopa daitezke zenbait materialekin, hormigoia eta metala, esaterako.

GPSa ez da erabili behar neurketa zehatz bat egiteko, ez eta GPS hargailuak eta irrati zelularren sareek adierazten dituzten datuetan soilik oinarritzea kokatu edo nabigatzeko.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.

GPSan adierazitako koordinatuak nazioateko WGS-84 koordinatu-

sistemakoak dira. Koordinatu horien eskuragarritasuna herrialdearen arabera alda daiteke.

Lagunduriko GPSa


Telefonoa Lagunduriko GPSa (A-GPS) zerbitzuarekin bateragarria da.

A-GPS funtzioa erabiltzeko sarera konektatzea beharrezkoa da.

Assisted GPS (A-GPS) datu pakete konexio baten bidez laguntzarako datuak lortzeko erabiltzen da, zure telefonoak sateliteen seinalea jasotzen duen zure uneko kokapenaren koordinatuak kalkulatu.

A-GPS zerbitzua aktibatzerakoan, telefonoak satelite-informazio erabilgarria jasotzen du laguntza-datuen zerbitzari batetik sare zelularren bidez. Laguntza datuei esker telefonoak azkarrago lor dezake GPS kokapena.

Telefonoa Nokia A-GPS zerbitzua erabiltzeko aurrekonfiguratuta dago, hornitzailearen beste ezarpen bereziak erabilgarri ez daudenean. Laguntza datuak Nokia A-GPS zerbitzaritik lortzen dira, beharrezkoak direnean soilik.

A-GPS zerbitzua desgaitzeko, hautatu  > Aplikazioak > GPS datuak eta Aukerak > Posizionamendu-ezarp. > Kokatze-erak > Lagunduriko GPSa > Aukerak > Ezgaitu.

Interneteko sargune bat zehaztu behar duzu datu-pakete-konexioaren bidez Nokia A-GPS zerbitzutik datu laguntzaileak jasotzeko. A-GPSrako sargunea posizionamendu ezarpenetan zehatz daiteke. Datu-paketeen

Interneteko sargune puntu bat bakarrik erabil daiteke. Telefonoak Interneteko sargunea aukeratzeko eskatuko dizu GPSa lehenengo aldiz erabiltzerakoan.

Mapak

Ovi Maps

Mapen ikuspegi orokorra



Hautatu  > Mapak.

Ongi etorri Mapetara.

Mapak aplikazioak gertu dagoena erakusten dizu, zure ibilbidearen plangintza egiten lagunduko dizu eta joan nahi duzun tokira gidatuko zaitu.

- Bilatu hiriak, kaleak eta zerbitzuak.
- Aurkitu zure bidea pausoz pausoko jarraibideen bidez.
- Sinkronizatu zure kokapen eta ibilbiderik gogokoenak zure telefonoaren eta Ovi Mapak Interneteko zerbitzuaren artean.
- Begiratu eguraldiaren iragarpena eta tokiko beste informazio batzuk, eskuragarri badaude.

Oharra: Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Baliteke zerbitzu batzuk eskuragarri ez egotea herrialde guztietan, eta hizkuntza batzuetan bakarrik eskaintzea. Zerbitzu horiek sarearen mende egon daitezke. Informazio gehiagorako, jarri zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.

Sateliteko irudiak, gidak, eguraldiari eta trafikoari buruzko informazioa eta bestelako zerbitzuak Nokiarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek sortu dituzte. Baliteke informazioa guztiz osatua eta zehatza ez izatea, eta eskuragarritasunaren araberakoa izango da. Ez sekula informazio honetaz eta erlazionatutako zerbitzuez soilik fida.

Kokapen metodoen inguruan

Maps aukerak zure kokapena erakusten du mapan GPS, A-GPS edo zelularreko IDan oinarritutako kokapena erabilita.

Posizionamendu Globaleko Sistema (GPS) zure kokapena kalkulatzeko erabiltzen den satelite bidezko nabigazio sistema da. Lagunduriko GPSa (A-GPS) zure GPS datuak bidatzen dituen sareko zerbitzua da. Kokapenaren abiadura eta zehaztasuna hobetzen ditu.

Mapak lehenengoz erabiltzerakoan, Interneteko sarbidea zehazteko eskatuko dizu mapak deskargatzeko edo A-GPSa erabili ahal izateko.



aukerak satelitearen seinaleen eskuragarritasuna eta indarra erakusten ditu. Barra bat satelite bat da. Telefonoa satelite seinaleen bila ari denean, barra hori kolorekoa da. Zure kokapena kalkulatzeko nahikoa datu dagoenean eskuragarri, barra berde kolorekoa bilakatzen da. Zenbat eta barra berde gehiago orduan eta fidagarriagoa izango da kokapenaren kalkulua.

Posizionamendu Globaleko Sistema (GPS) Amerikako Estatu Batuetako gobernuak zuzendutakoa da, hau izanik sistema honen zehaztasunaren eta mantentze lanen erantzule bakarra. Estatu Batuetako gobernuak GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzek eragina izan dezakete kokapenari buruzko datuen zehaztasunean, eta hau Irrati-Nabigazio Plan Federalaren eta Estatu Batuetako Defentsa Zibilaren Sailean GPS politikari buruz sortu daitezkeen aldaketen menpe dago. Sateliteen geometria eskasak ere zehaztasunari eragin diezaioke. Zure kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen erabilgarritasun eta kalitatean eragina izan dezakete. Baliteke GPS seinaleak eskuragarri ez egotea eraikinen barruan edo lur azpian eta oztopa daitezke zenbait materialekin, hormigoia eta metala, esaterako.

GPSa ez da erabili behar neurketa zehatz bat egiteko, ez eta GPS hargailuak eta irrati zelularren sareek adierazten dituzten datuetan soilik oinarritzea kokatu edo nabigatzeko.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.


Zelularreko IDan oinarritutako kokapenarekin, kokapena zure telefono mugikorra konektatuta dagoen antenaren dorreak zehazten du.

Kokapena zehazteko eskuragarri dagoen metodoaren arabera, kokapenaren

zehaztasuna metro gutxi batzuetatik hainbat kilometrotara alda daiteke.

Erabili iparrorratza

Gailuak iparrorratza badu, aktibatutakoan, iparrorratzaren geziak eta mapak automatikoki biratzen dute gailuaren goiko aldeak adierazitako norabidean.

Aukeratu  > **Mapak eta Nire kokapena.**

Aktibatu iparrorratza

Sakatu **5**.

Desaktibatu iparrorratza


Sakatu **5** berriro. Mapa iparraldera orientatuta dago.

Iparorratza aktibatuta dago berdez inguratuta agertzen denean. Iparorratza kalibratu egin behar da gorritz edo horiz inguratuta dagoenean. Iparorratza kalibratzeko, biratu gailua ardatz guztien inguruan mugimendu jarrai batekin.

Iparorratza ez da guztiz zehatza. Eredu elektromagnetikoez, metalezko objektuez edo bestelako kanpo-inguruabarrek ere iparrorratzaren zehaztasunean eragin dezakete. Iparorratza behar bezala kalibratuta egon behar da.

Ikusi zure kokapena eta mapa

Ikusi zure uneko kokapena mapan eta arakatu hainbat hiri eta herrialdetako mapak.

Aukeratu  > Mapak eta Nire kokapena.

GPS konexioa aktibatuta dagoenean, irudiak zure uneko kokapena adierazten du mapan. Ikonoaren kolorea ahulduta badago, ez dago GPS seinalerik erabilgarri.

Zelula IDan oinarritutako kokapena soilik badago erabilgarri, kokapen-ikonoaren inguruko eraztun gorriak zehaztuko du zure kokapenaren eremu orokorra. Biztanle askoko eremuetan, estimazioaren zehatzagoa izaten da.

Mapan zehar mugitzea

Erabili nabigazio-tekla. Lehenespén gisa, mapa iparralderantz orientatuta dago.

Zure uneko kokapena edo azken kokapen ezaguna ikusi

Sakatu **0**.

Handiagotzea edo txikiagotzea

Sakatu * edo #.

Gailuan gordeta dituzun mapetan ez dagoen eremu bat arakatzén baduzu eta datu-konexio aktiboa baduzu, mapa berriak deskargatuko dira automatikoki.

Mapen hedapena herrialdearen arabera aldatzen da.


Maparen bista



- 1 Aukeraturako kokapena
- 2 adierazlearen eremua
- 3 Leku interesgarriak (adibidez, tren geltokia edo museoa)
- 4 Informazio eremua.

Maparen itxura aldatzea

Ikusi mapa hainbat modutan, non zauden erraz identifika dezazun.

Aukeratu  > Mapak eta Nire kokapena.

Sakatu **1** eta hautatu aukera hauetariko bat:

Mapa — Maparen ikuspegi estandarrean, zenbait zehetasun, hala nola, kokapenen izenak edo autobideen zenbakiak, erraz irakur daitezke.

Satelitea — Ikuspegi zehatua lortzeko, erabili sateliteko irudiak.

Lursaila — Ikusi begirada batean lur mota, adibidez, errepidetik kanpo bidaiatzen ari zarenean.

2D eta 3D ikuspegiaren artean aldatzea

Sakatu 3.

Bilatu kokapena

Mapak aplikazioak bila ari zaren kokapen zehatzak eta negozio motak aurkitzen laguntzen ditu.

Aukeratu  > **Mapak eta Aurkitu tokiak.**

- 1 Sartu bilaketarako hitzak; kalearen helbideak edo posta kodea, adibidez. Bilaketako eremua garbitzeko, hautatu **Garbitu**.
- 2 Hautatu **Joan**.
- 3 Proposatutako emaitzen zerrendan, joan nahi duzunera. Kokapena mapan bistaratzeko, hautatu **Mapa**.
Bilaketako emaitzaren zerrendako gainerako kokapenak bistaratzeko, joan gora eta behera nabigazio tekla erabilita.

Itzuli proposatutako emaitzen zerrendara.

Hautatu **Zerrenda**.

Bilatu gertu dauden era askotako tokiak


Aukeratu **Arakatu kategoriak** eta kategoria bat; erosketak, ostatua edo garraioa, adibidez.

Ez badu bilaketako emaitzarik aurkitu, egiaztatu bilaketako hitzak ondo idatzi dituzula. Interneteko konexioarekin arazoak izateak ere eragina izan dezake emaitzetan bilaketa sarean eginez gero.

Datuen transferentziako kostuak ekiditeko, bilaketako emaitzak Interneteko konexio aktiborik gabe ere lor ditzakezu bilaketako eremuko mapak telefonoan gordeta baldin badituzu.

Ikusi kokapenen xehetasunak

Ikusi toki edo kokapen jakin bati buruzko informazio gehiago, hala nola, hotelei edo jatetxeei buruzkoa, erabilgarri badago.


Aukeratu  > **Mapak eta Nire kokapena.**

Ikusi tokiaren xehetasunak

Hautatu tokiak, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Erakutsi xehetasunak**.

Ibilbideak antolatzea

Antolatu bidaiak eta sortu ibilbidea, eta ikusi mapan atera aurretik.

Aukeratu  > **Mapak eta Nire kokapena.**

Ibilbideak sortu

- 1 Joan hasiera-puntura.
- 2 Sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Gehitu ibilbideari**.
- 3 Ibilbideko beste puntu bat gehitzeko, hautatu **Gehitu puntu berria** eta aukera egokia.

Ibilbideko puntuen ordena aldatzea

- 1 Joan ibilbideko puntu batera.
- 2 Sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Mugitu**.
- 3 Joan ibilbideko puntua mugitu nahi duzun lekura eta hautatu **Ados**.

Ibilbideko puntuen kokalekua editatzea

Joan ibilbideko puntura, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Editatu** eta aukera egokia.

Ibilbidea mapan ikustea

Aukeratu **Erakutsi**.

Helmugara nabigatu

Hautatu **Erakutsi** > **Aukerak** > **Hasi gidatzen** edo **Hasi oinez**.

Ibilbideen ezarpenak aldatzea

Ibilbidearen ezarpenen araberakoak izango dira nabigazio-jarraibideak eta ibilbidea mapan agertzeko modua.

- 1 Ibilbide-antolatzailearen ikuspegian, ireki Ezarpenak fitxa. Ibilbide-antolatzailearen ikuspegia nabigazio-ikuspegitik lortzeko, hautatu **Aukerak** > **Puntuak** edo **Ibilbideko puntuak**.
- 2 Zehaztu garraiobide mota **Autoz** edo **Oinez** gisa. **Oinez** hautatzen baduzu, bide bakarrek kaleak kale arruntak dira, eta espaloiak eta zeharka daitezkeen ibilbideak erabil daitezke, parkeak eta merkataritza-guneak adibidez.
- 3 Hautatu nahi duzun aukera.

Oinez modua hautatzea

Ireki Ezarpenak fitxa eta hautatu **Oinez** > **Ibilbide hobetsia** > **Kaleak** edo **Marra zuzena**. **Marra zuzena** errepidea ez den eremuan erabil daiteke, oinezko norabidea zehazten baitu.

Gidatzeko ibilbide azkarrena edo motzera erabiltzea

Ireki Ezarpenak fitxa eta hautatu **Autoz** > **Hautatu ibilbidea** > **Ibilbide azkarragoa** edo **Ibilbide laburragoa**.

Gidatzeko ibilbide hobetua erabiltzea

Ireki Ezarpenak fitxa eta hautatu **Autoz** > **Hautatu ibilbidea** > **Optimizatua**.
Gidatzeko ibilbide hobetuak ibilbide motzenaren eta azkarrenaren abantailak tartekatzen ditu.

Halaber, autobideak, tunelak edo ferryak baimentzea edo saihestea aukera dezakezu.

Tokiak eta ibilbideak gordetzea

Gorde helbideak, toki interesgarriak eta ibilbideak geroago azkar erabili ahal izateko.

Aukeratu  > **Mapak**.

Tokiak gordetzea

- 1 Aukeratu **Nire kokapena**.
- 2 Joan kokalekura. Helbide edo toki bat bilatzeko, hautatu **Bilatu**.
- 3 Sakatu nabigazio-tekla.
- 4 Aukeratu **Gorde toki**a.

Ibilbideak gordetzea

- 1 Aukeratu **Nire kokapena**.
- 2 Joan kokalekura. Helbide edo toki bat bilatzeko, hautatu **Bilatu**.
- 3 Ibilbideko beste puntu bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu ibilbideari**.
- 4 Hautatu **Gehitu puntu berria** eta aukera egokia.

- 5 Aukeratu Erakutsi > Aukerak > Gorde ibilbidea.

Gordetako tokiak eta ibilbideak ikustea

Hautatu Gogokoak > Tokiak edo Ibilbideak.

Tokiak edo ibilbideak ikustea eta antolatzea

Erabili Gogokoak gorde dituzun tokietara eta ibilbideetara azkar sartzeko.

Taldekatu tokiak eta ibilbideak bildumetan, adibidez, bidai bat antolatzean.

Aukeratu  > Mapak eta Gogokoak.

Gordetako tokiak mapan ikustea

- 1 Aukeratu Tokiak.
- 2 Joan tokira.
- 3 Aukeratu Mapa.

Gordetako tokien zerrendara itzultzeko, hautatu Zerrenda.

Bildumak sortu

Hautatu Bilduma berria sortu eta sartu bildumaren izena.

Gordetako tokiak bildumetan gehitzea


- 1 Hautatu Tokiak eta tokia.
- 2 Aukeratu Bildumak antolatu.
- 3 Hautatu Bilduma berria edo aurretik duzun bilduma bat.

Tokiak edo ibilbideak ezabatu behar badituzu, edo bilduma batean ibilbide bat

gehitu behar baduzu, zoaz Ovi Mapak Interneteko zerbitzura www.ovi.com helbidean.

Bidali tokiak lagunei

Tokiei buruzko informazioa lagunekin partekatu nahi duzunean, bidali xehetasunak zuzenean haien gailuetara.

Aukeratu  > Mapak eta Nire kokapena

Bidali tokiak zuzenean lagunengailu bateragarrietara

Hautatu kokapena, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu Bidali.

Gogokoak sinkronizatzea

Antolatu bidaia bat ordenagailuan Ovi Mapak webgunean, sinkronizatu gordetako tokiak, ibilbideak eta bildumak gailu mugikorrarekin, eta sartu antolaketa zauden tokian zaudela.

Tokiak, ibilbideak edo bildumak gailu mugikorraren eta Ovi Mapak Interneteko zerbitzuaren artean sinkronizatzeke, Nokia kontu bat behar duzu. Konturik ez baduzu, ikuspegi nagusian, hautatu Aukerak > Kontua > Nokia kontua > Kontu berria sortu.

Gordetako tokiak, ibilbideak eta bildumak sinkronizatzea

Aukeratu Gogokoak > Sinkronizatu Ovi-rekin. Nokia konturik ez baduzu, bat sortzea proposatuko zaizu.

Gailuak ezartzea Gogokoak automatikoki sinkroniza ditzan

Aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Sinkronizazioa** > **Aldatu** > **Irikitzer**. eta **ister**..

Sinkronizatzeak Interneterako konexio aktiboa eskatzen du, eta datu kantitate handiak transmiti daitezke zure zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Ovi Mapak Interneteko zerbitzua erabiltzeko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Partekatu kokapena

Argitaratu zure uneko kokapena Facebook-en, testua eta argazkia gehituta. Zure Facebook-eko lagunek zure kokapena ikus dezakete mapan.

Aukeratu  > **Mapak eta Partekatu kokapena**.

Kokapena partekatzeko, Nokia-ko kontua Facebook-eko kontua behar dituzu.

- 1 Hasi saio Nokia-ko kontuan edo, oraindik konturik ez baduzu, hautatu **Kontu berria sortu**.
- 2 Hasi saioa Facebook-eko kontuan.
- 3 Hautatu uneko kokapena.
- 4 Sartu egoera-eguneratzea.
- 5 Mezuari argazki bat eransteko, hautatu **Gehitu argazkia**.
- 6 Aukeratu **Partekatu kokapena**.

Kudeatu Facebook-eko kontua

Ikuspegi nagusian, hautatu **Aukerak** > **Kontua** > **Partekatu kokapen-ezarpenak** > **Facebook**.

Zure kokapena partekatzeko eta gainerakoen kokapenak ikusteko Interneteko konexioa behar da. Horrek datu kantitate handiak transmiti daitezke, eta ondorioz, datu-trafikoaren kostuak izan ditzake.

Facebook-en baldintzak aplikatzen zaizkio kokapena Facebook-en partekatzeko aukerari. Ezagutu Facebook-en erabilera-baldintzak eta pribatutasun-jardunbideak.

Kokapena besteekin partekatu baino lehen, kontuan izan beti norekin ari zaren partekatzen. Irakurri erabiltzen ari zaren sare sozial zerbitzuaren pribatutasun-ezarpenak, kokapena jende askorekin parteka baitezakezu.

Ahots-laguntza lortzea

Ahots-laguntzak, zure hizkuntzan eskuragarri badago, helmuga batera heltzen laguntzen zaitu, eta aske uzten zaitu bidaiaz goza dezazun.

Hautatu  > **Mapak eta Autoz** edo **Oinez**.

Autoentzako edo oinezkoentzako nabigazioa lehenengoz erabiltzen duzunean, ahots-laguntzaren hizkuntza hautatu eta fitxategi egokiak deskargatu behar dituzu.

Kaleen izenak ematen dituen hizkuntza bat hautatzen baduzu, kaleen izenak ere

ozenki esango zaizkizu. Baliteke ahots-laguntza zure hizkuntzan eskuragarri ez egotea.

Ahots-laguntzaren hizkuntza aldatzea

Ikuspegi nagusian, hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Nabigazioa > Autoentzako jarraibideak edo Oinezko jarraibideak** eta aukera egokia.

Ahots-laguntza autoentzako nabigaziorako errepikatzea

Nabigazio-ikuspegian, hautatu **Aukerak > Errepikatu**.

Ahots-laguntzaren bolumena doitzea autoentzako nabigaziorako

Nabigazio-ikuspegian, hautatu **Aukerak > Bolumena**.

Zure helmugaraino oinez joatea

Ibilbide bat oinez egiteko jarraibideak behar dituzunean, Mapak aplikazioak plazetatik, parkeetatik, oinezkoentzako zonetatik eta merkatal-guneetatik eramaten zaitu.

Aukeratu  > **Mapak eta Oinez**.

Helmugara oinez joatea

Hautatu **Helmuga ezarri** eta aukera egokia.

Etxera oinez joatea

Aukeratu **Oinez joan etxera**.

Etxera gidatu edo **Oinez joan etxera** lehenengoz hautatzen duzunean, zure etxeko kokalekua zehaztea eskatzen

zaizu. Geroago etxeko kokalekua aldatzeko, zera egin:

- 1 Oinarrizko bistan, hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Nabigazioa > Hasierako kokapena: > Aldatu > Berriz zehaztu**.
- 2 Hautatu aukera egokia.

Aholkua: Ezarritako helmugarik gabe oinez joateko, hautatu **Mapa**. Zure kokalekua maparen erdialdean bistaritzen da mugitzen zaren heinean.

Gidatu zure helmugara

Gidaterakoan kalez-kaleko azalpenak behar dituzunean, Mapak funtzioak helmugara heltzen lagunduko zaitu.

Aukeratu  > **Mapak eta Autoz**.

Helmugaraino gidatzea

Hautatu **Helmuga ezarri** eta aukera egokia.

Etxeraino gidatzea

Aukeratu **Etxera gidatu**.

Etxera gidatu edo **Oinez joan etxera** lehenengoz hautatzen duzunean, zure etxearen kokapena zehazteko eskatzen zaizu. Geroago etxearen kokapena aldatzeko, zera egin:

- 1 Oinarrizko bistan, hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Nabigazioa > Hasierako kokapena: > Aldatu > Berriz zehaztu**.
- 2 Hautatu aukera egokia.

Aholkua: Ezarritako helmugarik gabe gidatzeko, hautatu **Mapa**. Zure kokapena maparen erdialdean bistaratzen da mugitzen zaren heinean.

Nabigazioan zehar ikuspegiak aldatzea

Sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **2D Ikuspegia**, **3D Ikuspegia**, **Gezi ikuspegia** edo **Ibilbidearen ikuspegia**.

Errespetatu tokiko arau guztiak. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuenak.

Eskuratu zirkulazioari eta segurtasunari buruzko informazioa

Hobetu zure gidatze esperientzia zirkulazioko gertaeren, bideetako laguntzaren eta abiadura mugaren inguruko oharren inguruko denbora errealeko informazioarekin, zure herrialdean edo eskualdean eskuragarri badago.

Aukeratu  > **Mapak eta Autoz.**

Ikusi trafiko gertaerak mapan

Gidatzeko nabigazioa erabiltzen ari zarenean, hautatu **Aukerak > Traf. inform.**. Gertaerak triangelu eta marra gisa agertzen dira mapan.

Eguneratu trafiko informazioa

Hautatu **Aukerak > Traf. inform. > Eguneratu trafikoa**.

Ibilbide baten plangintza egiten ari zarenean, telefonoa trafikoko arazoak

ekiditeko ezar dezakezu: auto ilarak edo errepideko lanak, esate baterako.

Ekidin trafiko gertaerak

Ikuspegi nagusian, hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Nabigazioa > Berrantol. trafikoagatik**.

Abiadura kameren kokapena ikus dezakezu nabigatzerakoan, funtzioa gaituta izanez gero. Jurisdikzio batzuetan abiadura kameren datuak erabiltzea debekatuta edo araututa dago. Nokia ez da abiadura kameren datuen zehaztasunaren eta ondorioen erantzule izango.

Mugarriak

Mugarriekin, kokapen zehatzei buruzko informazioa gorde dezakezu telefonoan. Gordetako kokapenak talde desberdinetan sailka daitezke (dendak, esate baterako), eta bestelako informazioa gehitu, adibidez, helbideak. Gordetako mugarriak aplikazio bateragarrietan erabil daitezke, adibidez, GPS datuak.

Aukeratu  > **Aplikazioak > Mugarriak**.

GPSeko koordenatuak nazioarteko WGS-84 koordenatu sistemaz adierazten dira.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Mugarri berria — Sortu mugarri berri bat. Uneko kokapenaren eskaera egiteko, **Oraingo kokapena** aukeratu. Kokapena mapan aukeratzeko, aukeratu **Mapan aukeratu**. Kokapenari buruzko

informazioa eskuz idazteko, aukeratu **Eskuz sartu**.

Editatu — Editatu edo gehitu gordetako mugarri baten informazioa (adibidez, kaleko helbide bat).

Kategoriara gehitu — Gehitu mugarri bat kategoriatan Mugarriak atalean. Aukeratu mugarria gehitu nahi duzun kategoriatan.

Bidali — Bidali mugarri bat edo gehiago gailu bateragarri batera. Jasotako mugarriak sarrera ontzian daude, Mezularitza atalean.

Mugarriak aurrez zehaztutako kategorietan sailka daitezke, baita kategoriatan berriak sortu ere. Mugarrien kategoriatan berriak sortzeko eta aldatzeko, ireki kategorien fitxa eta aukeratu **Aukerak > Editatu kategoriak**.

GPS datuak

Ibilbideen gida

Aukeratu  > **Aplikazioak > GPS datuak eta Nabigazioa**.

Ibilbideen gida zeru irekian abiarazi. Leku estali batean abiarazten baduzu, baliteke GPS hartzaileak sateliteetatik behar duen informazio guztia ez jasotzea.

Ibilbideen gidak iparrorratz biragarri bat erakusten du pantailan. Puntu gorri batek helmugarako norabidea adierazten du, eta gutxi gorabeherako distantzia erakutsiko da iparrorratzaren barnean.

Ibilbide gidaritzak ibilbide zuzenena eta motzena erakusten du, marra zuzen baten bidez neurtuta. Ez dira kontutan izango bideko eraikuntzak edo oztopo naturalak. Altitude ezberdintasunak ez

dira kontutan izango distantzia kalkulaterakoan. Ibilbide gidaritza mugitzen ari zarela soilik dago aktibo.

Ibilbidearen helmuga ezartzeko, aukeratu **Aukerak > Helmuga ezarri** eta aukeratu mugarri bat helmuga gisa edo idatzi latitude eta longitude koordenatuak.

Bidaiarako jarritako helmuga ezabatzeko, aukeratu **Nabigazioa eten**.

Bidaia neurgailua

Aukeratu  > **Aplikazioak > GPS datuak eta Bidai**. **distantzia**.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.

Bidai distantziaren kalkulua pizteko edo itzaltzeko, aukeratu **Aukerak > Hasi** edo **Gelditu**. Kalkulatutako balioek pantailan jarraituko dute. Funtzio hau zeru irekian erabili GPS seinale hobea jasotzeko.

Bidaia ireaupena, distantzia, gehienezko abiadura eta batezbestekoa berrezartzeko eta kalkulu berri bat abiarazteko, aukeratu **Aukerak > Berrezarri**. Bidaiaren kilometroak eta denbora guztira zeron ezartzeko, aukeratu **Berrabiarazi**.

Musika eta audioa

Ovi Music

Ovi Musika zerbitzuarekin (sareko zerbitzua), zure telefonoan musika bilatu, arakatu, erosi eta deskarga dezakezu.

Ovi Musika zerbitzuak Musika denda ordeztuko du.

Aukeratu  > Aplikazioak > Ovi musika.

Musika deskargatzeko, lehenik zerbitzuan erregistratu behar zara.

Musika deskargatzean kostu gehigarriak egon eta datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua). Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa lortzeko, jo zure sarearen zerbitzu-hornitzailearengana.

Ovi Music zerbitzuan sartzeko, gailuak Internetarako baliozko sarbidea izan behar du. Baliteke Ovi Music-era konektatzen zarenean erabiliko den sargunea hautatu behar izatea.

Hautatu sarbide-puntua

Hautatu Lehenetsitako sarbidea.

Ovi Music-en ezarpenen erabilgarritasuna eta itxura alda litezke. Ezarpenak aurrez ezarrita ere egon daitezke eta beraz ezingo dituzu aldatu. Ovi Music arakatzean, ezarpenak aldatzeko aukera duzu.

Ovi Music zerbitzuaren ezarpenak aldatu

Hautatu Aukerak > Ezarpenak.

Ovi Music ez dago erabilgarri herrialde edo eskualde guztietan.

Musika erreproduzitzailea Abestiak erreproduzitzea

Hautatu  > Aplikazioak > Mus. errep..

Erabilgarri dauden abestiak musika-liburutegian gehitzeko, hautatu Aukerak > Freskatu liburutegia.

Abesti bat erreproduzitzeko, hautatu nahi duzun kategoria eta abestia.

Erreprodukzioa gelditzeko, gurpila sakatu; jarraitzeko, berriro gurpila sakatu. Erreprodukzioa gelditzeko, behera mugitu.

Aurreratu edo atzeratzeko, gurpila eskuinetara edo ezkerretara luze sakatu.

Hurrengo elementura joateko, mugitu gurpila eskuinera. Elementuaren hasierara itzultzeko, ezkerretara mugitu. Aurreko elementura joateko, berriro ezkerretara mugitu abestia edo podcasta hasi eta bi segundo igaro ondoren.

Erreprodukzioaren tonua aldatzeko, aukeratu Aukerak > Ekualizadorea.

Balantzea eta estereo irudia aldatzeko, edo baxuak nabarmentzeko, hautatu Aukerak > Ezarpenak.


Egonean modu aktibora itzultzeko eta erreproduzitzailea atzealdean funtzionatzen uzteko, sakatu labur amaitzeko tekla.

Abisua:

Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

Say and Play

Say and Play funtzioarekin, nahi duzun musika erreproduzi dezakezu, adibidez artistaren izena ahoskatuz.

Say and Play aplikazioa hasteko, hautatu  > **Aplikazioak** > **Musika-bilak..**

Tonua entzutean, esan artistaren izena, artistaren izena eta abestiaren izenburua, albumaren izenburua edo erreprodukzio-zerrendaren izenburua. Eduki telefonoa zure ahotik 20 zentimetrotara (8 hazbete) eta ahoskatu ohiko tonuan. Ez estali telefonoaren mikrofonoa eskuarekin.


Say and Play lehenengo aldiz erabiltzean, abesti berriak telefonora deskargatu ondoren, ahots-komandoak eguneratzeko, hautatu **Aukerak** > **Freskatu**.

Ahots-komandoak telefonoko abestien metadatuetan oinarritzen dira (artistaren izena eta abestiaren izenburua). Say and Play funtzioak bi hizkuntza onartzen ditu ahots-komandoei dagokienez: ingelesa eta telefonoaren hizkuntza gisa hautatu duzun hizkuntza. Abestiaren metadatuak idazteko hizkuntzak ingelesa edo hautatutako hizkuntzarekin bat etorri behar du.

Aholkua: Bilaketaren zehaztasuna hobetzeko, erabili ahots-komandoak

markatzeko. Markatzailea zure ahotsera egokitzen da eta musika bilatzeko ere erabiltzen du.

Erreprodukzio zerrendak

 Erreprodukzio-zerrenden bidez, abesti-sortak hauta ditzakezu hurrenkera jakin batean erreproduzi daitezten.

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Mus. errep. eta Erreprod.-zerrendak**.

Erreprodukzio zerrenda bat sortu

- 1 Aukeratu **Aukerak** > **Errep.-zerrenda berria**.
- 2 Izena eman erreprodukzio zerrendari eta aukeratu **Ados**.
- 3 Abestiak orain gehitzeko, hautatu **Bai**. Abestiak geroago gehitzeko, hautatu **Ez**.
- 4 **Bai** aukeratzen baduzu, aukeratu artistak zerrendara gehitu nahi dituzun abestiak aurkitzeko. Elementuak gehitzeko, hautatu **Gehitu**.

Artista baten abestiak bistaratu edo ezkutatzeko, hautatu **Zabaldu** edo **Tolestu**.

- 5 Aukeraketa egin ondoren, aukeratu **Eginda**.

Memoria-txartel bateragarri bat sartuta badago, erreprodukzio zerrenda memoria-txartelean gordeko da.

Erreprodukzio-zerrenden xehetasunak ikusi

Aukeratu **Aukerak** > **Errepr.-zerr. xehetas..**

Erreproduzio-zerrenda ikusten ari zarela abestiak gehitu

Aukeratu **Aukerak** > **Gehitu abestiak**.

Abestiak, artistak, generoak edo konpositoreak erreproduzio-zerrendetan gehitu

Hautatu elementu bat eta **Aukerak** > **Gehitu errepr.-zerren.ra** > **Gorderiko errepr.-zerr.** edo **Errep.-zerrenda berria**.

Abestiak erreproduzio-zerrendetik kendu

Aukeratu **Aukerak** > **Kendu**.

Honela abestia ez da telefonotik ezabatuko, zerrendatik baizik.

Erreproduzio-zerrendetako abestiak berrantolatu

- 1 Hautatu mugitu nahi duzun abestia eta **Aukerak** > **Berrantolatu zerrenda**.
- 2 Eraman abestia nahi duzun kokapenera eta hautatu **Jaregin**.
- 3 Beste abesti bat mugitzeko, hautatu abestia eta **Heldu**, mugitu abestia nahi duzun kokapenera eta hautatu **Jaregin**.
- 4 Erreproduzio zerrenda berrantolatzen amaitzeko, aukeratu **Eginda**.

Transferitu ordenagailuko musika

- 1 Egiaztatu memoria-txartel bateragarria telefonoan sartuta dagoela.
- 2 Konektatu telefona ordenagailura Bluetooth bidez edo USB kable bateragarri bat erabiliz. USB kablea

erabiltzen ari bazara, konektatu lehenbizi zure gailura eta ondoren ordenagailura.

- 3 USB datu-kablea erabiltzen ari bazara, hautatu **Multim.-transferentz.** konexio modu gisa.

Multim.-transferentz. hautatzen baduzu konexio modu gisa, Windows Media Player erabil dezakezu musika telefonoaren eta ordenagailuaren artean sinkronizatzeko.

FM irratia**Irratia entzun**

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Irratia**.

Irrati-kateak bilatu

Hautatu  edo .

Gordetako hurrengo edo aurreko irradi-katera joan

Hautatu  edo .

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Aktibatu bozgorailua — Entzun irratia bozgorailua erabiliz.

Eskuzko sintonizazioa — Aldatu frekuentzia eskuz.

Kateen direktorioa — Ikusi irradi kate eskuragarriak kokapenean oinarrituta (sare zerbitzua).

Gorde katea — Gorde uneko irradi-katea.

Kateak — Ikusi gordetako irradi-kateak.

Erreproduzitu atzeald. — Itzuli egonean modura atzealdean FM irratia entzuten ari zaren bitartean.

Irratiaren difusioaren kalitatea irratikatea dagoen lekuaren estalduraren arabera dela.

Dei bat egin edo sarrerako dei bat erantzun dezakezu irratia entzuten ari zaren bitartean. Irratia mututu egingo da deia aktibo dagoen bitartean.

Abisua:


Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

Kamera

Atera argazki bat

Hautatu  > Kamera.

Argazkiak ateratzerakoan kontutan izan:

- Erabili bi eskuak kamera egonkor mantentzeko.
 - Zooma erabilitako argazkien kalitatea zoomik gabeko irudiena baino okerragoa da.
 - Kamera bateria aurrezteko moduan jarriko da minutu batez-edo egonean egon ondoren.
 - Segurtasun distantzia bat manten ezazu flasha erabiltzerakoan. Ez erabili flasha pertsona edo animaliangandik hurbil. Ez estali flasha argazkia ateratzen ari zaren bitartean.
- 1 Bideo-modutik irudi-modura aldatzeko, beharrezkoa bada, hautatu . Paisaia moduan tresna-barra bistaratu edo ezkutatzeko, joan ezker edo eskuinetara.
 - 2 Sakatu nabigazio-tekla. Ez mugitu telefonoa argazkia gorde eta irudia azaldu arte.

Argazkiak bigarren kamerarekin atera

- 1 Hautatu **Aukerak** > **Ordezko kamera erabili**.
- 2 Argazki bat ateratzeko, hautatu **Kapturatu**. Ez mugitu telefonoa argazkia gorde eta irudia azaldu arte.


Argazkiak ateratzean handiagotu edo txikiagotu

Erabili zoom-teklak.

Kamera irekita utzi atzealdean eta bestelako aplikazioak erabili

Sakatu menu tekla. Kamerara itzultzeko, sakatu nabigazio-tekla.

Grabatu bideoak

- 1 Argazki modutik bideo modura aldatzeko, beharrezkoa bada, hautatu argazki modua tresna-barra aktiboan.
- 2 Grabaketa abiarazteko, aukeratu **Hasi**. Ikur gorri bat  agertuko da, grabatzen ari denaren seinale.
- 3 Grabaketa pausatzeko, aukeratu **Eten**. Jarraitzeko, aukeratu **Jarraitu**. Grabaketa eteten baduzu eta ez baduzu teklarik sakatzen minutu batean, grabaketa gelditu egingo da. Irudia handiagotzeko edo txikiagotzeko, erabili zoom-teklak.
- 4 Grabaketa gelditzeko, hautatu **Gelditu**. Bideoklipa automatikoki Argazkiak-n gordetzen da.

Irudiak eta bideoak

Galeriari buruz

Hautatu  > **Galeria** > **Irudiak, bideoak** eta aukera hauetariko bat:

Hartutakoak — Ikusi egin dituzun irudi eta bideoklip guztiak.


Hilabeteak — Ikusi irudiak eta bideoklipak ateratako hilabetearen arabera sailkatuta.

Albumak — Ikusi album lehenetsiak eta zuk sortutakoak.

Etiketak — Ikusi elementu bakoitzarentzat sortu dituzun etiketak.

Deskargak — Ikusi saretik deskargatutako edo multimedia edo mezu elektronikoko gisa jasotako elementuak eta bideoklipak.

Par. on-line — Argitaratu zure irudiak edo bideoklipak sarean.

Zure memoria-txartel bateragarrian (sartuta badago) gordetako fitxategiak  bidez adierazita daude.

Fitxategiak beste toki batera kopiatzeko edo mugitzeko, hautatu fitxategia, **Aukerak** > **Mugitu eta kopiatu** eta sakatu aukera egokia.

Sarean partekatu

Sarean partekatzeari buruz

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Par. on-line**.

Share online zerbitzuarekin (sareko zerbitzua), zure telefonoko irudiak, bideoak eta soinu-klipak bateragarriak diren sareko partekatze-zerbitzuetan

argitara ditzakezu, hala nola, albumetan edo blogetan. Zerbitzu hauetan sarrerak ikus eta sarrerei buruzko zerbait idatz dezakezu, eta idatzi duzuna bateragarria den Nokia gailu batera deskarga dezakezu.

Sarean partekatzeko zerbitzuaren eskuragarritasuna eta eduki mota bateragarriak desberdinak izan daitezke.

Zerbitzuetara harpidetu

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Par. on-line**.

Sareko partekatze zerbitzuetara harpidetzeko, joan zerbitzu hornitzailearen webgunera eta egiaztatu zure Nokia telefonoa zerbitzuarekin bateragarria den ala ez. Sortu kontu bat webgunean adierazi bezala. Kontuarekin zure telefonoa konfiguratzeko beharrezkoak diren erabiltzaile izena eta pasahitza jasoko dituzu.

- 1 Zerbitzu bat aktibatzeko, zure telefonoan ireki Share online aplikazioa eta aukeratu zerbitzu bat eta **Aukerak** > **Aktibatu**.
- 2 Baimendu telefonoa sare konexio bat sor dezan. Internet sargune bat eskatzen bazaizu, aukeratu zerrendako bat.
- 3 Sartu zure kontuan zerbitzu hornitzailearen webgunean esaten dizuten bezala.

Hirugarrenek hornitutako zerbitzuen eskuragarritasun eta kostuei buruzko informaziorako, jarri harremanetan zure

zerbitzu hornitzailearekin edo hirugarrenekin.

Sarrera bat sortu

Aukeratu  > Aplikazioak > Par. on-line.

Zerbitzu bati multimedia fitxategiak bidaltzeko, zerbitzu batera joan eta hautatu **Aukerak** > **Karga berria**. Sareko partekatze zerbitzuak fitxategiak bidaltzeko kanalak hornitzen baditu, aukeratu nahi duzun kanala.

Irudiak, bideo klipak edo soinu klipak sarrerara gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sartu**.

Idatzi elementuaren titulua edo deskribapena, eskuragarri badago.

Sarrerara etiketak gehitzeko, aukeratu **Etiketak**.

Fitxategiaren barneko kokapen informazioa bidaltzea posible egiteko, hautatu **Kokap.**.

Sarrera zerbitzura bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kargatu**.

Nokiaren Bideo Zentroa

Nokiaren Bideo Zentroarekin (sareko zerbitzua), bideoak deskargatu eta zuzenean erreproduzi ditzakezu Interneteko bideo zerbitzu bateragarrietatik, datu pakete konexio bat erabiliz. Bideoak ordenagailu bateragarri batetik telefonora transferi daitezke eta Bideo zentroan ikusi.


Bideoak deskargatzeko datu paketeen sarguneak erabiltzeak zure zerbitzu hornitzailearen saretik datu kantitate handiak bidaltzea esan nahiko luke. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

Telefonoak zerbitzu lehenetsiak eduki ditzake.

Zerbitzu hornitzaileek dohaineko edukia eskain dezakete edo bestela gastuak kobratu. Egiatzatu prezioak zerbitzuan edo galdetu zerbitzu hornitzaileari.

Bideoklipak ikusi eta deskargatu

Bideo zerbitzuetara konektatu

- 1 Aukeratu  > Aplikazioak > **Bid. zentr.**.
- 2 Bideo bat instalatzeko zerbitzu bati konektatzeko, aukeratu **Zerbitzu berriak gehitu** eta nahi duzun bideo zerbitzua aukeratu zerbitzu katalogotik.

Bideoklip bat ikusi

Instalaturako bideo zerbitzuen edukiak arakatzeko, **Bideo iturriak** aukeratu.

Bideo zerbitzu batzuen edukia kategorietan sailkatuta dago. Bideoklipak arakatzeko, kategoria bat aukeratu.

Zerbitzuan bideoklip bat bilatzeko, **Bideo bilaketa** aukeratu. Baliteke bilaketa eskuragarri ez egotea zerbitzu guztietan.

Bideo batzuk zuzenean erreproduzitu daitezke, baina beste batzuk lehenengo telefonora deskargatu behar dira. bideo

bat deskargatzeko, **Aukerak** > **Deskargatu** aukeratu. Aplikazioa irekiz gero, deskargek atzeko planoan jarraitzen dute. Deskargatutako bideoklipak Nire Bideoetan gordetzen dira.

bideo batekin airetik lana egiteko edo deskargatutako bat ikusteko, **Aukerak** > **Erreproduzitu**. aukeratu.

Bideoklipa erreproduzitzerakoan erreproduzigailua kontrolatzeko, aukeraketa-teklak eta korritze-tekla erabili.

Bolumena egokitzeko, bolumenaren tekla erabili.

Abisua:

Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

Deskarga jarraitu — Geldirik dagoen deskarga edo huts egin duena berrabiatu.

Deskarga ezeztatu — Deskarga bat ezeztatu.

Aurrebista — Aurreikusi bideoklip bat. Aukera hau zerbitzuak onartzen badu soilik dago eskuragarri.

Elikatze xehetasunak — Bideoklip baten informazioa ikusi.

Freskatu zerrenda — Bideoklipen zerrenda eguneratu.

Ireki esteka arakatz. — Web arakatzaillean esteka bat ireki.

Deskargak antolatu

Zerbitzu batean bideoklipen deskarga automatiko baten ordutegia ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Antolatu deskargak**.

Bideo Zentroak bideoklipak automatikoki deskargatzen ditu egunero bideo berriak zuk ezarritako orduan.

Antolatutako deskargak ezeztatzeko, aukeratu **Eskuzko deskarga** deskarga modu bezala.

Denbora antolatzea

Egutegia

Egutegiari buruz

Aukeratu  > Egutegia.


Egutegiarekin, antolatutako gertaerak sor eta ikus ditzakezu eta egutegi ikuspegi ezberdinen artean alda dezakezu.

Hilabete ikuspegiaren, egutegi sarrerak hiruki batekin adierazten dira. Urteurren sarrerak harridura ikur batekin adierazten dira. Aukeratzen duzun egunaren sarrerak zerrenda batean agertzen dira.

Egutegi sarrerak irekitzeko, aukeratu egutegi ikuspegi bat eta sarrera bat.

► ikonoa ikusten duzun bakoitzean, zoaz eskuinera eskuragarri dauden aukerak ikusteko. Zerrenda ixteko, mugitu ezkerera.

Egutegi sarrerak sortzea

Hautatu  > Egutegia.

Mota hauetako egutegi sarrerak sor ditzakezu:

- Bilera sarrerak data eta ordu jakina ezarrita duten gertaerak gogorarazten dizkizute.
- Bilera eskaerak parte hartzaileei bidal diezaiekezun gonbidapenak dira. Bilera eskaerak sortu ahal izan baino lehen, gailuan sarrera ontzi bateragarri bat konfiguraturata izan behar duzu.

- Memo sarrerak egun osoari lotuta daude, baina ez egunaren ordu jakin bati.
- Urtemuga sarrerak urtebetetzeak eta data bereziak gogorarazten dizkizute. Egun jakin bati lotuta daude, baina ez egunaren ordu jakin bati. Urtemuga sarrerak urtero errepikatzen dira.
- Egiteko sarrerak epe bat duten ataza bat gogorarazten dizute, baina egunaren ordu jakin bati lotuta ez dagoena.

Egutegi sarrera bat sortzeko, hautatu data bat, **Aukerak** > **Sarrera berria**, eta sarrera mota.


Bilera sarreren lehentasuna ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Lehentasuna**.

Sinkronizatzean sarrera nola kudeatu behar den definitzeko, hautatu **Pribatua** sarrera ezkatatzeko egutegia konektaturata daudenean ikusi ahal badute, **Publikoa** sarrera ikus dezaten, edo **Bat ere ez** sarrera zure ordenagailuan kopiatu ez dadin.

Sarrera gailu bateragarri bati bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

Bilera sarrera baten bilera eskaera burutzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu partaideak**.

Bilera eskaerak sortzea

Hautatu  > Egutegia.

Bilera eskaerak sortu ahal izan baino lehen, gailuan sarrera ontzi bateragarri bat konfiguratuta izan behar duzu.

Bilera eskaera bat sortzeko:

- 1 Bilera sarrera bat sortzeko, hautatu egun bat eta **Aukerak > Sarrera berria > Bilera eskaera**.
- 2 Idatzi parte hartzaileen izenak. Kontaktua zerrenda batetik izenak gehitzeko, idatzi hasierako karaktereak eta hautatu bat datozen aukeren artean. Hautazko parte hartzaileak gehitzeko, hautatu **Aukerak > Gehi aukerako part..**
- 3 Idatzi gaia.
- 4 Idatzi hasiera eta amaiera orduak, edo hautatu **Egun osoa**.
- 5 Idatzi kokalekua.
- 6 Ezarri alarma bat sarrerarentzat, beharrezkoa bada.
- 7 Bilera errepikatu behar bada, ezarri errepikapen-epea eta idatzi amaiera data.
- 8 Adierazi deskribapena.

Bilera eskaeraren lehentasuna ezartzeko, hautatu **Aukerak > Lehentasuna**.

Bilera eskaera bidaltzeko, hautatu **Aukerak > Bidali**.

Egutegiaren ikuspegiak

Aukeratu  > **Egutegia**.

Hurrengo ikuspegiaren artean alda dezakezu:

- Hilabete ikuspegiak uneko hilabetea eta aukeratutako egunaren sarrerak zerrenda batean erakusten ditu.
- aste ikuspegiak gertaerak zazpi egunetako kutxetan erakusten ditu.
- Egun ikuspegiak aukeratutako eguneko gertaerak hasiera dataren arabera sailkatuta erakusten ditu.
- Egitekoen ikuspegiak egiteko elementu guztiak erakusten ditu.
- Agenda ikuspegiak aukeratutako eguneko gertaera guztiak erakusten ditu.


Ikuspegiak aldatzeko, aukeratu **Aukerak > Aldatu ikuspegiak** eta nahi duzun ikuspegiak.

Hurrengo edo aurreko hilabeteko egunera, astera, egunera eta agenda ikuspegiara mugitzeko, aukeratu nahi duzun eguna.

Ikuspegi lehenetsia aldatzeko, aukeratu **Aukerak > Ezarpenak > Ikuspegi lehenetsia**.

Erlojuaren alarma

Aukeratu  > **Aplikazioak > Erlojua**.

Alarma aktiboak eta ez aktiboak ikusteko, ireki alarmaen fitxa. Alarma berri bat ezartzeko, aukeratu **Aukerak > Alarma berria**. Errepikapena zehaztu, nahi izanez gero. Alarma bat aktibatuta dagoenean,  azaltzen da.

Alarma isilarazteko, **Gelditu** aukeratu. Alarma aldi batetarako gelditzeko, **Errepikatu** aukeratu.

Alarmak jotzerakoan telefonoa itzalita badago, bere kasa piztuko da eta alarmaren tonua joko du.

Aholkua: errepikatu moduan ezarritako alarmaren errepikapen maiztasuna zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Alarma errepika. tarte.**

Alarma bertan behera uzteko, aukeratu **Aukerak** > **Alarma kendu.**

Ordua, data eta erloju motaren ezarpenak aldatzeko **Aukerak** > **Ezarpenak** aukeratu.

Zure mugikorraren ezarpenetan ordua, data eta ordu-zona automatikoki eguneratzeko (sare zerbitzua), aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Ordu-eguneratze autom.** > **Aktibatu.**

Erlojuaren ezarpenak

Aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak.**

Ordua edo data aldatzeko, aukeratu **Ordua edo Data.**

Hasiera pantailan agertzen den erlojua aldatzeko, aukeratu **Erloju mota** > **Analogikoa edo Digitala.**

Telefono mugikorraren sareak ordua, data eta ordu-zona eguneratzeko (sare zerbitzua), aukeratu **Ordu-eguneratze autom.** > **Aktibatu.**

Alarma tonua aldatzeko, aukeratu **Erlojuaren alarma-tonua.**

Bulegoko aplikazioak

PDF reader


Aukeratu  > Aplikazioak > Bulegoa > Adobe PDF.

PDF reader aplikazioarekin, PDF dokumentuak telefonoaren pantailan irakurri, dokumentuetan testua bilatu, ezarpenak aldatu (zooma, orrien ikuspegia, etab.) eta PDF fitxategiak mezu elektronikoko bidez bidal ditzakezu.

Hiztegia

Hitzak hizkuntza batetik bestera itzul ditzakezu. Baliteke hizkuntza guztiak ez onartzea.

Bilatu itzuli beharreko hitz bat

- 1 Aukeratu  > Aplikazioak > Bulegoa > Hiztegia.
- 2 Sartu testua bilaketa-eremuan. Testua sartzen duzun bitartean, hitz proposamenak agertuko dira.
- 3 Hautatu hitza zerrendan.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

Entzun — Entzun aukeratutako hitza.

Historia — Bilatu uneko saioan lehenago itzulitako hitzen bat.

Hizkuntzak — Hautatu jatorri edo xede hizkuntza, deskargatu hizkuntzak Internetetik edo kendu hiztegioko hizkuntza bat. Ezin duzu ingelesa hiztegitik ezabatu. Ingelesaz gain beste bi hizkuntza instala ditzakezu.

Hizketa — Editatu ahots funtzioen ezarpenak. Ahotsaren abiadura eta bolumena doi ditzakezu.

Quickoffice buruz

Aukeratu  > Aplikazioak > Bulegoa > #Quickoffice.

Hauek osatzen dute Quickoffice:

- Quickword, Microsoft Word dokumentuak ikusteko
- Quicksheet, Microsoft Excel kalkulu-orriak ikusteko
- Quickpoint, Microsoft PowerPoint aurkezpenak ikusteko
- Quickmanager, softwarea erosteko

Quickoffice-ren editore bertsioa baldin badaukazu, fitxategiak editatu ditzakezu.


Ez ditu edozein ezaugarri edo formatutako karpetak onartzen.

Bihurgailua

Bihurgailuarekin neurriak unitate batetik bestera bihur ditzakezu.


Bihurgailuak zehaztasun mugatua du eta biribiltze erroreak izan ditzake.

Moneta bihurtu

- 1 Hautatu  > Aplikazioak > Bulegoa > Bihurgailua eta Aukerak > Bihurketa mota > Moneta.
- 2 Hurrengo unitate eremuan, zein monetara bihurtu nahi duzun aukeratu.
- 3 Lehenengo Kopurua eremuan, idatzi bihurtu nahi duzun balioa. Bigarren Kopurua eremuak automatikoki erakutsiko du bihurtutako balioa.

Bihurtu neurriak

Neurriak unitate batetik bestera bihurtzakezu, hala nola luzera.

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Bihurgailua**.

- 1 Mota eremuan, hautatu erabili nahi duzun neurria.
- 2 Lehenengo Unitatea eremuan, hautatu bihurtu nahi duzun unitatea.
- 3 Bigarren Unitatea eremuan, hautatu zer unitate bihurtu nahi duzun.
- 4 Lehenengo Kopurua eremuan, idatzi bihurtu nahi duzun balioa. Bigarren Kopurua eremuak automatikoki erakutsiko du bihurtutako balioa.

Kalkulagailua

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Kalkulag.**

Kalkulagailuaren doitasuna mugatua da, eta kalkulu errazak egiteko soilik balio du.

Eragiketa bat egiteko, eragiketaren lehenengo zenbakia idatzi. Funtzioen mapan egin nahi duzun eragiketa aukeratu, adibidez batuketa edo kenketa. Eragiketaren bigarren zenbakia aukeratu eta = sakatu. Kalkulagailuak eragiketak idazteko erabilitako ordena jarraitzen du. Eragiketaren emaitza edizio eremuan geldituko da eta hurrengo eragiketaren lehenengo zenbaki bezala erabil daiteke.

Telefonoak azken eragiketaren emaitza memorian gordetzen du. Kalkulagailutik ateratzek edo gailua itzaltzek ez du memoria ezabatzen. Kalkulagailua berriro irekitzen duzunean gordetako azken

emaitza berreskuratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Azken emaitza**.

Eragiketa baten zenbakiak edo emaitzak gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memoria** > **Gorde**.

Memorian gordetako emaitzak berreskuratzeko eta ondorengo eragiketan erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memoria** > **Berreskuratu**.

Ohar aktiboak

Ohar aktiboet buruz



Hautatu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.**

Ohar aktiboekin argazkiak, soinuak eta bideoak dituzten oharrak sor ditzakezu. Oharrak kontaktuei lot diezazkiekezu. Oharra kontaktuekin hitz egiterakoan erakutsiko da.

Oharrak sortu eta editatu

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.**

Oharrak sortu

Idazten hasi.

Oharrak editatu

Hautatu **Aukerak** > **Editatze aukerak**.

Letra lodia, etzana edo azpimarratua gehitu

Eduki sakatuta # eta mugitu testua hautatzeko. Ondoren, hautatu **Aukerak** > **Testua**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Txertatu objektua — Txertatu elementuak oharrean.

Bidali — Bidali oharra gailu bateragarri batera.

Lotu oharra deiarri — Aukeratu **Gehitu kontaktuak** ohar bat kontaktu bati lotzeko. Dei bat egiterakoan edo kontaktuaren dei bat jasotzerakoan agertuko da oharra.

Ohar aktiboen ezarpenak

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.** eta **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Oharrak non gorde nahi dituzun hautatu

Hautatu **Erabilitako memoria** eta nahi duzun memoria.

Ohar aktiboen diseinua aldatu

Hautatu **Aldatu ikuspegia** > **Sareta** edo **Zerrenda**.

Oharrak bistaratu telefono-deiak egiten dituzun bitartean

Hautatu **Erak. oharra deian zehar** > **Bai**.

Aholkua: aldi baterako deietan zehar oharrak ikusi nahi ez badituzu, aukeratu **Erak. oharra deian zehar** > **Ez**. Modu honetan, ez dituzu oharren eta kontaktu-txartelen arteko estekak ezabatu behar.


Oharrak Oharrei buruz



Hautatu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Oharrak**.

Oharrak idatzi eta jasotako testu arrunteko fitxategiak (.txt formatuan) Oharrak aplikazioan gorde ditzakezu.

Idatzi ohar bat

- 1 Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Oharrak**.
- 2 Hasi testua sartzen. Oharren editorea automatikoki irekiko da.

Kudeatu oharrak

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Oharrak**.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

Ireki — Ireki oharra.


Bidali — Oharra gailu bateragarrietara bidaltzea.

Ezabatu — Ohar bat ezabatu. Hainbat nota ezaba ditzakezu aldi berean. Ezabatu nahi dituzun oharrak markatzeko, hautatu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** eta ezabatu oharrak.

Sinkronizazioa — Sinkronizatu oharrak gailu bateragarrietako aplikazio bateragarriekin edo zehaztu sinkronizazio ezarpenak.

Zip kudeatzailea



 > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Zip aukeratu**.

Zip kudeatzailearekin fitxategi berriak sor ditzakezu konprimitutako ZIP formatuko

fitxategiak gordetzeko; artxibo batean konprimitutako fitxategi edo direktorio bat baino gehiago gehitu; babestutako fitxategien pasahitza ezarri, garbitu edo alda dezakezu, eta ezarpenak aldatu, adibidez erabilitako konpresio-maila.

Fitxategiak telefonoaren memorian edo memoria-txartel batean gorde ditzakezu.

Ezarpinak

Aplikazioen ezarpinak

Aukeratu  > Ezarpinak > Ezarpinak eta Aplikazioak.

Zerrendako aplikazio bat aukeratu ezarpinak doitzeko.

Telefonoaren eta SIM txartelaren segurtasuna

Hautatu  > Ezarpinak > Orokorra > Segurtasuna.

PIN kodea aldatzeko, hautatu **Telefonoa eta SIM txart.** > **PIN kodea.** Kodeak 4-8 digitukoa izan behar du. PIN kodeak SIM txartela babesten du baimenik gabeko erabilerraren aurka eta SIM txartelarekin eskuratzen da. PIN kodea hiru aldiz jarraian gaizki idazten baduzu, kodea blokeatu egingo da eta PUK kodea beharko duzu desblokeatu eta SIM txartela berriro erabili ahal izateko.

Zehaztutako tartearen ondoren teklatura automatikoki blokea dadin, hautatu **Telefonoa eta SIM txart.** > **Tekl. autoblokeo tartea.**

Teklatura automatikoki blokeatu aurreko denbora tartea zehazteko, hautatu **Telefonoa eta SIM txart.** > **Tekl. autoblokeo tartea.** Blokeo kode zuzena idatzi arte ezingo da telefonoa berriro erabili. Idatzi tartearen iraupena minututan edo hautatu **Bat ere ez blokeo automatikoaren funtzioa desaktibatze**ko. Gailua blokeatuta dagoenean, jasotako deiak erantzun ditzakezu eta programatutako zenbakietara larrialdi deiak egin ditzakezu.

Blokeo kodea aldatzeko, hautatu **Telefonoa eta SIM txart.** > **Blokeatzeko kodea.** Blokeo kode lehenetsia 12345 da. Idatzi unek kodea eta idatzi kode berria birritan. Kode berriak 4-255 karaktere izan behar ditu. Alfa-zenbakizko karaktereak (maiuskulak eta minuskulak) erabil daitezke. Blokeo kodeak formatu egokia izan ezean, telefonoak jakinaraziko zaitu.

Osagarri arrunten ezarpinak

Hautatu  > Ezarpinak > Ezarpinak eta Orokorra > Osagarriak.

Osagarri gehienekin, honakoa egin dezakezu:


Gailura osagarri bat konektatzerakoan zein profil aktibatzen den zehazteko, hautatu osagarria eta **Profil lehenetsia.**

Osagarri bat instalatuta dagoenean 5 segundo ondoren gailuak automatikoki telefono-deiak erantzun ditzan, hautatu **Erantzun automatikoa** > **Aktibatu.** Deitonu mota **Behin bip egin** edo **Isilik** gisa ezartzen bada hautatutako profilean, erantzun automatikoa desgaituko da.

Gailua osagarri bati konektatuta dagoen bitartean argitzeko, hautatu **Argiak** > **Aktibatu.**

Eskuragarri dauden aukerak osagarriaren arabekoak dira.

Jatorrizko ezarpenak berrezartzea

Gailuaren jatorrizko ezarpenak berrezartzeko, aukeratu  > **Ezarpenak > Ezarpenak eta Orokorra > Fabrikako ezarp.** Honetarako, gailuaren blokeo kodea beharrezkoa da. Berrezarri ondoren, gailuak pizteko denbora gehiago beharko du. Honek ez du dokumentuetan, kontaktu informazioan, egutegi sarreretan eta beste fitxategietan eraginik.

Datuen kudeaketa

Instalatu edo kendu aplikazioak

Aplikazioak instalatu

Hautatu  > Aplikazioak > Instalazioak > Aplik. kudtz..

Instalazio fitxategiak telefonora bidaltzeko modu desberdinak daude: bidali ordenagailu bateragarri batetik, deskargatu arakatzean, jaso multimedia mezu gisa, jaso mezu elektronikoko batean eranskin gisa, baita bestelako konexio metodoak erabilia ere, adibidez, Bluetooth bidez. Nokia Application Installer erabil dezakezu Nokia Ovi Suite programarekin telefonoan aplikazio bat instalatzeko.

Aplikazio kudeatzaileko ikonoek ondorengoa adierazten dute:



SIS edo SISX aplikazioa

Java™ aplikazioa

Garrantzitsua: Seguruak diren iturrietako aplikazio eta softwareak soilik instalatu eta erabili. Symbian Signed edo Java Verified™ aplikazioen proba gainditu dutenak, adibidez.

Instalatu aurretik, ondorengoak kontutan izan:

- Aplikazio mota, bertsio-zenbakia eta hornitzailea edo egilea ikusteko, hautatu **Aukerak > Xehetasunak ikusi**.


Aplikazioaren segurtasun-ziurtagiriaren xehetasunak bistaratzeko, hautatu

Xehetasunak: > Ziurtagiriak: > Xehetasunak ikusi.

- Dagoeneko instalatuta dagoen aplikazio baten eguneratze edo konponketa fitxategi bat instalatzen baduzu, jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, jatorrizko fitxategia edo ezabatutako software paketearen segurtasun kopia izan beharko duzu. Jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, ezabatu aplikazioa eta instalatu berriro aplikazioa, jatorrizko instalazio fitxategia edo segurtasun kopia erabilia.

JAR fitxategia beharrezkoa da Java aplikazioak instalatzeko. Hau falta bada, baliteke gailuak deskargatzeko eskatzea. Aplikazioarentzako ez bada sargunerik zehaztu, bat aukeratzeko eskatuko zaizu. JAR fitxategia deskargatzean, baliteke erabiltzaile-izena eta pasahitza behar izatea zerbitzarian sartzeko. Hauek aplikazioaren hornitzaile edo fabrikatzaileak emango dizkizu.

Software edo aplikazio bat instalatzeko, jarraitu hurrengo urratsak:

- 1 Instalazio fitxategi bat aurkitzeko, aukeratu  > Aplikazioak > Instalazioak > Aplik. kudtz.. Bestela, bilatu instalazio-fitxategiak Fitxategi kudeatzailean edo hautatu **Mezularitza > Sarrera ontzia** eta ireki instalazio-fitxategia duen mezua.
- 2 Aplikazio kudeatzailean, hautatu **Aukerak > Instalatu**. Beste aplikazioetan, aukeratu instalazio fitxategia eta abiatu instalazioa.

Instalazioan zehar, telefonoak instalazio-prozesuaren berri emango dizu. Sinadura edo ziurtagiri digitalik ez duen aplikazio bat instalatzen baduzu, telefonoak ohar bat erakutsiko dizu. Jarraitu instalazioarekin, beti ere aplikazioaren jatorria eta edukia seguruak direla badakizu.

Instalatutako aplikazio bat abiarazteko, kokatu aplikazioa menuan eta aukeratu ezazu.

Hautatu **Aukerak** > **Erregistroa ikusi** instalatu edo ezabatu diren software-paketeak eta data ikusteko.

Garrantzitsua: Zure telefonoak birusen aurkako aplikazio bakarra onartzen du. Birusen aurkako aplikazio bat baino gehiago instalatuz gero, telefonoaren jarduna kaltetu liteke, eta telefonoak funtzionatzeari utz liezaioke.

Memoria-txartel bateragarri batean aplikazioak instalatu eta gero, instalazio-fitxategiak (.sis, .siss) telefonoaren memorian geratzen dira. Fitxategiek memoria handia har dezakete, beste fitxategi batzuk gordetzea eragotziz. Behar adina memoria izateko, erabili Nokia Ovi Suite instalazio fitxategien segurtasun kopia PC bateragarri batean gordetzeko eta ezabatu instalazio fitxategiak telefonoko memoriatik fitxategi kudeatzailea erabiliz..sis fitxategia mezu baten eranskina bada, ezabatu mezua postontziko Mezularitza postontzitik.

Aplikazioak eta softwarea ezabatu

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Instalazioak** > **Aplik. kudtz.**

Joan software-paketera eta hautatu **Aukerak** > **Desinstalatu**. Baieztatzeko, hautatu **Bai**.

Softwarea ezabatzen baduzu eta gero berriro instalatu nahi baduzu, jatorrizko instalazio fitxategia edo software paketearen babeskopia oso bat beharko duzu. Software pakete bat ezabatzen baduzu, ezin izango dituzu software horrekin sortutako dokumentuak ireki.

Software pakete baten bat ezabatu duzunaren menpe bazegoen, baliteke softwareak gehiago ez funtzionatzea. Informazio gehiagorako, irakurri instalatutako software-paketearen dokumentazioa.

Aplikazio kudeatzailearen ezarpenak

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Instalazioak** > **Aplik. kudtz.**

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetarik bat:

Softwarea instalatzea — Egiaztatutako sinadura digitala ez duen Symbian softwarea instala daitekeen aukeratu.

Ziurtagir. sareko egiazt. — Begiratu ziurtagiri elektronikoak aplikazioak instalatu baino lehen.

Lehenets. web helbidea — Sareko ziurtagiriak egiaztatzerakoan erabiltzen den helbide lehenetsia ezarri.

Baliteke hainbat Java aplikazioen kasuan, mezu bat bidali behar izatea edo sarbide-puntu jakin bati sare-konexioa ezarri

behar izatea datu gehiago edo osagaiak deskargatzeko.

Fitxategien kudeatzailea Fitxategi kudeatzailea

Aukeratu  > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat.-kud..

Fitxategi kudeatzailearekin, fitxategiak araka, kudea eta ireki ditzakezu.

Aukerak aldatu egin daitezke.

Driverrak ezabatu edo agertarazteko, edo telefonora konektatuta dagoen kanpoko memoria bateragarriaren ezarpenak zehaztu edo unitateak antolatu edo ezabatzeko **Aukerak** > **Urruneko unitateak** aukeratu.

Fitxategiak aurkitu eta antolatu

Hautatu  > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat.-kud..

Fitxategi bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Aurkitu**. Hautatu bilaketa non egin behar den, eta sartu fitxategiaren izenarekin bat datorren bilaketa-terminoa.

Fitxategiak eta karpetak mugitzeko edo kopiatzeko, edo karpetak sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Antolatu**.

Lasterbidea: Ekintzak aldi berean hainbat elementurekin burutzeko, markatu elementuak. Elementuak markatzeko eta desmarkatzeko, sakatu #.

Memoria-txartel batean fitxategien babeskopiak egin

Aukeratu  > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat.-kud..

Fitxategien babeskopiak memoria-txartel batean egiteko, aukeratu kopiatu nahi dituzun fitxategi motak eta **Aukerak** > **Tel. mem. segur. kopia**. Babeskopiak sortzeko aukeratu dituzun fitxategientzako zure txartel memorian memoria libre nahiko dagoela ziurtatu.

Memoria-txartelak kudeatu

Aukeratu  > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat.-kud..

Aukera hauek gailuan memoria-txartel bateragarria sartu bada bakarrik daude eskuragarri.


Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

Mem. txartel. aukerak — Memoria-txartel bati izena aldatu edo formateatu.

Memor.-txart. pasahitza — Memoria-txartela pasahitz batekin babestu.

Desblok. mem.-txartela — Memoria-txartel bat desblokeatu.

Gailuen kudeatzailea Urruneko konfigurazioa

Hautatu  > Ezarpenak > Gailu kudeatzailea.

Gailuen kudeatzailearekin telefonoko ezarpenak, datuak eta softwarea urrunetik kudea ditzakezu.

Zerbitzari batera konekta zaitzke telefonoko konfigurazio-ezarpenak jasotzeko. Zerbitzu hornitzaileak edo

enpresako informazio kudeaketa sailak zerbitzarien profilak eta konfigurazio-ezarpenak bidal diezazkizukete. Konfigurazio-ezarpenek telefonoko aplikazioek erabiltzen dituzten konexio-ezarpenak edo bestelako ezarpenak izan ditzakete. Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Urruneko konfiguraziorako konexioa zerbitzariak abiarazi ohi du, telefonoaren ezarpenak eguneratu behar direnean.

Zerbitzariaren profil bat sortzeko, hautatu **Aukerak > Zerbitzari-profilak > Aukerak > Zerbitzari-profil berria.**

Zerbitzu-hornitzaileak konfigurazio-mezu bat ere bidal diezazuke ezarpenekin. Honela ez bada, zehaztu datu hauek:

Zerbitzariaren izena — Idatzi konfigurazio-zerbitzariaren izena.

Zerbitzariaren IDa — Idatzi konfigurazio-zerbitzariaren ID errepikaezina.

Zerbitzariaren pasahitza — Idatzi telefonoa zerbitzarian identifikatzeko pasahitza.

Sarbidea — Hautatu konektatzeko erabili beharreko sarbide puntua edo sortu sarbide puntu bat. Konektatzen zaren bakoitzean sarbide puntua aukeratzeko eskatzea hauta dezakezu. Datu-eramailetzat Internet hautatzen baduzu soilik izango duzu ezarpen hau eskuragarri.

Ostalariaren helbidea — Idatzi konfigurazio-zerbitzariaren web helbidea.

Ataka — Idatzi zerbitzariaren atakazentzakia.

Erabiltzailearen izena eta Pasahitza — Idatzi konfigurazio-zerbitzarian dituzun erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Baimendu konfigurazioa — Hautatu Bai zerbitzariari konfigurazio-saioa abiaraztea baimentzeko.

Onartu auto. esk. denak — Hautatu Bai konfigurazio-saioa abiaraztean zerbitzariak baieztapenik eskatzea nahi ez baduzu.

Sare-autentifikazioa — Hautatu http autentifikazioa erabili ala ez.

Sare-erabiltzailearen iz. eta Sare-pasahitza — Idatzi autentifikaziorako erabiltzaile-izena eta pasahitza. **Sare-autentifikazioa** erabiltzea hautatzen baduzu soilik izango duzu ezarpen hau eskuragarri.

Zerbitzarira konektatzeko eta telefonoaren konfigurazio-ezarpenak jasotzeko, hautatu **Aukerak > Konfigurazioa hasi.**

Hautatutako profilaren konfigurazio-erregistroa ikusteko, hautatu **Aukerak > Erregistroa ikusi.**

Telefonoaren softwarea hari gabeko konexio bidez eguneratzeko, hautatu **Aukerak > Eguneratzeak bilatu.** Eguneratzeak ez ditu zure ezarpenak ezabatzen. Telefonoan eguneratze-paketea jasotakoan, jarraitu pantailako argibideak. Instalazioa osatutakoan telefonoa berrabiarazi egiten da.

Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua).

Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiaztatu edo kargagailura konektatu.

Abisua:

Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da telefonoa erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa amaitu eta telefonoa berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun-kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu aurretik.

Eduki babestua

Eskubide digitalen kudeaketa edo DRM lizentziaz babestutako edukiek, esaterako, multimedia-fitxategi batzuek (irudiak, musika edo bideoak) edukio erabiltzerakoan dituzun eskubideak zehazten dituzten lizentzia dute lotuta.

Lizentzien xehetasunak eta egoera ikus ditzakezu, bai eta lizentziak berraktibatu eta kendu ere.

Eskubide digitalen lizentziak kudeatu

Hautatu  > Aplikazioak > Lizentziak.

Eskubide digitalen kudeaketa

Edukien jabe batzuek DRM edo eskubide digitalen kudeaketa (Digital Rights Management) teknologia ezberdinak erabil ditzakete, copyrightak barne, beraien jabetza intelektuala babesteko. Gailu honek DRM software desberdinak

erabiltzen ditu DRM-arekin babestutako edukiak atzitzeko. Telefono honekin OMA DRM 1.0 eta 2.0 bidez babestutako edukiak ikus ditzakezu. DRM softwarearen batek edukirik babesten ez badu, eduki honen jabeek DRM-en aurka babestutako edukira sartzeko DRM software honek duen gaitasuna baliogabetzeko eskatzeko eskubidea dute. Honek DRM-arekin babestutako eduki hori berriz zure telefonoan berriztea saihas dezake. DRM software hori baliogabetzeak ez du eraginik beste mota batzuetako DRM-arekin babesturiko edo babestu gabeko edukiak erabiltzerakoan.


Eskubide digitalen kudeaketak (DRM) babestutako edukiak, berari dagokion lizentzia bat dauka edukia erabiltzeko zure eskubideak azalduz.

Telefonoak OMA DRM bidez babestutako edukia badu, aktibazio-gakoen eta edukiaren segurtasun-kopiak egiteko erabili Nokia Ovi Suiteko funtzioa.

Zenbait lizentzia SIM txartel jakin bati lotuak egon daitezke, eta eduki babestua SIM hori telefonoan sartzen bada bakarrik ikusi ahal izango da.

Laguntza bilatu

Laguntza

Zure produktua erabiltzeko informazioa nahi baduzu edo zure gailuak nola funtzionatu beharko lukeen jakin nahi baduzu, joan www.nokia.com/support helbidera, www.nokia.mobi/support helbidera mugikorra erabiliz gero, edo zure telefonoan, hautatu  > **Laguntza** > **Laguntza**.

Modu honetan arazoa konpontzea lortzen ez baduzu, egin hurrengo ekintzetako bat:


- Berrezarri jatorrizko ezarpenak.
- Eguneratu gailuaren softwarea.

Honela ere arazoa konpontzen ez bada, jarri harremanetan Nokia-rekin konpontzeko aukera gehiago lortzeko. Ikus www.nokia.com/repair. Gailua konpontzera bidali aurretik, egin beti gailuaren datuen babeskopia.

Gailuaren softwarea eta aplikazioak eguneratuta izatea

Gailuaren softwarearen eta aplikazioen eguneratzeei buruz

Gailuaren softwarearen eta aplikazioen eguneratzeekin, eginbide berriak eta funtzio hobetuak lor ditzakezu zure telefonoarentzat. Softwarea eguneratzeak gailuaren funtzionamendua ere hobe dezake.



Gailuaren softwarea eguneratu aurretik, zure datu pertsonalen babeskopia egitea gomendatzen da.

Abisua:

Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da telefonoa erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa amaitu eta telefonoa berrabiarazi arte. Egiatzatu datuen segurtasun-kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu aurretik.


Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua).

Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiatzatu edo kargagailura konektatu.


Gailuaren softwarea edo aplikazioak eguneratu ondoren, baliteke

erabiltzailearen gidako argibideak eguneratuta ez egotea.

Gailuaren softwarea eta aplikazioak eguneratzea gailua erabiliz

 Gailuaren softwarearentzat edo banakako aplikazioentzat eguneratzerik eskura dezakezun egiazta dezakezu eta, ondoren, deskargatu eta gailuan instala ditzakezu (sareko zerbitzua). Gainera, gailua ezar dezakezu automatikoki eguneratzeak egiazta ditzan eta eguneratze garrantzitsu edo gomendagarriak eskuragarri daudenean abisa zaitzan.

Hautatu  > Ezarpenak > SW-eguner..

Eguneratze eskuragarriak egotekotan, hautatu zeintzuk deskargatu eta instalatu nahi dituzun, eta hautatu .

Gailua ezartzea eguneratzeak automatikoki egiazta ditzan

Hautatu **Aukerak** > Ezarpenak > Bilatu eguner. automat..


Softwarea eguneratzea PCa erabiliz

Nokia Software Updater PC aplikazioa erabil dezakezu gailuaren softwarea eguneratzeko. Gailuaren softwarea eguneratzeko, PC bateragarri bat, Interneteko banda zabaleko konexioa eta gailua PCra konektatzeko USB datu-kable bateragarri bat behar dituzu.

Informazio gehiagorako eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, ikus www.nokia.com/softwareupdate helbidea.

Telefonoko laguntza

Telefonoak aplikazioak erabiltzen laguntzeko argibideak dauzka.



Menu nagusitik laguntza irekitzeko, aukeratu  > **Laguntza** > **Laguntza** eta argibideak behar dituen aplikazioa.

Aplikazio bat irekita dagoela, uneko ikuspegiaren laguntzara sartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Laguntza**.

Argibideak irakurtzen ari zarenean, laguntza testuaren tamaina aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Letra tamaina txikitu** edo **Letra tamaina handitu**.

Baliteke laguntza testuaren amaieran lotutako gaietarako estekak aurkitzea. Azpimarratutako hitz bat aukeratzen baduzu, azalpen labur bat azalduko da.

Laguntzak ondorengo adierazleak erabiltzen ditu:

-  Lotutako laguntza gai baterako esteka.
-  Dagokion aplikaziorako esteka.

Jarraibideak irakurtzerakoan, laguntza testuen eta hondoan irekita dagoen aplikazioaren artean aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Erakutsi irekit. aplik.** eta nahi duzun aplikazioa.

Aholku berdeak



Aurreztu energia

Ez duzu bateria hain maiz kargatu beharko ondorengoak eginez gero (zure telefonorako erabilgarri badaude):

- Itxi aplikazioak eta datu-konexioak erabiltzen ez dituzunean, adibidez, Bluetooth konexioa.
- Murriztu pantailaren argitasuna.
- Zure telefonoan erabilgarri badago, ezarri zure telefonoa energia-aurrezle moduan jar dadin inaktibitate tarte baten ondoren.
- Desaktibatu beharrezkoak ez diren soinua, esaterako, teklen tonuak.

Birziklatu

Gailu honen material guztiak material eta energia gisa berreskura daitezke. Zure Nokia produktu zaharrak birziklatzeari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.nokia.com/werecycle helbidera edo, gailu mugikorra erabiliz, www.nokia.mobi/werecycle helbidera.

Birziklatu kaxa eta erabiltzailearen gidak zure tokiko birziklatze-zentroan.



Telefonoaren dokumentu zein kaxan edo baterian agertzen den gurutze batez

estalitako zaborrontziak gogorazten du produktu elektriko edo elektronikoak, bateriak eta metagailuak biltegi berezietara eraman behar direla funtzionatzeari uzten diotenean. Eskakizun hori Europar Batasunean aplikatzen da. Produktu hauek ezin dira sailkatu gabeko udal-zabortegetian bota. Telefonoaren ingurumenarekiko eraginari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.nokia.com/ecomdeclaration helbidera.

Produktu- eta segurtasun-informazioa

Osagarriak

Bateria

Bateria eta kargagailuaren informazioa

Telefonoa bateria kargagarri batekin elikatzen da. Telefono honekin erabili beharreko bateria BL-5CT da. Baliteke Nokia bateria modelo gehiago eskuragarri izatea telefono honentzat. Telefono hau ondorengo bateriek emandako energiarekin erabili behar da: AC-8, AC-15. Kargagailuaren modelo zenbakia ezberdina izan daiteke entxufe motaren arabera. Entxufe ezberdinak ondorengo bidez identifikatzen dira: E, EB, X, AR, U, A, C, K edo UB.

Bateria behin eta berriro karga edo deskarga daiteke, baina azkenean agortu egiten da. Hitz egiteko eta egoneko tarreak ohi baino nabarmen laburragoak badira, bateria aldatu egin beharra dago. Erabili soilik Nokia onartutako bateriak eta kargatu bateria Nokiai zure telefonorako diseinatutako kargagailu homologatuekin soilik.

Bateria lehenengo aldiz erabiltzeko, edo bateria luzaroan erabili ez baldin bada, beharbada kargagailua konektatu, deskonektatu eta berriz ere konektatu egin beharko da bateria kargatzen has dadin. Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Segurtasunez kentzea. Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

Modu egokian kargatzea. Kargagailua erabiltzen ari ez bazara, desentxufatu eta telefonotik deskonektatu. Ez utzi guztiz kargatutako bateriarik kargagailura konektatuta, gehiegi kargatzeak bateriaren iraupena labur baitezake.

Gutziz kargatutako bateria erabili gabe utziz gero, pixkanaka deskargatu egingo da.

Saihestu tenperatua altuegiak edo baxuegiak. Bateria 15° eta 25° artean gordetzen saiatu. Tenperatura oso altu edo baxuek bateriaren bizitza eta gaitasuna murrizten dituzte. Baliteke bateria beroa edo hotza duen telefonoak denboraldi batean ez funtzionatzea. Bateriaren errendimendua asko gutxitzen da zero azpiko tenperaturetan.

Ez eragin zirkuitulaburrik. Nahi gabe zirkuitulaburra sor daiteke, metalezko objekturen batek (txanpon bat, klip bat edo axota bat, adibidez) bateriaren terminal positibo (+) eta negatiboak (-) zuzenean konektatzen baditu. (horiek banda metalikoen antza dute baterian). Sakelean edo poltsan ordezko bateria bat eramanez gero hori gerta liteke. Terminaletan zirkuitu-laburrik gertatuz gero, bateria edo konektatutako objektua hondatu egin litezke.

Botatzea. Bateriak ez sutara bota, lehertu egin daitezke eta. Bateriak botatzeko garaian, tokian tokiko arauak bete behar dira. Ahal dela, birziklatu. Ez bota etxeko gainerako hondakinekin batera.

Isurtzea. Ez desmuntatu, moztu, ireki, bihurtu, deformatu, zulatu edo txikitu telefonoa edo bateriak. Isurketarik gertatuz gero, saihestu bateriaren likidoa azala edo begiak ukitzea. Hori gertatuz gero, busti urarekin kaltetutako tokiak ahal bezain laster edo zoaz medikuarengana.

Kaltetzea. Ez ezazu bateria itxuraldatu eta ez izeiaiozu objektu arrotzik sartu. Era berean, ez ezazu bateria ur edo beste likidoren batean murgildu edo busti. Bateriak lehertu egin daitezke hondatuta badaude.

Behar bezala erabiltzea. Bateria dagokion helbururako bakarrik erabili. Bateriaren erabilera okerrak sute, leherketa edo bestelako arriskuren bat eragin lezake. Telefonoa edo bateria eroriz gero, gainazal gogor batera bereziki, eta kaltetu egin dela irudituko balitzaizu, eraman ezazu zerbitzu zentroren batera erabiltzen jarraitu aurretik. Ez erabili hondatuta dagoen kargagailu edo bateriarik. Zure bateria umeen eskuetatik urrun mantendu.

Nokia bateria autentikatzeko jarraibideak

Erabil itzazu beti Nokia bateria originalak zure segurtasunerako. Nokia konpainiaren jatorrizko bateria bat erabiltzen ari zarela egiaztatzeko, erosi bateria Nokia konpainiak baimendutako denda batean eta egiaztatu jatorrizko holograma duela ondorengo pausoak jarraituz:

Holograma autentikatu

- 1 Hologramaren etiketa begiratzerakoan, Nokiaren esku elkartuen ikurra ikusi beharko litzateke angelu batetik eta Nokia Original Enhancements logotipoa bestetik.



- 2 Holograma ezkerrera, eskuinera, gora eta behera okertzean, 1, 2, 3 eta 4 puntu ikusi beharko lirateke alde bakoitzean hurrenez hurren.



Hurrengo urratsak zuzentasunez bete arren, ezin da bateria egiazkoa dela gutziz ziurtatu. Bateriaren jatorria ezezaguna bada edo edozein arrazoiengatik Nokiaren holograma duen bateria egiazkoa ez dela susmatuz gero, ez ezazu erabili eta eraman ezazu hurbilen duzun Nokia zerbitzu-gunera edo zerbitzu-hornitzailearengana laguntza eskatzeko.

Nokia bateriei buruz gehiago jakiteko, zoaz www.nokia.com/battery helbidera.

Telefonoa zaintzea

Zure telefonoa diseinu eta fabrikazio bikaineko produktu bat da, eta kontuz erabili behar da. Hurrengo proposamen hauek garantiaren estaldura babesten lagunduko dizute.

- Telefonoa lehor mantentzea. Euriak, hezetasunak eta mota guztietako likidoak edo egoera bustiek, zirkuitu elektronikoak erdoil ditzaketen mineralak izan ditzakete. Zure gailua bustiz gero, atera bateria, eta utz izeaiozu gutziz lehertzen berriz jarri baino lehen.

- Ez erabili edo gorde telefonoa toki zikin edo hautsez betetako tokietan. Atal higikorrek eta osagarri elektronikokoak honda daitezke.
- Ez ezazu gorde telefonoa tenperatura hotzak edo altuak dauden tokietan. Tenperatura altuek gailu elektronikoen iraupena laburtu, bateriak hondatu eta plastiko batzuk deformatu edo urtu ditzakete. Telefonoa tenperatura hotzetik bere tenperatura normalera iristen denean, barruan hezetasuna sor daiteke, eta horrek, zirkuitu elektronikoen plakak honda ditzake.
- Ez zaitez telefonoa gida honetan azaltzen ez den modu batean zabalzen saiatu.
- Ez ezazu utzi telefonoa lurrera erortzen; ez kolpatu edo astindu telefonoa. Modu zakarrean erabiliz gero, barruko zirkuituen plakak eta atal hauskorrenak apur daitezke.
- Ez ezazu erabili produktu kimiko kaltegarriak, disolbatzailerik edo garbigarri gogorrik telefonoa garbitzeko. Erabili oihal leuna, garbia eta lehorra bakarrik gailuaren gainaldea garbitzeko.
- Ez ezazu telefonoa margotu. Margoak atal mugikorrek buxatu eta funtzionamendu egokia galarazi dezake.
- Telefonoarekin batera hornitu edo homologatutako ordezko antena soilik erabili. Baimenik gabeko antena, aldaketa edo atxikitako elementuek, gailua hondatu eta irrati tresnen araudien urratze bat suposa ditzakete.
- Kargagailua beti toki baten barruan erabili, ez aire librean.
- Sor ezazu beti gorde nahi duzun datuen segurtasun-kopia bat, kontaktu eta agendako oharrak, esaterako.
- Noizean behin telefonoa berrezarri eta honen etekinik onena ateratzeko, itzal ezazu telefonoa eta ken izeaziozu bateria.

Gomendio hauek berdin balio dute telefono, bateria, kargagailu edo beste edozein osagarrirentzat.

Birziklatu

Eraman beti erabilitako produktu elektronikoak, bateriak eta paketatze-materialak dagokien bilketa-guneetara. Horrela kontrolik gabeko hondakinen erazketa ekiditen lagunduko duzu, birziklatzea bultzatuz. Egiaztatu ingurumenari buruzko informazioa eta Nokia produktuak birziklatzeko moduari buruzko informazioa www.nokia.com/werecycle helbidean edo www.nokia.mobi/werecycle helbidean.

Segurtasunari buruzko informazio gehigarria Ume txikiak

Telefonoa eta honen osagarriak ez dira jostailuak. Zati txikiak izan ditzakete. Haurren eskumenetik kanpo mantendu.

Inguru eragilea

Telefono honek irrati-frekuentziak esposizio-arauak betetzen ditu baldin eta modu egokian erabiltzen bada edo belarritik honako gutxieneko tarteak mantentzen bada: 2,2 zentimetroko(7/8hazbete)Soinean eramán ditzakezun zorro babesle, gerriko poltsatxo edo euskarriek ez lukete metalik izan behar eta telefonoa gorputzetik aurrez aipatutako distantziara eramán beharko zenuke.

Datu-fitxategiak edo mezuak bidaltzeko, kalitate oneko sare konexioa beharrezkoa da. Datu-fitxategiak edo mezuak beranduago bidaliko dira horrelako konexioren bat eskuragarri egon arte. Jarraitu utzi beharreko tarteari buruzko argibideak transmisioa amaitu arte.

Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoeak, telefono mugikorrek barne, modu ezegokian babestutako tresna medikoen funtzionamenduan eragin dezakete. Jarri harremanetan medikuarekin edo gailu medikoaren egilearekin kanpoko irrati-frekuentziaren energiati ondo babestuta daudela zehazteko. Itzali telefonoa argitaratutako arauak hori egitea eskatzen dizutenean. Ospitaleetan edo osasun zentroetan irrati-frekuentziaren energiarekiko sentikorra den ekipamendua erabili daiteke.

Medikuntzako tresna inplantatuak

Medikuntzako tresnen egileek hari gabeko gailuaren eta inplantatutako mediku tresnen artean, taupada-markagailu edo desfibriladoreak esaterako, gutxienez 15,3 zentimetroko (6 hazbetetara) tarte egotea gomendatzen dute medikuntza tresnarekiko egon daitezkeen interferentziak ekiditeko. Tresna hauetakoren bat darabilten pertsonak:

- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikotik 15,3 zentimetroara (6 hazbetetara) baino gehiagotara
- Ez eramán telefonoa paparreko zorro batean.
- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikoa dagoen kontrako belarrian.
- Interferentziaren bat dela susmatu bezain laster, itzali hari gabeko telefonoa.
- Jarraitu egilearen argibideak inplantatutako gailu medikoari dagokionez.

Zure haririk gabeko telefonoa medikuntzako tresna batekin batera erabiltzeari buruzko zalantzarik izanez gero, jar zaitez zure sendagilearekin harremanetan.

Entzuteko aparatuek

Gailu mugikor digital batzuek audiofono batzuetan eragina izan dezakete.

Ibilgailuak

Irrati-frekuentziako seinaleek ibilgailuetan gaizki instalatutako edo gaizki babestutako sistema elektronikoen eragina izan dezakete, hala nola, erregiairen injezio elektronikoen, balazten blokeoa saihesteko sistema elektronikoen, abiaduraren kontrol elektronikoen edo airbag sistemetan. Informazioa lortzeko, egiaztatutako autoaren edo honen ekipamenduaren fabrikatzailearekin.

Langile kualifikatuek soilik ikuska ditzakete telefonoa eta ibilgailuetan instalatu. Behar bezala instalatu edo erabili ezean, arriskuak sor daitezke eta bermea baliogabe daiteke. Egiaztatutako ibilgailuan instalatutako hari gabeko osagarriek behar bezala funtzionatzen dutela. Ez gorde edo eraman likido sukoiak, gasak edo material lehegarriak telefonoa, haren zatiak edo osagarriak daramatzazun toki berean. Gogoratu airbag-ak indar handiarekin putzen dela. Ez jarri telefonoa edo osagarriak airbag-a aterako den tokian.

Itzali telefonoa hegazkinera igo aurretik. Hari gabeko gailuak hegazkinaren erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren funtzionamendurako eta legez kanpokoa izan daitekeelako.

Balizko ingurune leherkorrek

Itzali telefonoa leherketak gertatzeko arriskua badago. Bete argitaratutako argibideak. Txinpartak horrelako inguruetan gertatu gero, leherketak edo suteak gerta daitezke, kalte fisikoak edo heriotza eraginez. Itzali telefonoa gasolina inguruan dagoenean, gasolindegietan, adibidez. Jarraitu gasolina gordetzen eta banatzen den tokitan erabiltzeko murriztapenak, bai eta gune kimikoetan edo eragiketa arriskutsuak abian direnean ere. Leher daitekeen ingurumena duten lekuak argi eta garbi markatuta egonahi dira, baina ez beti. Zure autoaren motorra itzaltzeko eskatzen zaizun tokiak, itsasontzietako bizkar azpian, transferentzia kimikoak egiteko edo biltegitratzeko eraikuntzak eta aireak alea, errausa edo metalezko partikulak dituen ingurumenak barne. Likido egindako petroleo-gasa erabiltzen duten autoen egileekin egiaztatutako behar duzu (butano edo propano, esaterako) hurbilean gailu hau segurtasunez erabili daitekeen zehatzeko.

Larrialdi deiak

Garrantzitsua: Telefono mugikorrek, telefono hau barne, irrati-seinaleak, haririk gabeko eta lehorreko sarea eta erabiltzaileak programatutako funtzioak erabiliz funtzionatzen dute. Zure gailuak Internet bidezko ahots-deiak onartzen baditu (interneteko deiak), mugikorra eta interneteko telefonoa biak aktibatu. Honela, telefonoak larrialdi deiak egiteko mugikorraren sarea eta Internet-hornitzailea erabiliko ditu aktibatuta badaude. Ez da uneroa konektatzeko aukera izatea ziurtatzen. Ez zaitez inoiz egon telefono mugikor baten menpe komunikazio garrantzitsuetarako, adibidez, osasun larrialdi baterako.

Larrialdiko deiak egiteko:

- 1 Telefonoa itzalita baldin badago, piztu ezazu. Seinaleak behar besteko indarra daukan begiratu. Telefono motaren arabera, baliteke ondorengoak ere egon behar izatea:
 - SIM txartel bat sartu, telefonoak bat badarabil.
 - Aktibatu dituzun zenbait dei murrizketa ezgaitu.
 - Aldatu profila Hegaldi modutik edo Lineaz kanpoko modutik modu aktibo batera.
- 2 Sakatu amaizeko tekla behar bezain beste pantaila ezabatzeko eta telefonoa deietarako prestatzeko.
- 3 Sartu zauden tokiko larrialdi zenbaki ofiziala. Larrialdi zenbakiak tokiaren arabera alda daitezke.
- 4 Sakatu deitzeko tekla.

Larrialdi dei bat egitean, eman ezazu beharrezko informazio gutzia ahalik eta zehatzen. Zure gailu mugikorra komunikatzeko modu bakarra izan daiteke istripu bat dagoen tokian. Deia ez bukatu hori egiteko baimenik ez den bitartean.

Ziurtagiri informazioa (SAR)

Telefono honek irrati uhinekiko arriskuari buruzko arauak betetzen ditu.

Zure telefono mugikorra irrati-igorlea eta irrati-hargailua da. Araudi internazionalak gomendatzen duten irrati uhinekiko arrisku egoerara ez heltzeko diseinatua dago. Araudi hauek ICNIRP elkarte zientifiko independenteak garatu ditu eta pertsona guztiak babesteko marjina daukate, adina edo osasuna kontutan izan gabe.

Telefono mugikorraren arriskuen kontrako araudiak Berariazko Absortzio Tasa (Specific Absorption Rate) edo SAR moduan ezagutzen den neurri unitate bat erabiltzen du. ICNIRP araudian ezartzen den SAR limitea 2.0 watt/kilogramo

(W/kg)-koa da, 10 gramoko ehunean erabilia batezbeste. SAR probak funtzionamendu posizio estandarretan egiten dira, telefonoak potentzia mailarik altuenean transmititzen duen bitartean probatutako frekuentzia banda guztietan. Funtzionatzen ari den telefono baten kasuan kasuko SAR maila, gehiengo balioaren azpitik egon daiteke, zeren telefonoa sarea atzitzeko behar duen indarra erabiltzeko bakarrik diseinatuta baitago. Kantitatea faktore batzuen arabera alda daiteke, adibidez, sare estazio gune batekiko zein hurbil zauden.

SAR balio altuena ICNIRP araudien arabera telefonoa belarrian erabiltzeko honakoa da: 1,34 W/kg.

Telefonoaren osagarriak erabiltzeak SAR balio ezberdinak eman ditzake. SAR balioak proba eta informazio nazionalen eskakizunen eta sareko bandaren arabekoak izan daitezke. SAR-i buruzko informazio gehiago jasotzeko kontsultatu ezazu produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

© 2010 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

ONESPEN ADIERAZPENEA

CE 0434

Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-645 telefonoak 1999/5/EC Artetzararako oinarritzko baldintzak eta dagozkion gainerako xedapenak betetzen dituela. Onespen-adierazpen horren kopia bat http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/ helbidean aurki daitezke.

Nokia, Nokia Connecting People, Navi, OVI eta Nokia Original Enhancements logoa Nokia Corporation-en marka komertzialak edo izen erregistratuak dira. Nokia tune Nokia Corporation-en soinu-marka bat da. Hemen aipatutako gainerako produktu edo enpresen izenak jabeak dituzten merkatal marka edo izenak izan daitezke.

Galarazita dago dokumentu honen edukia, zatika nahiz osorik, kopiatzea, igortzea, zabaltzea edo gordetzea, edozein modutan, Nokia konpainiak aldez aurretik idatzizko baimenik ematen ez badu. Nokia konpainiak etengabeko garapen politika bat du. Nokia konpainiak dokumentu honetan deskribatutako edozein produktutan aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea gordetzen du, aldez aurretik horren berririk eman gabe.

This software is based in part of the work of the FreeType Team. This product is covered by one or more of the following patents: United States Patent 5,155,805, United States Patent 5,325,479, United States Patent 5,159,668, United States Patent 2232861 and France Patent 9005712.

symbian

This product includes software licensed from Symbian Software Ltd ©1998-2010. Symbian and Symbian OS are trademarks of Symbian Ltd.



Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Portions of the Nokia Maps software are ©1996-2010 The FreeType Project. All rights reserved.

Produktu honek MPEG-4 Visual Portfolio License-ek emandako lizentzia du (i) jarduera pertsonal eta ez komertzialerako ari den kontsumitzaile batek MPEG-4 Visual Standard-en arabera kodetutako informazioarekin erlazioanaturako erabilpen pertsonal eta ez komertzialerako eta (ii) lizentziadun bideo hornitzaile batek emandako MPEG-4 bideoarekin erabiltzeko. Lizentzia batik ez da emango edo enigmatiko beste edozein erabilpenerako. Argibide gehigarriak, sustapena, barne edo erabilpen komertzialekin zerikusia dutenak barne, MPEG LA, LLC-tik lortu daitezke. Ikusi <http://www.mpegla.com>.

LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIRIK HANDIENEAN, NOKIA EDO BERE BESTE EDOZEIN BAIMEN HORNITZAILEK EZ DU INORDIK INORA ERANTZUKIZUNIK IZANGO, EDOZEIN DATU EDO IRABAZIEN GALERAGATIK EDO EDONOLA SORTUTAKO KALTE BEREZI, USTEKABEKO, ONDORIOZKO EDO ZEHARKAKOENGATIK.

DOKUMENTU HONEN EDUKIAK "BERE HORRETAN" HORNITZEN DIRA. LEGEAK ESKATZEN DUENETIK AT, DOKUMENTU HONEN ZEHATZASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKIONEZ EZ DA INOLAKO BERMERIK EMATEN, EZ ESPLIZITU EZ INPLIZITUKI, SALEROSGARRITASUN ETA HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI DAGOZKION BERMEAK BARNE, BAINA HAUETARA MUGATU GABE. NOKIA KONPAINIAK, EDONOIZ ETA AURRETIK OHARTARAZI GABE DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO ERRETIRATZEKO ESKUBIDEA GORDETZEN DU.

Telefonoaren softwarearen alderantzizko ingeniartza debekatuta dago aplikagarriak diren legeen mugen barruan. Erabiltzailearen gida honetan aipatutako Nokia konpainiaren adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunegi dagoenik mugek Nokia konpainiaren baimen hornitzaileen adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunak ere mugatuko dituzte.

Produktu zehatzak eta produktu horientzako aplikazio eta zerbitzuak eskuratzeko aukera herrialde batetik bestera alda daitezke. Jo ezazu zure Nokia hornitzailearengana dauden produktu eta hizkuntzen aukeren berririk izateko. Telefono honek Amerikako Estatu Batuetako eta beste herri batzuetako esportazio lege eta arauak bete behar dituzten osagai, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debekatuta dago legea urratzea.

FCC-REN OHARRA

Zure telefonoak irrti eta telebista interferentziak sor ditzake (telefonoa hargailu elektronikoko batetik oso gertu erabiltzen denean, adibidez). FCCk zure telefonoa erabiltzeari uzteko eska diezazukete, interferentzia horiek ezabatzerik ez balego. Laguntzarik behar izanez gero, zure inguruko zerbitzu-gunera jo. Telefonoa FCC-ko araudiaren 15. atala betetzen du. Telefonoa erabiltzeko bi baldintza hauek bete behar dira: (1) interferentzia kaltegarriak ez eragitea

eta (2) jasotako interferentzia guztiak onartzea, nahi ez diren eragiketak sor ditzakeenak barne. Nokia konpainiak argiro onartzen ez duen aldaketarik eginez gero, erabiltzaileak ekipamendu hau erabiltzeko baimena gal lezake.

Hainbat eragiketa eta funtzio SIM txartelaren edo operadorearen araberakoak dira, MMS ezarpenen araberakoak edo eduki-formatuen bateragarritasunaren araberakoak. Hainbat zerbitzuek aparteko tarifak ordaindu behar dira.

Zure telefonoak bitartekarien webguneetarako lotura eta laster-markak izan ditzake instalatuta. Zure telefonoaren bitartez beste bitartekarien webguneetara sartzeko aukera izan dezakezu. Bitartekarien webguneak ez daude Nokia konpainiarekin afiliatuta eta Nokia konpainiak ez du hauen inolako erantzukizunik bere gain hartzen. Webgune hauetara sartzea erabakiz gero, eduki edo segurtasun neurriak hartzea gomendatzen da.

/Argitalpena 2 EU

Aurkibidea

A

adierazleak	16
ahots bidezko markatzea	27
ahots laguntza	
<i>Ikus hizketa gaia</i>	
albisteen jarioak	53
antenak	12
aplikazioak	91
aplikazioak instalatu	85
aplikazioen ezarpenak	83
arakatzailea	52
— cache memoria	54
— edukiak bilatu	54
— ezarpenak	55
— laster markak	54
— laster-markak	52
— orriak arakatu	52, 53
— segurtasuna	55
— tresna-barra	53
atzeko irudia	21
audio mezuak	35
aurikularrak	11

B

bateria	
— karga-mailaren adierazlea	16
— kargatu	10
— kendu	14
— sartu	8
bateria kargatu	10
bidaltzea	
— Bluetooth-a erabili	48
bideo deiak	25
Bideo Zentroa	74
bideo zentroa	
— deskarga	74

— ikusi	74
bideo-deiak	
— ahots-deira aldatu	24
— dei bat egin	24
bideoak partekatzen	
— bideoklipak partekatu	26
— zuzeneko bideoak partekatu	26
bihurgailua monetentzat	79
bihurgailua neurrientzat	80
bilatu	52
— musika	69
bilerak	38
blogak	53
blokeatzen	
— blokeo automatikoa	83
— teklatura	83
blokeo automatikoaren tartea	83
blokeo kodea	83
Bluetooth konexioa	
— gailuak blokeatu	50
Bluetootha	49
— datuak bidali	48
— datuak jaso	48
— segurtasuna	48
bolumenaren kontrola	11
bulegotik kanpoko erantzuna	39

C

cache memoria	54
cookieak	55
copyright babesa	89

D

datu konexioak	
— sinkronizazioa	51
debeku pasahitza	19
deiak	
— deia zain	30
— deitzaile IDA	30

— egin	24
— erantzun	24
— ezarpenak	30
— konferentzia deia	26
— markaketa bizkorra	27
— mota aukeratu	30
— murriztu	29
— ukatu	24
— ukatu testu-mezu batekin	30
deiak desbideratzea	29
deiak egin	24
deien debekuak	28
deitzaile IDa	30
DRM (Digital Rights Management)	89

E

e-maila	
— konfiguratzea	36
eguneratzeak	
— aplikazioak	90, 91
— telefonoaren softwarea	90, 91
egutegia	76
— bilera eskaerak	76
— ikuspegiak	77
— sarrerak sortzea	76
entzungailua	11
Erlojua	
— ezarpenak	78
erlojuaren alarma	77
erregistroa	28
Ezarpen laguntzailea	20
ezarpenak	
— aplikazioak	83
— arakatzailea	55
— berrezarri	84
— deiak	30
— erlojua	78
— konfigurazioa	19
— osagarriak	83

— sarea	31
— teklatua blokeatu	83

F

fitxategi-kudeaketa	87
FM irratia	70

G

gaiak	21
— deskargatzea	21
gailuak uztartu	49
gailuen kudeatzailea	87
GPS (global positioning system)	57
grabagailua	27
grabatu	
— bideoak	72

H

hasierako pantaila	21
hizketa gaia	22
hizkuntza	
— aldatu	16
hiztegia	79

I

idazketa-hizkuntza	16
IM (istanteko mezularitza)	40, 43
Interneteko konexioa	52
Ikus, halaber, <i>arakatzailea</i>	
irratia	70

J

jarioak, albisteak	53
jatorrizko ezarpenak	84
jatorrizko ezarpenak berrezarri	84

K

kablea	50
kalkulagailua	80

kamera		— ibilbideak antolatzea	61, 63
— argazkiak atera	72	— ibilbideak gordetzea	62
— bideo modua	72	— ikusi kokapenen xehetasunak	61
— irudi-modua	72	— ikuspegiak aldatzea	60
konexio metodoak		— iparrorratza	59
— Bluetootha	48	— kokapena	58
— datu-kablea	50	— kokapenak bilatu	61
konexioak		— nabigatu	65
— PC konexioa	46	— oinez egiteko ibilbideak	65
konexiorik gabe	18	— partekatu kokapenak	64
konferentzia-deiak	26	— sinkronizatu	63
konfigurazio ezarpenak	19	— tokiak antolatzea	63
kontaktu-barra	21	— tokiak gordetzea	62
kontaktuak		— trafikoaren informazioa	66
— ahots etiketak	32	markaketa bizkorra	27
— argazkiak	33	markatze finkoa	29
— kopiatu	32	memoria	
— kudeatu	32, 33	— webaren cachea	54
— sare sozialak	32	memoria txartela	9, 14
— sinkronizatu	51	menua	16
— tonuak	33	menuaren ikuspegia	16
kontuak	44	mezuak	35
		— deiak ukatzeko mezuak	30
L		Minimapa	53
Lagunduriko GPSa (A-GPS)	57	MMS (multimedia mezularitza	
laguntza	90	zerbitzua)	35
laguntza aplikazioa	91	modema	46
laster markak	54	moneta bihurtzailua	79
lasterbideak	18	mugarriak	66
lizentziak	89	multimedia	
		— radio	70
M		multimedia fitxategiak kargatu	73
Mapak	58	multimedia mezuak	35
— ahots-laguntza	64	musika abiarazlea	
— arakatu	59	— erreprodukzio zerrendak	69
— autoz egiteko ibilbideak	65	musika bilatu	69
— bidali tokiak	63	musika erreproduzitzaila	
— bistaratu elementuak	60	— erreproduzitu	68
— Gogokoak	63	— transferitu musika	70

N		PIN kodea	
nabigatzailea	55	— aldatzen	83
neurri bihurgailua	80	PINa	19
Nokia kontua	40, 44	posta elektronikoa	
Nokia laguntzaren informazioa	90	— bidali	37
		— bilatu	38
		— bulegotik kanpo zaudenerako	
		erantzuna	39
		— deskonektatu	39
		— eranskinak	38
		— eranskinak gehitu	37
		— ezabatu	39
		— ezarpenak	39
		— irakurri	37
		— karpetak	39
		— kontuak	39
		presentzia	44
		profilak	
		— pertsonalizatu	22
		— sortu	22
		PUKa	19
O		Q	
Ohar aktiboak	80, 81	Quickoffice	79
Oharrak	81		
operadorea		R	
— aukeratu	31	radio	70
ordua eta data	77		
ordua eta data automatikoki		S	
eguneratu	77	sarbide kodeak	19
orriaren ikuspegi orokorra	53	sarea	
osagarriak		— ezarpenak	31
— ezarpenak	83	Sarean partekatu	73
Ovi	13, 46	— sarrerak sortu	74
Ovi denda	14	Say and Play	69
Ovi fitxategiak	46	segurtasun kodea	19
Ovi kontaktuak	40, 41	segurtasun modulua	19
— bilatu	42	segurtasuna	
— eskuragarritasunaren egoera	41	— arakatzaila	55
— konexiorako ezarpenak	45		
— lagunak gehitu	42		
— mugarriak	43, 44		
— pertsonalizazioa	45		
— presentzia	44		
— profilak	41		
— zure kokapena partekatu	41, 44		
Ovi Music	68		
Ovi Suite	13		
P			
pantaila	16		
pantaila-babesa	21		
partekatu multimedia fitxategiak			
linean	73		
PDF reader	79		

— Bluetootha	48	USB datu-kablea	50
— telefonoa eta SIM txartela	83		
seinalearen adierazlea	16	W	
Share online		web konexioa	52
— harpidetu	73	Z	
— zerbitzuak aktibatu	73	Zip kudeatzailea	81
SIM txartela		zorroa	11
— kendu	14		
— sartu	8		
sinkronizazioa	51		
SMS (testu motz zerbitzua)	35		
softwarearen eguneratzeak	90, 91		

T

teklak eta atalak	8
teklatura	
— blokeo ezarpenak	83
teklatura blokeatu	11
telefonoa blokeatu	20
telefonoa piztu eta itzali	11
testu	
— hizki modua	15
— input tradizionala	15
— zenbaki modua	15
testu input tradizionala	15
testu iragarlea	15
testu mezuak	
— bidaltzea	35
testua	
— testu iragarlea	15
txat zerbitzuak (IM)	43
txat-zerbitzuak (IM)	40

U

UPIN kodea	
— aldatzen	83
UPINa	19
urruneko blokeoa	20
urruneko konfigurazioa	87